

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Unibertsitate Masterra

**Euskarazko perpaus erlatiboen joskera,
jostailu zaharrentzat
poltsa berriak ehuntzen**

Master amaierako lana

2018/2019

Ikaslea: Eider Gutierrez Ziardegi

Zuzendaria: Arantzazu Elordieta Alzibar

AURKIBIDEA

Laburdurak	4
Laburpena	6
1 Sarrera	9
2 Euskarazko perpaus erlatiboak	13
2.1 Determinatzaile aurreko perpaus erlatiboa	15
2.1.1 Perpaus erlatibo arrunta	15
2.1.2 Perpaus erlatibo jokatugabeak	16
2.1.3 Perpaus erlatibo askeak	17
2.1.4 Izenaren eta determinatzailearen arteko perpaus erlatiboa	19
2.2 Determinatzaile Sintagmaren osteko perpaus erlatiboa	21
2.2.1 Zein erlatiboa	22
2.2.2 Bait- erlatiboa	22
2.2.3 Perpaus Erlatiboak aposizioan eta posizioan	23
2.3 Erlatibo Korrelatiboak	23
3 Euskarazko perpaus erlatiboen sintaxia Gramatika Sortzailearen ikuspegitik	24
3.1 Perpaus Erlatiboen azterketa sintaktikoa (Bianchi, 2002a)	24
3.2 Perpaus erlatiboen azterketa euskaraz.	29
3.2.1 Ezabaketa analisisa	29
3.2.2 Operatzaile bidezko azterketa.	32
3.2.2.1 Operatzaile bidezko analisi eguneratua	35
3.2.3 Igoera analisisa	39
3.2.3.1 Perpaus erlatiboen azterketa Kayneren antisimetriaren hipotesiaren ikuspegitik	39
3.2.3.2 Ñabardurak antisimetriatik	42
3.2.3.3 Euskarazko perpaus erlatibo arruntak antisimetriatik	46
4 Teorien arteko konparaketa	53
4.1 Erlatibizatzen den osagaia	54
4.2 Galdera NZ hitzak perpaus erlatiboan	67
4.3 DS ardatza	73
4.3.1 Bihurkariak kanpoko DSan	73
4.3.2 Zenbatzaile orokorrak kanpoko DSan	75
4.3.3 Esamoldeak	80
4.4 Antisimetriak aurreikusitako ondorioak	84
4.4.1 Izenordain erlatiboak eta perpaus erlatibo arrunta	84
4.4.2 Konplementatzaile buru hutsa	85
4.4.3 Denbora mugatua	87

4.5 Ondorioak	92
5 Proposamena: Erlatiboen egitura igoera analisia eta buru parametroa elkartuta	92
6 Ondorioak eta galdera irekiak	99
Bibliografia	104

Laburdurak

ABS	absolutibo
A	aditz
AO	aditz-objektu
Adj	adjektibo
AKUS	akusatibo
DAT	datibo
Denb	denbora
D	determinatzaile
DAPE	determinatzaile aurreko perpaus erlatiboa
DOPE	determinatzaile osteko perpaus erlatiboa
ERG	ergatibo
Erl	erlatibo
FL	forma logikoa
Gen	genitibo
Inf	inflexio
irag	iragana
I	izena
IPED	izena eta determinatzailearen artean dagoen PE
Joka	jokatutasun
Konp	konplementatzaile
m	maskulino
NOM	nominatibo
OA	objektu-aditz
PE	perpaus erlatiboa
PEA	perpaus erlatibo arrunta
PEJG	perpaus erlatibo jokatugabea
p	pertsona
Posp	postposizio
sg	singularra

S sintagma

Zenb zenbatzaile

Liburu eta Web orrien laburdurak

EPD Ereduzko Prosa Dinamikoa

EPG Euskal Prosa Gaur corpora

KG Klasikoak gaur corpora

SEG Sareko Euskal Gramatika

WALS World Atlas of Linguistic Structures

Laburpena

Perpaus erlatiboak (PE) izen bat modifikatzen duten mendeko perpausak dira. Hizkuntzaz hizkuntza erlatibakuntza modu ezberdinetara egiten da, eta hizkuntza bat eta berak erlatibakuntza modu ezberdinak izan ditzake. Erlatibakuntza gertakari sintaktiko bakuna izan daiteke edo bestelako gertakari orokorragoen ondorio, baina ezagutzen diren hizkuntza guztiek erlatibo perpausak dituztenez, erlatibo perpausak gramatika unibertsalaren parte direla esan dezakegu, elementu atomikoak zein eratorriak izan.

Euskaraz hainbat erlatibakuntza modu daude. Lan honetan guztiak deskribatzen saiatuko naizen arren, bereziki literaturan Perpaus Erlatibo Arrunta (PEA) deitu izan zaienen ezaugarri eta syntaxian zentratuko naiz.

(0) Perpaus erlatibo arrunta:

[_{PE} ~~liburuak~~ irakurri dudana] liburuak irabazi du Kritika Saria.

Horretarako, PE mota hauen berezitasunak aurkeztuko ditut eta planteatu diren azterbideek berezitasun hauek argitu ahal dituzten aztertuko dut. Ikusiko dugunez, guztiek uzten dute ezaugarriren bat edo beste azaldu gabe. Hori dela eta, proposamen berri bat ekarriko dut hona, datu gehienak azalduko dituelakoan.

Nagusiki bi dira erlatiboak aztertzeko egin diren proposamenak: Operatzaile isilaren bidezkoa eta Igoera analisia. Euskarazko perpaus erlatiboen analisirik ezagunena, seguru asko, operatzaile bidezko analisia da (Ortiz de Urbina 1989). Azterbide honetan, euskarazko PEA-ak hizkuntza indoeuroparren izen osteko PE-en antzera eratzen direla defendatzen da: izenordain erlatibo bat (operatzailea) NZ mugimendu bidez PEaren hasierara mugituz. Ikusiko dugunez, azterbide honek hainbat arazo ditu euskarazko datuak azaltzeko, hala nola, bihurkarien zilegiztatzea eta zenbatzaileen besarkadura.

Igoera bidezko analisiari dagokionez, Kaynek (1994), Vergnauden (1974) ideietatik abiatuz eta antisimetriaren bidetik, perpauk erlatiboak erlatibizatutako izenaren igoera bidez eratzten direla planteatu zuen, eta izen aurreko eta izen osteko PEak ezberdin eratzten direla defendatu zuen. Azterbide honetan operatzaile bidezko analisiak azaldu ezin dituen hainbat gertakarik azalpena izan dezakete. Alabaina, azalpen berriekin batera, arazo berriak sortzen direla ikusiko dugu. Horregatik, antisimetria jarraituko ez duen igoera analisi bat proposatuko dut, bi azterbideek azalarazi dituzten arazo batzuei erantzuna emateko asmoz.

*If I have seen further,
it is by standing
on the shoulders of Giants.*

Isaac Newton (1676)

1 Sarrera

Perpaus erlatiboak determinatzaile sintagma (DS) baten osagaiak dira, mendeko perpausak, beraz.

(1) [_{PE} ~~liburuak~~ irakurri dudan] liburuak irabazi du Kritika Saria.

(1)-eko perpaus nagusian dagoen *liburuak* DSak perpaus erlatiboa du osagaitzat, eta honek haren erreferentzia zehazten edo mugatzen du. Beraz, perpaus erlatiboa duen DSa bi egongunetan interpretatzen da: PEaren barruan eta perpaus nagusian. Hemendik aurrera, DS honi *ardatza* deituko diot.

Hizkuntzaz hizkuntza PEak era desberdinetara eratzen dira. Adibidez, ardatzari dagokionez, izan daiteke ardatza PE barruan egotea (ikus hidatsa¹ hizkuntzako (2) adibidea) PEaren kanpoan egotea (euskarazko (1) adibidea), edota bi egongunetan ere egon daiteke (yagaria² hizkuntzako (3) adibidea):

(2) [_{PE} **wacée** aku-waapáahi-š] wía íkaa-c
[gizon erl-abestu-det] emakume ikusi zuen
“Abestu zuen gizonak emakumea ikusi zuen”

(Boyle 2016: (3)-tik egokitua)

(3) [_{PE} hemeti dete' **ge** hu-d-u-ma'] **ge**
[gaur goiz **hitz** esan-Irag-1.sg] **hitz**
'goizean esan dudan hitza'

(Cinque 2011: (4d)-tik egokitua)

PEaren kokaguneari dagokionez, ardatzaren aurretik edo atzetik egon daiteke. Hizkuntzen tipologiaren azterketan giltzarri den lanean, Greenbergekin (1966) hizkuntzaren unibertsalak zehazterakoan erlatibo perpausen egonguneari begiratu zion. Perpaus erlatiboaren egongunea beste gertakari sintaktiko batzuekin lotuz, besteak beste, 24. unibertsala eman zuen. Honen arabera, PEa ardatzaren aurretik duten hizkuntzek postposizioak dituzte edo adjektiboa izenaren aurretik dago, edo gauza biak. Euskaraz orokorpen hau

¹ Sioux familiako OA hizkuntza.

² Papuako OA hizkuntza, ez-austronesiarra.

hein batean betetzen da, PEa ardatzaren aurretik duelako eta postposizioak dituelako; adjektiboak, ordea, izenaren ondoren kokatzen dira.

Gainera, badago erlazio orokor bat buru parametroaren eta perpaus erlatiboaren egongunearen artean. WALSen arabera (ikus 1. taula), AO hitzordena duten hizkuntzetan, ehuneko altu batean, izen osteko perpaus erlatiboak dira nagusi, adibidez, gaztelaniaz (ik. (4)). OA hizkuntzetan, ordea, estatistikak erakusten du izen aurreko perpaus erlatiboak zein izen ostekoak daudela; horien adibide dira, hurrenez hurren, japoniera (5) eta tapiete hizkuntzak³ (6).

(4) El libro [_{PE}que lee Maite]

(5) [_{PE}Taroo-ga yonda] hon
 Taroo-NOM irakurri liburu
 “Tarook irakurri duen liburua” (Murasugi 2000b: (7)-tik egokitua)

(6) Ai-kwa hé sanya'l [_{PE} kiripoti ñomi shi-hewi-a]
 1p-ezagutu 3p ume diru lapurtu 1p-hewi-Konp
 “Dirua lapurtu zidan umea ezagutzen dut” (Gonzalez 2005-etik egokitua)

Hitzordena	I eta PEaren arteko ordena	Hizkuntza kopurua	ehunekotan
SOA	Erl I	113	%48
SOA	I Erl	87	%37
SOA	mistoa	35	%14
guztira		235	%100
SAO	Erl I	5	%1.6
SAO	I Erl	293	%97.3
SAO	mistoa	3	%0.99
guztira		301	%100

1. taula: hizkuntzen hitzordena neutroaren eta PE-en arteko erlazioa (WALS)

³ Argentina, Bolivia eta Paraguayen hitz egiten den Tupi-Guarani familiako hizkuntza.

WALSeko sailkapen honetan, euskara 1. taulako lehenengo multzoan ageri da (SOA- Erl I). Baina hirugarren multzoan ere sartu genezake, kontuan hartuta euskara OA izanik, hainbat motatako perpaus erlatiboak dituela: izen aurrekoak, izen ostekoak, korrelatiboak eta erlatibo askeak, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala.

Bestalde, WALSeko sailkapena xeheki aztertzen hasiko bagina, ikusiko genuke estatistika batzuetan engainagarria gerta daitekeela. Adibidez, sailkapen honetan txinera hizkuntza bakartzat jotzen da, baina hizkuntza bakarra gabe, hizkuntza sinitikoen familiaren barruan sailkatuko bagenu, emaitzak desberdinak lirateke; hizkuntza sinitikoak gutxienez 7 taldetan banatzen baitira eta 30 hizkuntza baino gehiago biltzen baitituzte^{4,5}. Dena dela, WALSen ohartarazten dute hizkuntza batek erlatibakuntza modu bat baino gehiago izan arren, sailkapenean erlatibakuntza mota nagusia edo erabiliena hartu dutela kontuan. Eta irizpide horren arabera bai, euskaraz erlatibo perpaus gehienak izen aurrekoak dira. Izan ere, zenbait gramatikatan (SEG, EGLU V) erlatibo mota honi Perpaus Erlatibo Arrunta (PEA) deitzen zaio. Lan honetan PE ezberdinak izendatzerakoan, Euskaltzaindiaren gramatika jarraituko dut (EGLU V).

Perpaus erlatiboen azterketak Gramatika Unibertsalari buruzko xehetasunak ulertzen lagundu ahal digu. Printzipioz loturarik ez duten gertakari gramatikalen artean elkarreraginak aurkitzeak sintaxiaren egituraketa eta funtzionamenduari buruzko ebidentziak aurkitzen laguntzen du, eta zentzu honetan, gramatika sortzailean lan ugari egin da erlatibakuntzari buruz (Chomsky 1977, Browning 1987...), egitura hauek beste egitura batzuekin lotuz, batez ere, NZ mugimendurekin (Chomsky 1977).

Euskaraz, erlatibakuntzari buruzko hiru proposamen egin dira gramatika sortzailearen ikuspuntutik. Lan honen helburu nagusia da euskarazko

⁴ Arazoa hori baino konplexuagoa da, txinerak eredu mistoa duelako osagaien hurrenkerari dagokionez: buru gehienak eskumatara daude, baina aditza ez, eta preposizioak ditu.

⁵ Froga bat egiteko, "txineraren" ordez 30 hizkuntza sinitiko hartuko bagenitu, ehunekoen laukian PEa izenaren aurretik dituzten AO hizkuntzak %9,17 lirateke, %1,6 izan ordez.

erlatibakuntzari buruz proposatutako azalpenak elkarren artean konparatzea eta erabakitzea teorien artean zeinek azal ditzakeen hobeto datuak. Ikusiko dugunez, orain arte egindako analisiek ez dituzte bete-betean PEAn ezaugarri guztiak azaltzen. Horregatik, igoera analisi berri bat planteatuko dut, baina neure proposamenean buru parametroa mantenduko dut, antisimetrian ez bezala.

Lana honela dago antolatuta: sarrera atalaren ondoren, 2. atalean euskarazko PE-en aurkezpena egingo dut. Bertan, euskarazko PE mota ezberdinak ikusiko ditugu, hiru multzotan banatuta: Determinatzaile-aurreko Perpaus Erlatiboak (DAPE), Determinatzaile-osteko Perpaus Erlatiboak (DOPE) eta PE korrelatiboak. 3. atalean, aintzat hartuta Master Amaierako Lan hau bereziki PEAtan oinarrituko dela, hauetarako planteatu diren azterbideak aurkeztu eta azalduko ditut. Horrela, 3.1 atalean PE-en azterketa sintaktikoari buruzko teorien aurkezpena egin ondoren, hurrengo azpiataletan euskarazko PEak aztertzeke egin diren proposamenak ekarriko ditut eztabaidara. 3.2.1 atalean, deRijken (1973) Ezabaketa analisia ikusiko dugu; 3.2.2 puntuan operatzaile bidezko analisia azalduko dut. Analisi honen azkenengo bertsioak zentzu batean zaharkituak geratu direnez, 3.2.2.1 atalean operatzaile bidezko analisiaren bertsio gaurkotuago bat aurkeztuko dut, PEak indar-jokatutasun sisteman artikulatuz. 3.2.3 atalean igoera analisia ekarriko dut: lehendabizi, Kayneren (1994) proposamena aurkeztuko dut, ondoren, honi egindako zenbait zehaztapen ekarriko ditut (DeVries (2002) eta Bianchi (1999)) eta, azkenik, euskararako planteatu diren igoera analisiak aurkeztuko ditut. Atal honen amaieran ere, igoera bidezko analisi berri bat aurkeztuko dut, baina proposamen honen justifikazio xehea bukaerarako utziko dut, 5. atalerako. Horren aurretik, 4. atalean operatzaile bidezko eta igoera bidezko analisiak konparatuko ditut eta euskarazko PEAn zenbait gertakari nola azaltzen diren aztertuko dut, bien artean egokiena zein den erabakitzeko asmoarekin. Ondoren, 5. atalean, aurreko analisiek dituzten hainbat arazo saihesteko, proposamen berri bat egingo dut euskarazko PEAk aztertzeke. Zehazki, PEAntzat igoera bidezko analisi bat planteatuko dut, baina antisimetriatik

urrunduko da, nik buru parametroa onartuko baitut. Azkenik, 6. atalean, nire proposamenak, beste analisiek dituzten hainbat arazo konpontzen baditu ere, argitu gabe uzten dituen hainbat gertakari eta irekita geratzen diren zenbait galdera plazaratuko ditut.

2 Euskarazko perpaus erlatiboak

Atal honetan euskarazko perpaus erlatiboak aurkeztuko ditut. Lanean zehar, perpaus nagusian dagoen DSkos osagaiari erreferentzia egiteko, *kanpoko* osagaiak arituko naiz (kanpoko DS, kanpoko D, kanpoko I, etab.) eta perpaus erlatiboaren barruan daudenei *barruko* osagaiak deituko diet (barruko DS, barruko I...).

Beste hizkuntza batzuetan (ingelese, frantsese, gaztelania...) erlatibo perpausari buruz hitz egiterakoan, garrantzia handia izan ohi du erlatibo murrizgarriak ez-murrizgarrietatik bereizteak. Euskarari dagokionez esan izan da ezberdintasun hau perpaus erlatiboa Iren aurretik edo atzetik kokatzean datzala. Alegia, defendatu izan da perpaus erlatiboa Iren atzetik doanean ez dela murrizgarria, eta alderantziz, Iren aurretik dagoenean murrizgarria dela (Garzia: 1997). Euskaltzaindiaren gramatikak (EGLU V: 200-201) kontu hau azaltzen du eta zehazten du PEAek testuinguru batzuetan nahitaez mugagarri eta murrizgarri izan behar dutela (7a), beste batzuetan murrizgarri baina ez mugagarri (7b), zenbaitetan ezin izan daitezkeela murrizgarri (eta beraz ez mugagarri) (7c), eta beste batzuetan (7d) bi eratara interpreta daitezkeela.

(7)

- (a) Goizean etxe aurrean zurekin mintzatu den gizonak esango zizun hori.
- (b) Etorri ziren aspaldi ezagutzen nituen lagun batzuk.
- (c) Aspaldi ezagutzen duzun Maddi nire arrebak esango dizu hori.
- (d) Zuk ongi ezagutzen dituzun euskal liburu zaharrak irakurri behar nituzke.

(EGLU V: (68a-d))

Gainera, ohartarazten duenez, PEAetan agertzen diren balio eta interpretazio desberdin horiek ez dute ondorio zuzenik erlatibo arrunten

erabidean. Adibidez, erlatiboak berdin moldatzen dira, ardatza izen arrunta izanik murrizgarri eta mugagarri direnean, edo ardatz gisa izen berezia dutenean (EGLU V: 201).

Ildo honetan, Krajewskak (2017: 121), euskal PEak diakronikoki izan duten erabilera aztertuta, adierazten du PEA-ak murrizgarriak izateko joera dutela eta *zein* erlatiboak ez-murrizgarri izateko joera. Hala ere, testuetan alderantzizkoa ere aurkitzen da, nahiz eta kopuru txikiagoan.

Beraz, PE motaren eta balio murriztailearen arteko lotura ez denez erabatekoa, uste dut ez dela garrantzizkoa euskarazko erlatibo perpausen sintaxia aztertzeko, hemendik aurrera ez ditut bereiziko eta ez dut hemen gaia sakonago jorratuko.

Bestalde, tradizionalki PEak kanpoko izenarekiko duten ordenaren arabera deskribatu izan dira, izen aurreko/osteko (*prenominal-postnominal*) banaketari jarraituz. Gaur egun, ordea, erlatibozkoa DS baten osagai dela onartzen da, beraz, lan honetan perpaus erlatiboak kanpoko determinatzailearekiko duten kokapenaren arabera sailkatuko ditut, nahiz eta izen ardatzaren agerpena ere kontuan hartuko dudana. Hala eta guztiz ere, hizkuntzalarien teoriak aurkezterakoan, izen aurreko/osteko izendapena mantenduko dut, batzuetan ezberdintasuna garrantzizkoa delako. Lehenengo, 2.1 atalean, kanpoko determinatzailearen aurretik kokatzen diren perpaus erlatiboak aurkeztuko ditut: perpaus erlatibo arruntak (PEA), perpaus erlatibo jokatuabeak (PEJG), izen ardatza agerian ez duten perpaus erlatibo askeak eta PEa izena eta determinatzailearen artean dutenak (hauei, IPED siglez egingo diet erreferentzia, osagaiak duten ordena dela eta). Ondoren, 2.2 atalean, determinatzailearen ondoren kokatzen diren perpaus erlatiboak (DOPE) ikusiko ditugu: *zein* erlatiboa, *bait-* erlatiboa eta aposizioan eta posizioan ageri diren perpaus erlatiboak. Azkenik, erlatibo korrelatiboak aurkeztuko ditut.

2.1 Determinatzaile aurreko perpaus erlatiboa

Gaur egun euskaraz gehien erabiltzen den egitura determinatzaile aurreko perpaus erlatiboa (DAPE) da, are gehiago ahozko euskarari begiratzen badiogu. Cid Abasolok (2012) XX. mendeko idatzizko eta ahozko zenbait testutako PE mota ezberdinen erabileraren maiztasuna aztertuz, aurkitu zuen egitura erabiliena perpaus erlatibo arrunta dela. Idatzizkoari dagokionez, Iñaki Aldekoak 1993an bildutako *Euskal ipuinen antologiaren* ipuin gehienak aztertu zituen eta aurkitu zuen PE-en %96,53 PEA-ak direla. Cid Abasolok (2012) adierazi zuen bezala, kontuan hartu behar da aztertu zituen idazle gehienak hegoaldekoak direla⁶, eta hegoaldeko euskalkietan ia ez dela aurkitzen izen osteko PERik. Ahozko euskarari begiratzuz, Cid Abasolok (2012) XX. mendeko bigarren erdiko ahozko testuak aztertu zituen, Pagolak *Euskalkiz euskalki* liburuan jasotakoak. Hemen ere PEAek maiztasun altua dutela aurkitu zuen: %91. Kasu honetan, euskalki guztietako ahozko testuak hartu zituen.

2.1.1 Perpaus erlatibo arrunta

Gramatikalarien aldetik gehien landu diren euskarazko PEak, erlatibo arruntak dira. Hauetan, erlatiboa perpaus nagusiko DSren aurrean azaltzen da eta erlatibizatutako DS isilduta dago menpeko perpausan. (8)-an ikusten den bezala, PEAetan menpeko perpauseko aditzari atxikita, *-(e)n* konplementatzailea dago.

(8) [_{PE} ~~liburua~~ irakurri duda-*n*] liburuak irabazi du Kritika Saria.

Lan honen helburua gaur egungo PEak aztertzea den arren, ez dut ikuspuntu diakronikoa alde batera utzi nahi, PE-ek iraganean izan duten erabilera eta bilakaera garrantzizkoa dela uste baitut ezaugarri sinkronikoak hobeto ulertzeko. Euskararen PE-en historiari begiratuta, Krajewskak (2017) XVI-XX mende arteko corpus zabala aztertzen du, eta egileak adierazten

⁶ Honako hauek dira ipuinak eta idazleak: "Margarete, Heinrich" (Atxaga), "Estazioko begiradak" (Sarrionandia), "Kapitaina" (Saizarbitoria), "Samuel" (Lertxundi), "Pernixio" (Garzia Garmendia), "Itoak ur azalera bezala" (Mujika Iraola) eta "Gauaz parke batean" (Mirande). Horietatik Mirande da hegoaldekoa ez den bakarra.

duenez, PEaen adibideak aurki daitezke dagoeneko XV. mendeko testu zaharretan. Horietako adibiderik zaharrenetako bat, zaharrena agian, 1464an eta 1476an jaso zen Arrasateko *Ydia[c] curri çatesquean çelaya* toponimoa da (Ormaetxea Lasaga 1996: 228-229, apud Krajewska 2017:32).

PEAetan, ezin da edozein osagai erlatibizatu eta erlatibakuntzaren mugak ez daude argi, 4.1 atalean zehazkiago ikusiko dugun bezala. Dena dela, oro har esanda, aditzaren argumentuak erlatibizatu ahal dira eta adjuntuak, berriz, ez.

2.1.2 Perpaus erlatibo jokatugabeak

PE jokatugabetan (PEJG), PEaetan bezala, PEa perpaus nagusiko DSren aurrean azaltzen da eta erlatibizatutako DS isilduta dago menpeko perpausean. Konplementatzaileari dagokionez, euskalkiaren arabera, Ø / *-riko* / *-tako* lotzen zaio menpeko aditz partizipioari (ikus (9)).

(9) [_{PE} ~~liburu~~ irakurri(Ø/**-riko**/**-tako**)] liburuak irabazi du Kritika Saria.

PEJG-ak, gaur egun beti DS ardatzaren aurretik ageri dira. Hala eta guztiz ere, Krajewskak (2017:96) aztertutako testuetan, I-PE-D egitura ere aurkitzen du, nahiz eta oso maiztasun txikiak erabili izan den eta hiru autorek soilik: Leizarragak (Lapurdi, XVI. mendea), Mogekek (Bizkaia, XIX. mendea) eta Frai Bartolomek (Bizkaia, XIX. mendea).

Oyharçabalen (2003) deskribapen sakonean oinarrituz, Krajewskak PEJG-en aditzaren formari dagokionez, hiru forma bereizten ditu, bakoitza eremu geografiko eta historiko jakinarekin:

Partizipio soilak (batez ere testu zaharretan), *-rik* partizipioak (eremu geografiko guztietan, *-rikako* Lapurdin eta Nafarroan, *-riko* mendebaldean) eta *-ta* partizipioak (XVIII. mendeaz geroztik Bizkaian eta Gipuzkoan). (Krajewska 2017:98)

Hona hemen Oyharçabalen (2003) lanetik ateratako adibide batzuk:

(10) [Baionako Ospitalean ikusi] etsenplu (Oyharçabal 2003: (1909))

(11) [laranja eta zitroin lorez eginikako] usain gozo bat

(Oyharçabal 2003: (1910))

Gaur egun PE jokatu gabeetan erlatibizatzen dena absolutiboa, ergatiboa edo inesiboa izan daitezke, baina ez da beti horrela izan. Krajewskak *Klasikoak Gaur* corpusa aztertu du, eta aurkitu du PEJGetan ergatibo kasua eta leku-kasuak 1750 urtera arte ez zirela erlatibizatzen:

KG osoan bilatuta, ergatiboaren eta leku-kasuen lehenengo adibideak XVIII. mendearen bigarren erdian lekukotzen dira (...). Ordura arte subjektu iragangaitz eta objektuarekin egindako erlatiboak bakarrik ditugu testuetan. (Krajewska 2017:95)

Krajewskak darabilen corpusaren azterketaren arabera, PEJGetan erlatibizatzen den osagaiari dagokionez absolutiboa da gehien erlatibizatzen den kasua, eta 253 adibidetatik %72 absolutiboa aditz iragankor baten objektua da. Aditz iragangaitz baten subjektua soilik adibideen %6 dira. Datiboa, kasu bakarrean agertzen da erlatibizatua. Gainontzeko adibideetan (%21) testuinguruan ez dago argi zein kasu erlatibizatu den. Izan ere, hauek iragankor zein iragangaitz izan daitezkeen aditzekin agertzen dira, eta erlatibakuntzan kasua ez denez agerian ikusten, ezin da jakin objektua ala subjektua erlatibizatu den (Krajewska 2017:95).

2.1.3 Perpaus erlatibo askeak

Erlatibizatutako izena agerian ez duten PE-ei, Erlatibo Aske (free relative) edo Ardatzik Gabeko Erlatibo (headless relative) deitu izan zaie. Izan ere, PEaren ardatza erlatibizatzen den I dela pentsatzen badugu, PE mota hauetan ez da “ardatz” hau ageri. Ordea, ardatza D dela ontzat ematen badugu, ezin dugu mantendu Ardatzik Gabeko Erlatibo izendapena, horregatik, PE askeak deituko diet. Euskarazko PE askeen ezaugarri nagusia honakoa da: kanpoko I ez dagoela, ez perpaus erlatiboaren aurretik, ez atzetik. D ardatza, ordea, ageri da (gehienetan, artikulua, baina zenbatzaileak ere ager daitezke). Oyharçabalek (2003) PE askeak bi multzotan banatzen ditu; batetik IS ezabatua, baina berreskuragarria dutenak (ikus (12)), eta bestetik, perpaus erlatibo generikoak (ik. (13)).

Lehenengo motako PE-etan kanpoko izena ezabatuta dago, baina I hau perpaus beretik edo berbalditik berreskuratu daiteke:

(12) [eztabaidan ibili diren]ak (...) belarri zorrotzeko jendeak dira.

(Oyharçabal 2003: (1923))

Egilearen arabera, kanpoko I ezabatua dagoen arren, testuinguruak berak adierazten du zein den I hori (*jendeak*). Ezabaketa mota hau euskaraz oso erabilia da.

Bestetik, PE generikoak daude. Hauetan ere ez da I ardatza agertzen. Baina Oyharçabalek zehazten duen bezala, ezberdintasun garrantzitsu bat daukate: PE generikoetan ez dago I ardatza testuingurutik berreskuratzeko modurik.

(13) [_{PE} ez dakien]ak [_{PE} dakiten]ei galda biezaie. (Oyharçabal 2003: (1924))

(13)-ko perpausean bi erlatibo aske daude. Lehenengoak, *ez dakienak*, izen ardatza isildua du eta balio generikoa du. Gauza bera gertatzen da bigarrenarekin (*dakitenei*), honetan ere isildua dagoen izen ardatzak balio generikoa hartzen du.

PE askeen barruan koka ditzakegu baita Moduzko NZ egitura existentzialak (*Modal existential wh-constructions*, Šimik 2011). Hauek PE askeen antza dute, aurrekaririk ez dutelako, baina PE askeetan ez bezala, NZ hitz bat dago PEaren baitan:

(14) Gizonaren semeak ez du [bere burua **non**_{NZ} pausa].

(Oyharçabal 2003: (1986))

(15) Emanen daraiela [**zer**_{NZ} baitute merezi]. (Oyharçabal 2003: (1985))

Šimiken (2011:45) arabera, hizkuntzaz hizkuntza egitura mota hauen bereizgarri bat honakoa da: txertatutako perpauseko aditza infinitiboa edo subjuntiboa dela. Euskarazko adibideetan ikus dezakegunez, euskarak lehenengo baieztapenarekin bat egiten du, izan ere, (14)-ko perpausean *pausa*

aditz infinitiboa dugu. Bigarren baieztapenari dagokionez, gaur egun PEan aditz jokaturik baldin badago, indikatiboa erabiltzeko joera nagusia dago, 4.4.3-n ikusiko dugun bezala. Bestalde, egia da euskara zaharrea subjuntiboko aditzarekin aurkitu ditzakegula honelako egiturak. Hona adibide batzuk:

(16) Ez dik non bere burua reposa dezan.

(Leizarraga 1571 *apud* EGLU V: 259)

(17) Eskriturak nonbait diona da, aurtxoak ogi eske zeuden ta etzan nork puska ziezaten.

(Larramendi 1747 *apud* EGLU V: 259)

Hala eta guztiz ere, gaur egun egitura hau ez da emankorra.

2.1.4 Izenaren eta determinatzailearen arteko perpaus erlatiboa

Perpaus erlatibo hauek, PEAn antz handia dute egituran. Baina perpaus erlatiboa, PEAtan ez bezala, I ardatzaren eta D ardatzaren artean kokatzen da:

(18) [_{PospS} [_{DS} [_{PE} Ygande juan dan] ea] n] egun guapoa pasatu nuan.

(Satrustegi 1987 *apud* Krajewska 2017; 1761eko gutun batean) (egokitua)

Erlatibakuntza mota hau, banaketa tradizionalari jarraiki, izen osteko PE-en artean kokatu izan da (Krajewska 2017, Oyharçabal 1987), izan ere, izenaren ondoren kokatzen dira; baina, era berean, determinatzaile aurreko PEak ere badira, PEa kanpoko Daren aurrean baitago. Lan honetan, erlatibakuntza modu hau tipologikoki ardatza barruan duten PE-en (internally headed RC) pareko dela iradokiko dut 5. atalean.

Krajewskak (2017) bere azterketa diakronikoan egitura honi arreta jarri dio. Egileak adierazten duen bezala, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, gramatikariek perpaus erlatibo hauek baztertzeko joera izan dute inguruko erdaren kalkoak direlakoan (Larramendi 1729) edo gramatikako bitxikeriatzat hartu dituzte (deRijk 1972). Bere aipu bi ekarriko ditut hona::

Oyharçabalen (1987) lana salbuespena da. Oyhaçabalek izen ondorengo erlatibo hauek ez ditu bitxikeriatzat hartzen, eta hizkuntzako beste edozein egitura bezala aztertzen ditu. Bere ustez ez dago batere garbi IOko⁷ (*izen ondorengo*) egituraren kalkotzat har daitezkeen ala ez, baina, hala izanda ere, ikertu egin behar dira. IOko erlatiboak Ipar EHko literaturan zein ahozko hizkeretan zabaltzen direla dio, nahiz eta askok gaitzetsi, frantsesaren eraginez sortu direla pentsatzen dutelako, agian (Oyharcabal 1987 *apud* Krajewska 2017: 30).

Caminoren (1997: 473, 2003: 448) arabera ere, bizirik jarraitzen du IOko erlatiboak eremu batzuetan: gaur egungo Aezkoan entzuten da (*ele artzen diren geek, etxe iltzen dutenetan, toki ur denean*, adibidez), eta XX. mendearen bukaeran Zaraitzun eta Erronkaribarren ere erabiltzen zen. Bizkaian, gaur egungo Nerbioi ibarreko euskaran ere jaso dira egituraren adibide batzuk: *orri(k b)pai, orri(k) sien jittenu Kastañabaltzati etosanak* edo *kasula tapa gorridxe dekona, metaleskoa* (Zuloaga prestatzen). (Krajewska 2017:30)

Krajewskak (2017) erlatibo hauen maiztasuna neurtzen du darabilen corpusean, baina adierazten duenez, emaitzen irudia ez da guztiz garbia, eremu geografikoen artean eta eremu beraren barruan aldakortasun handia baitago.

IOkoak XVI. mendean agertzen dira dagoeneko, baina ez testu guztietan. Araban eta Bizkaian XVII. mendearen erdira arte lekukotasun bakarrak Lazarragaren eskuizkribuko adibide bat eta Landucciren hiztegiko batzuk dira, baina gero Bizkaiko testuetan oso ohikoak dira. Ipar Euskal Herrian, aldiz, XVI. mendetik aurrera jasota daude, eta egiturak gaur egun arte iraun duela dirudi. Nafarroan eta, batez ere, Erronkaribarren oso maiztasun handia zuten. (Krajewska 2017:31)

Egileak honako taulan biltzen ditu IPEDen maiztasuna eremuka.

Eremua	Guztira	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
Bizkaia	445		30,8	13,3	8,6	

⁷ Krajewskak Iren eta Daren artean dauden PE-ei, *izen ondorengo* IO deitzen die. Aipuan bere izendapena mantendu dut.

Araba	55	0,0 (sic.)				
Gipuzkoa	560		3,6	2,2	0,7	
Nafarroa	467		14,6	1,3	39,8	
Lapurdi	974	26,9	6,9	24,4	5,7	
Zuberoa	713		10,2	27	9,6	
Erronkari	232		76,9		65,5	57,1

2. taula: Krajewska (2017)-ko 2.4 taula

Krajewskak ohartarazten digunez, datu hauek kontuz hartu behar dira, batzuetan oso maiztasun ezberdina duten testuak zaku berean sartu eta konputatu baitira. Adibidez, Leizarragak (Lapurdi, XVI) *Biblian* asko erabili zuen, baina *ABC*an askoz ere gutxiago. Honek, IPED egitura euskarazkoa izan arren, agerpenaren maiztasuna itzulpenaren eraginez igo egiten dela erakusten du. (Krajewska 2017: 48). Egileak dituen datuen arabera, izen ondorengo PE honek denboran zehar gero eta erabilera txikiagoa izan du, XX. mendean ia desagertu arte. Gainera, euskalkien artean ere maiztasun ezberdina dago, gutxien erabiltzen dutenak bizkaiera, arabera eta gipuzkera izanik eta gehien erabiltzen duena, berriz, erronkaria.

Bestetik, Krajewskak zehazten du “I + PE + D” eta “PE + I + D” egiturak ez direla gramatikalki guztiz parekoak, besteak beste, lehenengo erlatibakuntza motan soilik aditzarekin komunztadura eragiten duten osagaiak erlatibizatzen baitira (Krajewska 2017: 56). Erlatiba daitezkeen osagaiei buruz 4.2 atalean jardungo dugu.

2.2 Determinatzaile Sintagmaren osteko perpaus erlatiboa

Perpaus mota hauetan, perpaus erlatiboa kanpoko DSaren ondoren ageri da. Bi egitura nagusi daude: *zein erlatiboa* eta *bait-erlatiboa* (EGLU V: 218, 240)

2.2.1 Zein erlatiboa

Zein erlatiboetan erlatibizatutako DSaren egongunean, erlatibozko izenordaina dago, dagokion kasu edo postposizioarekin markatuta, eta aditz jokatuak *-(e)n* edo *bait-* menderagailua darama. PE hauetan, aposizioan dauden PE-etan bezala, bai kanpoko DSak bai izenordainak kasu bana dute, baina ez dute kasu bera erakutsi behar, ondoko adibideak erakusten duenez:

(19)

- (a) (...) etxalde arraildu bat da estazioa, zeinera gatazkarik gabe abailtzen den gaua, bere amets arriskutsuekin (Sarrionandia 1983:9)
- (b) [_{DS} estazioa], [_{PE} zeinera gatazkarik gabe abailtzen den gaua]

(19)-ko perpausean, *estazioa* DS aditzaren subjektua denez, absolutibo kasuan dago; aldiz, perpaus erlatiboko *zeinera* galderazko izenordainak adlatiboko *-ra* postposizioa du.

Erlatibakuntza mota honetan, ezinezkoa da PE Iren eta Daren artean agertzea, beti DSaren ondoren egon behar da:

(20) *estazio, zeinera gatazkarik gabe abailtzen dena

2.2.2 *Bait-* erlatiboa

Egitura hauetan, izenordain erlatiboa duten PE-etan bezala, perpaus erlatiboa DS nagusiaren ondoren agertzen da, baina erlatibizatutako DSaren egongunean hutsunea dago eta PEko aditz jokatuak *bait-* konplementatzailea dauka. Egitura hauek aposizioan dauden PE-en antza duten arren, badago ezberdintasunik hauen artean: *-(e)n/bait-* konplementatzaile hautaketaren bereizketaz gain, aposizioan dauden PE-etan bi DS ageri dira: DS ardatza eta erlatiboak daukana, *bait-* erlatiboetan, ordea, DS bakarra dago, kanpoko DSa, hain zuzen (ik. (21)).

(21) [_{DS} revolverra], [_{PE} giblean berehala gorde baitzuen]

(Etchepare 1936 *apud* Cid Abasolo 2012)

Erlatibakuntza mota honetan ere, ezin da PE Iren eta Daren artean agertu, beti DSaren ondoren egon behar da:

(22) *rebolber, gibelean berehara gorde baitzuen

2.2.3 Perpaus Erlatiboak aposizioan eta posizioan

Aposizioan dauden PE-etan agerian gauzatzen diren bi DS daude, hauek erreferentzia bera dute eta beti kasu berean daude.

(23) [_{DSi}Mintzagai usua], [_{DSi}erraz axalaratzen zena], euskararen (...) egoera
(...) izan ohi zen. (Oyharçabal 2003: (1940))

Aposizioan dauden PEk Erlatibo Askeen antz handia dute egituran, baina ezaugarri garrantzitsu batek ezberdintzen ditu: aposizioko erlatiboetan bi DS daude agerian. Erlatibo askeetan, ordea, ez dago ageriko ISrik, aditz jokatuari atxikita soilik azaltzen da D (ik. (23) adibidea).

Bestalde, PEak estraposizioan ere egon daitezke, hau da, modifikatzen duten DStik banandurik, bestelako osagaiak tartean agertzen direla:

(24) Zerbeit gertatu zitzaizen orduantxe [_{DSi}ederki lotsatu zituena].
(Oyharçabal 2003: (1949))

Gainera, Krajewskak (2017:90) egindako corpus azterketaren arabera, erlatibakuntza mota honetan ia soilik ergatiboa eta absolutiboa duten DSak erlatibizatzen dira; aztertutako corpusean inesiboa eta datiboa ere agertzen dira, baina konparatuta, euren agerpena oso txikia da: erlatibizatutako inesiboaren bi adibide daude eta datiboarena bakarra.

2.3 Erlatibo Korrelatiboak

Erlatibakuntza mota honetan, menpeko perpausean NZ hitz bat ageri da, batzuetan ere partikularekin, eta perpaus nagusian izenordain anaforiko bat edo erakusle bat dago; azken hauek NZ hitza dute aurrekari gisa. PE hauetan ere bi DS/PospS daude:

(25) [_{DS} Zer_i ere baitzuen eskas] eta [_{DS} hura]_i emaiten zakon.

(Oyharçabal 2003: (1976))

(26) [_{DS} Zer_i atera nahi duzun], [_{DS} harixe begiratu]_i.

(Lertxundi 1999 *apud* Cid Abasolo 2002)

Nolanahi ere, lan honetan ez dut erlatibakuntza modu hau aztertuko, irakurleak Rebuschi (2001, 2003, 2006) lanetara jo dezake egitura hauen azterketa sakonago baten bila. Gorago esan dudanez, ikerketa lan honetan DAPEak aztertuko ditut, bereziki, PE arruntak, baina horrekin hasi aurretik euskarazko erlatibozko perpausen aurkezpen orokor bat egin nahi izan dut.

3 Euskarazko perpaus erlatiboen sintaxia Gramatika Sortzailearen ikuspegitik

Atal honetan gramatika sortzailetik perpaus erlatiboen sintaxia aztertzeko eman diren azalpenak aurkeztuko ditut. Lehenengo, 3.1 atalean, Bianchiri (2002a) jarraituz, gramatika sortzailetik erlatibakuntza aztertzeko proposatu diren teorien gainbegirada kronologikoa emango dut, azalpen bakoitzak dituen arazoak zeintzuk izan diren aurkeztuz. Ondoren, 3.2. atalean euskarazko perpaus erlatibo arruntentzat proposatu diren azterbideak ikusiko ditugu. 3.2.1. atalean, deRijken (1973) ezabaketa analisia ekarriko dut, 3.2.2 puntuan operatzaile bidezko analisia aurkeztuko dut, atalaren bukaeran analisi hau gaurkotzeko proposamena egingo dudalarik. Ondoren, antisimetriatik planteatzen den igoera analisia aurkeztuko dut 3.2.3 atalean.

3.1 Perpaus Erlatiboen azterketa sintaktikoa (Bianchi, 2002a)

Perpaus Erlatiboen sintaxia azaltzeko dauden ikermoldeak bi ardatz nagusiren inguruan moldatu dira; batetik, PEko ardatzaren sorgunea zein den (*connectivity problem*) eta bestetik, PEaren funtzio sintaktikoa zein den (*modification problem*). Bi gai hauetako bakoitzak bi erantzun posible ditu. Sorguneari dagokionez, izan daiteke ardatza erlatibozkoaren kanpoan sortu izana edo izan daiteke PEaren barruan sortu eta hortik kanpora mugitu izana.

PEaren funtzio sintaktikoari dagokionez, bi aukera landu izan dira: PE adjuntua denekoa eta PE osagarria denekoa.

Valentina Bianchik (2002a), aipatutako bi arazoak ardatz hartuta, gramatika sortzailean erlatibo perpausen egitura aztertzeke proposatu diren teorioren berrikuspena egiten du, eta hauen bilakaera azaltzen du. Hemen, lehenik sorgunearen arazoa azalduko dut, eta geroago aztertuko dut kokapen sintaktikoaren arazoa. Izan ere, erlatibo perpausen inguruko eztabaida sorgunearen arazoari erantzun nahiak bideratu du:

Much of the debate on the syntax of relative clauses has revolved around this question; and the history of the problem has had an almost cyclic development (Bianchi 2002a:197)

Arazo honen azalpenak PE-en sintaxiari buruzko proposamen garrantzitsuenak biltzen ditu, eta honek aurrerago euskarazko perpaus erlatiboentzako planteatu diren azterketak aurkeztu eta testuinguru teorikoan kokatzeko balioko digu.

Sorgunearen arazoa argiago ikusteko, Bianchik (2002a) hainbat ebidentzia ekartzen ditu. Egileak azaltzen duen bezala, erlatibo perpausaren ardatza aldi berean bi lekutan dago eta errol bikoitza jokutzen du: batetik perpaus nagusiko osagaia da eta bestetik txertatutako perpausaren osagaia ere bada, eta batean zein bestean duen funtzio sintaktikoa ezberdina izan daiteke. Hau argi ikusten da kasu markaketa aberatsa duten hizkuntzetan, hauetan barruko DSari erreferentzia egiten dion izenordainak eta kanpoko DSak kasu diferentea izan dezaketelako. Hau, besteak beste, polonieraz ikus dezakegu:

(27)

(a) Widziałem tego pana który zbił
Ikusi-1SG Det-AKUS gizon-AKUS zein-NOM apurtu
ci szybę
zure edalontzia

(b) “Zure edalontzia apurtu duen gizona ikusi dut

(Borsley 1997-tik egokitua)

Polonierazko perpausean *tego pana* DSk akusatibo kasua dauka *widziaŃem* aditzak zilegiztatua; ordea, *kt6ry* DSk nominatibo kasua du perpaus erlatiboan. Honek *tego pana* ardatzaren izaera bikoitza islatzen du: batetik, perpaus nagusiko objektua da, eta bestetik, PEko subjektua da. Euskaraz ere ikus dezakegu kanpoko eta barruko DSek kasu ezberdina izan ahal dutela. (27b)-ko euskarazko baliokidean *gizona* DSak perpaus nagusian absolutiboa du, eta PEan ergatiboa izango luke. Ardatza aldi berean bi lekutan egotearen ondorioak ikus ditzakegu baita esamoldeetan eta anafora bihurkarien jokabidean ere.

Esamoldeei dagokienez, hauek bi hitz baino gehiagoko egiturak izan arren, unitate lexiko bakar bat bezala jokatzen dute, hau da, euren esanahia ez dator osagaien bateratze hutsetik. Adibidez, (28a)-ko *make headway* esamoldea *aurreratu* bezala itzul dezakegu. Erlatibo perpaus batean [aditz + osagai] egitura hau banatuko bagenu, bere esanahi idiomatikoa galtzea esperoko genuke. Baina ez da beti hala gertatzen; izan ere, batzuetan esanahia mantentzen da nahiz eta esamoldearen osagaiak banatuta egon (28b).

(28)

(a) To make headway: aurreratu

(b) The headway_i that John made t_i was impressive

(Vergnaud 1974/1985)

Esanahia mantendu ahal izateko, *headway* ardatza PEaren barruan interpretatu behar da, eta haren hitzetan, berreraiketa bidez gertatzen da hau. hain zuzen ere, hauxe da Vergnauden argudioetako bat erlatibizatutako I, igoeraren bidez eratorri dela proposatzeko. Aurrerago (4.3.3 atalean) esamoldeen argudio hau euskarazko datuekin aztertuko dugu.

Konektibitatearen arazoari eman zitzaion hasierako konponbidea operatzaile bidezko analisiaren bidez (*matching analysis*) izan zen (Chomsky 1965: 145); proposamen honek Perlmutter-en (1972) *izenordain ezabatuaren* (*shadow pronoun*) azterbidea du aitzindaritzat, zeinaren arabera PEaren izen

ardatzaren kopia pronominal bat dagoen, geroago forma fonologikoan ezabatzen dena.

Honakoak dira operatzaile bidezko analisiaren ezaugarri nagusiak:

- A. PEak IS bat dauka, hau perpaus nagusiko ISren erreferentziakidea da
- B. Izenordain erlatibo batek IS erlatiboa ordezkutzen du
- C. Izenordain erlatiboa perpaus erlatiboaren hasierara mugitzen da
- D. (aukeran) izenordain erlatiboa ezabatu egiten da

Ardatzaren errol bikoitza, sakoneko egituran perpaus bakoitzak erreferentzia bera duten IS bana daudela planteatuz azaltzen zen. deRijkek (1973) azterbide honetatik begiratu zituen euskarazko PEA-ak (3.2.1 atalean). Azterbide honen arabera, Sakoneko Egituran erreferentziakide diren bi IS daude, bat perpaus nagusian eta bestea PEan. Transformazio erregelen bidez, PEkoa ezabatu egiten da erreferentziakide izanik berreskura daitekeelako.

Geroago, Chomskyk (1977) erlatibakuntza NZ-mugimenduekin lotu zuen, esanez izenordain erlatiboa NZ-mugimendu bidez konplementatzailera mugitzen dela, eta ondoren ezabaketa araua aplikatzen dela, konplementatzaile burua, izenordain erlatiboa edo biak ezabatuz. Birritan Beteriko Konplementatzailearen iragazkiak (*Doubly Filled Comp filter*) (Chomsky eta Lasnik 1977:435), konplementatzaile burua eta izenordain erlatiboa, biak fonetikoki gauzatzea ekiditen du.

Bere proposamena zertxobait egokituz, geroxeago Chomskyk (1981) planteatu zuen izenordain erlatiborik ez duten PE-etan, konplementatzailera mugitzen den izenordain erlatibo baten ezabaketaren ordeztu, operatzaile isil baten bidez egiten dela erlatibakuntza. Operatzaile isil honek ez dauka berezko tasun zehaztailerik, eta izen ardatzak emango dizkio, horrela konektibitatearen azarora azaltzen da. Chomskyk (1977) adierazi zuenez, operatzailea beste egitura batzuetan ere badago, hala nola, helburuzko perpausetan, eta konparaketa perpausetan. Browningen lana (1987) oso aipatua da operatzaile isilaren bidez eratutako perpausen eta perpaus nagusiko elementuen

harremana zehazteko. Hala eta guztiz ere, azaltzeke geratzen zen zein mekanismoren bidez identifikatzen zuen erlatibizatutako ardatzak operatzaile isila.

Euskarazko PEn azterketari dagokionez, operatzaile bidezko analisia proposatu zuten Ortiz de Urbinak (1989), Oyharçabalek (1987, 1988 eta 1989) eta Artiagoitiak (1991 eta 1992), ondoren ikusiko dugunez.

Bestalde, Igoera Analisia (*raising analysis*) deitu den azterbidea dugu, azken hamarkadetan aski arrakasta jaso duena (Brame 1968, Carlson 1977, Vergnaud 1974/1985, Kayne 1994, Bianchi 1999 eta DeVries 2002, bestek beste). Honek, berreraiketa efektuek ematen dituzten datuetatik abiatuta, defendatzen du perpaus erlatiboko kanpoko I, mendeko perpausean sortu eta hortik PE kanpora mugitzen dela. Ideia honen arabera, konektibitate efektuak modu logikoan sortzen dira mugimendua gertatu aurreko egituran kanpoko DS PEaren osagaia delako. Adibidez, perpaus ez-gramatikalak sortzen dira barruko DSak genero gramatikal bat eta kanpokoak beste bat dutenean:

(29)

- (a) *Marie n'est pas la comédienne que son père était t.
- (b) *Marie n'est pas le comédien que son père était t.

(Vergnaud 1974: 65)

Bianchik (2002a eta 2002b) ohartarazten duenez, ez dago argi zergatik utzi zen alde batera igoera analisia, Kaynek (1994) berriro berreskuratu zuen arte.

and are perhaps related to a “mainstream effect”: Chomsky’s (1977) theory of wh-movement, which unified various unbounded dependencies and locality constraints, was a higher-order theoretical achievement (Bianchi 2002a: 199).

Aurrerago, Minimalismoaren hasieran, mugimenduak aztarnen ordezkopiak uzten zituela planteatu zen (Chomsky 1995 eta ondoko lanak). Hau konektibitatearen arazoaren konponketarako giltzarri bat izan zen, kopia guztiak ez direlako fonologikoki gauzatzen, baina FLn eskuragarri daudela onartzen

baita. Honek azal litzake berreraiketa efektuak. Kaynek (1994) kopia teoria bere gain hartuta, Igoera Analisi Egokitua (*Revised Raising Analysis*) proposatu zuen, antisimetriaren teoriaren baitan.

His proposal crucially relied on the hypothesis that the head originates directly in the relativization site and moves to spec-CP of the relative clause. Thus, the relativization chain is completely assimilated to a standard A' movement chain, leaving identical copies of the relative "head" in the relativization site, as well as in any intermediate chain link; this accounts for reconstruction effects (Bianchi 2002a: 201)

Euskarari dagokionez, aurrerago ikusiko dugun bezala (3.2.3.3 atalean) Vicentek (2002) antisimetriaren teoria jarraituta planteatu zuen euskarazko PEA-ak igoera bidez sortzen direla. Gondrak (2013a) ere igoera analisia baliatzen du euskarazko PEAetarako baina antisimetria onartu gabe. Nik egingo dudan proposamenean, Gondrak bezala, buru parametroa mantenduko dudan arren, *-(e)n* konplementatzailea jokatasun burua dela proposatuko dut, Vicentek (2002) eta Gondrak (2013a) ez bezala.

3.2 Perpaus erlatiboen azterketa euskaraz.

3.2.1 Ezabaketa analisia

deRijk (1972) izan zen eredu sortzailetik euskarazko perpaus erlatiboen sintaxiari lehenengoz erreparatu ziona. Hizkuntzalari holandarrak, 70 hamarkadaren hasierako bere tesian, euskarazko perpaus erlatiboak aztertu zituen garaiko Gramatika Sortzaileko azterbidea jarraituz (Chomsky 1973, besteak beste)⁸.


Perpaus erlatiboen eratorpena azaltzeko ezabaketa ala mugimendua gertatu den eztabaida irekia zegoen jada garai hartan, eta deRijkek (1972) euskarazko perpaus erlatiboen sintaxia aztertuta, ezabaketa bidezko eratorpena planteatu zuen.

⁸ deRijken lana 1972koa da eta Chomskyrena 1973an argitara eman zen. Baina ematen du deRijkek bazuela Chomskyren lanaren bertsio argitaratugabe bat esku artean, tesian eskuizkribu gisa aipatzen baitu.

(...) the precedent disappears from the relative clause by deletion, rather than by movement. As any noun whatsoever can be precedent in some relative clause, the deletion cannot be a deletion of a designated element. The principle of Recoverability of Deletion, therefore, requires that we have deletion under identity. (deRijk 1972:22)

Beraz, honela egituratzen da PEa (deRijk 1972:50):

(30)



deRijkek egindako datu bilketan erlatibizatzen den elementuari dagokionez (4.1. atala) gipuzkeraren baitan bi sistema/dialekto bereizi zituen. Lehenengo sisteman, Sistema Hertsia (*restricted system*), aditzarekin komuntadura duten ISak soilik erlatibiza daitezke. Ordea, Sistema Nagusian (*main system*), absolutiboa, akusatiboa eta datiboaz gain, inesiboa, adlatiboa, ablatiboa eta instrumentala ere erlatibiza daitezke. Bi sistemak azaltzeko, egileak itxuraldatze erregela bana eman zuen.

(31) [_{IS} [_{PE} ~~liburuak~~ irakurri dudan] liburuak] irabazi du Kritika Saria.

(32) Sistema Hertsiko erregela:




liburua irakurri dudan liburuak ⇒ ∅ irakurri dudan liburuak

Diagraman ikusten dugun bezala, perpaus nagusiko IS eta menpeko perpausiko IS berdinak dira (*liburua*) eta azken hau ezabatu egiten da.

Sistema Nagusian, osagai gehiago erlatibizatu ahal direnez, antzeko erregela bat emango du, baina honi egongune bat gehituko dio, aukerazko postposizio batena.

(33) Jaio nintzen herria maite dut. (de Rijk 1972: 33c adibidetik egokitua)

(34) Sistema Nagusiko erregela:



herri-an jaio nintzen herria ⇒ ∅ ∅ jaio nintzen herria

Erregela honek aukera ematen du erlatibizatutako ISak postposizio bat izan dezan, bat eta soilik bat. Beraz, *-an* inesibodun IS erlatibiza daiteke, baina *-rekin* sozietiboa bezalako postposizio konplexu bat ez (ikus 35a).

Hala eta guztiz ere, deRijkek adierazi bezala, badira orokorpen honek bildu ezin ditzakeen bi kasu berezi:

Special case (A):

When the Postposition on the postcedent (i.e. the head noun phrase) is the same as the underlying Postposition on the procedent (i.e. the deleted lower noun phrase), relativisation is always possible, even when that Postposition is otherwise non-relativizable. (deRijk 1972:139)

(35)

(a) *Mendian ibili naizen emakumea ederra da.

(b) Mendian ibili naizen emakumearekin ezkondu nai det.

(deRijk 1972: (76a-b))

Special case (B):

When the head noun of a relative clause is “semantically” related to a non-relativizable Postposition, relativization on this Postposition is possible. (deRijk 1973:143)

(36) Nere burua hil nahi nuen arrazoiaz ez naiz gogoratzen.

(deRijk 1972: (79b))

Egileak ez zuen bi kasu berezi hauek areago azaltzeko modurik eman.

Laburbilduz, deRijkek erlatibakuntza ezabaketa bidez egiten dela defendatu zuen. Analisi mota hau albo batera geratu zen Chomsky (1977)-tik aurrera, jarraian ikusiko dugun bezala.


3.2.2 Operatzaile bidezko azterketa.

Chomskyk (1977) ordura arte azalpen ezberdinak zituzten hainbat gertakari sintaktikorentzat, eratorpen bakarra eman zuen, NZ mugimendu bidez. Erlatibakuntza egitura horietako bat da. Galderetan NZ operatzailea (Esp, Konp)-ean dagoen bezala, erlatibozkoetan operatzaile isil bat dagoela proposatu zuen. Ortiz de Urbinak (1989), Oyharçabalek (1988, 1989), eta

Artiagoitiak (1991, 1992) proposamen horren arabera aztertu zituzten euskarazko perpaus erlatiboak.

Ortiz de Urbinak (1989), Chomskyri (1977) jarraituz, euskaraz ere galdera perpausek, foku perpausek eta perpaus erlatiboek, hirurek NZ Mugida dutela defendatu zuen. Egitura hauetan, elementu bat (Esp, Konp)-era mugitu da: galderetan, galdetzailea; foku perpausetan, foku sintagma eta PE-etan, operatzaile bat. PEAtan operatzaile honek ez du eduki fonologikorik, hau da, isila da. Anlisi honetan, erlatiboa IS nagusiko adjuntua da. Gainera, Ortiz de Urbinak (1989) euskarazko KonpS buru lehena dela ontzat eman zuen. Hona beraz, perpaus erlatiboen egitura:

(37) Ikusi duzun emakumea...



Egitura honek ematen duen hitz hurrenkera honakoa da: *-(e)n ikusi duzu emakumea*. Ortiz de Urbinak (1989) adierazi zuenez, *-(e)n* konplementatzailea Forma Fonologikoan operazio morfofonologiko baten bidez denbora buruari atxikitzen zaio klitiko gisan.

Oyharçabalek (1988) Ortiz de Urbinak (1989) egindako operatzaile isilaren proposamena areago landu zuen eta bere buruari galdetu zion zein den operatzaile isilaren sorgunea. Izan ere, bi sorgune izan ditzake: batetik,

operatzailea (Esp, Konp)-ean zuzenean sor daiteke eta hortik InfS⁹ barruko aldagai bat (e) uztar dezake. Bestetik, erlatibizatutako elementua A egongunean sortua izan daiteke, eta bertatik (Esp, Konp)-era mugitu daiteke ziklikoki, bidean azarnak (t) utziz (Oyharçabal 1988:94). Oyharçabalek bi aukerak aurkeztu zituen arren, bigarrena bakarrik jorratu zuen.

(38)

(a) [[[t ikusi duzula] diodala] erraten duten] gizona. (Oyharçabal 1988: (5))

(b) [_{KonpS1} Op_i [_{DenbS} ... [_{KonpS2} t_i” [_{InfS} ... [_{KonpS3} t_i’ [_{DenbS} ... t_i ikusi duzu] -la] diot]-(e)la] erraten dute]-(e)n] gizona_i.

(Oyharçabal 1988: (6)-tik egokitua)

(38b)-ko perpausean, operatzaile isila *ikusi*-ren argumentu bezala sortzen da. Lehenengo, (Esp, Konp3)-ra mugitzen da, gero (Esp, Konp2)-era eta, azkenik, (Esp, Konp1)-era, azarnak erakusten duten bezala.

Oyharçabalek operatzaile isila eta NZ sintagmak A’ egongune berean daudela onartu zuen, baina ohartarazi zuenez, bi operatzaileen arteko ezberdintasuna dago. Izan ere, erlatibozkoetan ez dago konplementatzaileko aditz mugimendurik (galderetan bai aurkitzen dena) (Oyharçabal 1988:95). Egileak ez zuen sakondu areago ezberdintasun honetan. Oyharçabalek planteatu zuenez, erlatibizatu den kategoria hutsa Forma Logikoan aldagai bat da eta *pro* tankerako izenordain erresuntibo bat izan daiteke. (Oyharçabal 1989:63).

Artiagoitiak (1991 eta 1992) ere operatzaile bidezko analisisa erabili zuen perpaus erlatiboak aztertzean; bere ustetan ere, operatzailea barruko DSaren egongunean sortzen da eta hortik (Esp, Konp)-ra mugitzen da. Artiagoitiak bere azterbidean erlatibagarritasunaren mugak operatzailearen eta honek uztartzen duen aldagaiaren arteko “distantzia” oinarrituko ditu, 4.1 atalean ikusiko dugun bezala. Horretarako, Uztarduraren Teoriaz baliatu zen eta Oyharçabalen ondorio ezberdinetara heldu zen. Izan ere, Artiagoitiak Azpikotasunaren

⁹ Gaur egun, DenbS

Baldintza erabiliz Oyharçabalek (1989) proposatutako *pro* DS erresuntiboaren kontra argudiatu zuen:

Resumptive pronouns are usually non-subjacent or anti-subjacent to their A'-binder (...) if the EC were a resumptive pro, (...) we would expect a lexical pronoun to be possible since this is not a context where distributional differences obtain between lexical/null pronouns (cf. Luján 1985). This is simply not the case (Artiagoitia 1992:14):

(39) Ainhoak Asierrek *bera/t_i erosi duen liburua_i irakurri du.

(Artiagoitia 1992: (8))

3.2.2.1 Operatzaile bidezko analisi eguneratua

Azkenik, euskararentzat eman diren operatzaile bidezko analisisiei gaurkotasun pixka bat eman nahi badiogu, teoriaren baitan izan diren aldaketa batzuk kontuan hartu behar dira. Batetik, IS vs. DSren arteko auzia, eta bestetik KonpSren zatiketarena.

IS nagusiari dagokionez, operatzaile bidezko analisisia darabilten hiru hizkuntzalarien analisisietan PEa ISren adjuntu da, baina Abneyren (1987) lanaz geroztik, lehen *izen-multzoa* (Goenaga 1978) deitzen zena, DS bat dela onartzen da gaur egun, honen ardatza D baita. Hortaz, Determinatzaile Sintagmaren Hipotesiak aukera gehiago irekitzen ditu PEaren adjuntzio gunerako, ISren adjuntua ala DSren adjuntua izan baitaiteke. Artiagoitiak (2012) hainbat froga aurkezten ditu osagai bat DS edo IS den bereizteko. Horien artean, aipatzen du euskaraz ISak soilik predikatu izan daitezkeela. PEa ISren adjuntu balitz, esperoko gence (40)-ko perpausean PE bat egotea gramatikala izatea. Baina ez da hala, honek PEa, ISrena baino, DS baten osagaia dela frogatzen du:

(40) Maite (*herria altxatuko duen) alkate izendatu dute.

Beraz, PEak DSren osagai badira, operatzaile bidezko analisi gaurkotuan, DSren adjuntuak lirateke.

Bestalde, konplementatzaile sintagmari dagokionez, ikusi ditugun operatzaile bidezko lanak 1989-1992 urteen bitartekoak dira eta KonpS darabilte. Baina Rizziren (1997) lanetik aurrera, ezinbestekoa gertatu da KonpS indar-jokatutasun sisteman artikulatzea, ondoren ikusiko dugun bezala. Honen ondorioz, PEtan ere, KonpS izan ordez, indar-jokatutasun sistema dagoela ontzat eman behar dugu.

Rizzik (1997) frogatu zuen KonpS bakarrarekin ezin zirela hainbat datu azaldu. Adibidez, italieraz topikoak eta *che* eta *di* konplementatzaileen arteko banaketa aztertuta, ondorioztatu zuen bi konplementatzaileok egongune ezberdinak betetzen dituztela. Izan ere, *che* topikoaren aurretik agertu behar da eta *di*, ordea, topikoaren ondoren:

(41)

(a) Maria crede che potrà leggere il tuo libro

(b) Maria crede di poter leggere il tuo libro

(42)

(a) Maria crede, il tuo libro, che lo potrà leggere

(b) Maria crede che, il tuo libro, lo potrà leggere

(43)

(a) Maria crede, il tuo libro, di poterlo leggere

(b) * Maria crede di, il tuo libro, poterlo leggere

(Rizzi 2001: (1-3))

Beraz, konplementatzaile egongune ezberdinak daudela kontuan hartuta eta topiko eta fokudun osagaien arteko elkarreraginak aztertuta, KonpS hainbat azpikategoriatan zatitu zuen.

Rizzik azaldu zuenez (Rizzi 1997: 283), konplementatzaile sistemak gutxienez bi motatako zehaztapenak adierazten ditu: batetik, DenbSk adierazten duen eduki proposizionala, eta bestetik goragoko egitura batekiko (adibidez, perpaus nagusi batekiko, edo berbaldiarekiko) lotura. Beraz, konplementatzaile sistema goiko egitura bat beheko egitura batekin lotzen duen

interfaze bezala ulertu daiteke. Ordutik, adiera horiek guztiak inplementatzeko Rizzik planteatu zuen KonpS zatituaren ideia, hots, indar-jokatutasun sistema, ezinbesteko bilakatu da. Mendeko perpausen kasuan, indar sintagma goiko (aditz, izen edo bestelako) buru batek aukeratzen du eta beronen tasunak zehazten ditu. Era berean, JokaSk mendeko DenbSko tasun morfosintaktikoak zehazten ditu. Sistema honek konplementatzaile sistema zaharrak goiko perpaus egiturarekin eta beheko perpaus egiturarekin ezartzen zituen harremanak xeheago azaltzeko aukera ematen du: indar buruaren tasunak konplementatzaile sistematik kanpoko aditz nagusiak aukeratu ditzake eta era berean, jokatutasun buruak denboraren tasunak aukera ditzake, esaterako, jokatua edo jokatugabea den menpeko perpausa.

Gainera, konplementatzaile sisteman foku sintagma (bakarra) eta/edo Topiko sintagma (bat baino gehiago) ere egon daitezke. Hau da Rizzik proposatutako egitura “ezker periferia” berriarentzat:

(44) [Force P [Force^o][Topic P [Topic^o][Focus P [Focus^o][Topic P [Topic^o][Finiteness P [Finiteness^o ...][Inflection¹⁰ P]]]]]]]

Ortiz de Urbinak (1999, 2008) proposamen hau euskarara egokitu zuen, euskararen hitzordenaren berezitasunak eta ezker periferiako hainbat elementuren kokapena aztertuz, eta honako egitura eman zuen euskararentzat:

(45) [Top S [Top^o] [Indar S [Indar^o] [Top S [Top^o] [Foku S [Foku^o] [Joka S [InfS] [Joka^o]]]]]]]


Ortiz de Urbinak (1999, 2008) eman zuen egitura honetan TopS, IndarS eta FokuS buru-lehenak dira; JokaS, aldiz, buru-azkena da. Euskara orokorrean buru-azkena dela argudiatu izan ohi da; baina oraindik ere euskara buru-azkena ala lehena ote den eztabaida irekia dago. Badira Kayneren (1994) antisimetriari jarraituz egitura guztietan buru-lehena dela defendatzen dutenak (bestiak beste Ormazabal, Uribe-Etxebarria eta Uriagereka 1994, 2008, Haddican 2004, 2008) eta badira euskararentzat sistema misto bat proposatzen

¹⁰ Garaiko inflexioa (inflection) gaur eguneko denbora da, aipuetan egilek zerabiltena terminoa mantendu dut.

dutenak (besteak beste Laka 1990, Ortiz de Urbina 1989, 1999, Elordieta 2001, 2008). Nik azkenengo hizkuntzalari hauei jarraituz, KonpS erdibitu honek sistema mistoa duela ontzat hartuko dut; hau da, IndarS, TopS eta FokuS buru-lehenak direla eta JokaS buru-azkena dela.

5. atalean PEAetarako igoera analisia proposatuko dudan arren, operatzaile bidezko analisia eguneratua nola izango litzatekeen aurkeztu nahi dudanez, PE-etako IndarS (46)-an bezala zabalduko litzateke. Honako egituran, perpaus erlatiboa (IndarS) DS ardatzaren adjuntua da. KonpS hedatuta dago eta Rizik (1997) eta Ortiz de Urbina (1999) proposatu bezala, operatzaile isila (Esp, Indar)-an dago. Honek, DenbSan dagoen (t_i) aldagaia lotzen du. Azkenik, Ortiz de Urbina (1999, 2008) eta Artiagoitia eta Elordietak (2016) proposatu bezala, $-(e)n$ jokatasun burua da.

(46)



Ohar bedi proposamen honetan ez dela konektibitatearen arazoa konpontzen. Hots, ez du *azaltzen* zergatik izan behar duten operatzaile isilak eta izen-ardatzak erreferentzia bera. Jarraian, igoera analisiaren bidez konektibitatearen arazoa konpontzen dela ikusiko dugu, izan ere, igoera analisisan kanpoko D_Sa eta barruko D_Sa elementu beraren kopiak dira.

3.2.3 Igoera analisia

Vergnaudek (1974) adierazi bezala, operatzaile bidezko analisiak hainbat arazo ditu. Haien artean, 4.3.1 atalean ikusiko ditugun anaforen arazoaz ohartarazi zuen, eta esaera idiomatikoak banatu ahal izateaz. Horregatik, Vergnaudek PE-en eratorpenean IS ardatza PEan sortu eta kanpoko DSra igotzen dela planteatu zuen.

Kaynek (1994) proposamen hau garatu zuen eta argudio berriak eman zituen PEak igoera bidez eratzen direla baieztatzeko. Euskarazko PEaetarako planteatu diren igoera analisi biak (Vicente 2002 eta Gondra 2013a), Kaynek (1994) proposatu zuen azterbidetik eratortzen dira, baina Gondrak (2013a) buru parametroa onartu zuen¹¹, beraz, eredu antisimetrikotik aldendu zen. Era berean, Vicentek azterbide antisimetrikoa onartu arren, egokitzapenak egin zizkion Kayneren proposamenari. Horregatik, lehenengo Kayneren ikerbidea azalduko dut, ondoren euskararako planteatu dena aurkezteko.

3.2.3.1 Perpaus erlatiboen azterketa Kayneren antisimetriaren hipotesiaren ikuspegitik

Kaynek, *The Antisymmetry of Syntax* (1994) lanean, perpaus egituraren alorrean proposamen eraldatzailea egin zuen. Egokitasun Linealaren Axiomaren bidez, hitz hurrenkera eta hierarkia zuzenean lotu zituen:

(47) *Egokitasun Linealaren Axioma (ELA):*

Hurrenkera lineala harreman antisimetrikoen ondorio zuzena da. (Arteatx et al. 2008, Kayne 1994-tik moldatua)

Axioma honek baieztatzen du harreman zuzena dagoela egitura hierarkikoaren eta hurrenkeraren artean, eta beraz, x lehenago agertzen bada y baino, egituran x y baino gorago dagoelako da.

¹¹ Berak esplizituki esaten ez duen arren, ematen dituen egituretatik ondorioztatu dut euskarazko sintaxirako eredu misto bat onartzen duela.

Gainera, adarreztatze hirutarra ezinezkoa dela iragartzen du. Azkenik, (...) batera aztertzen ditu espezifikatzaileak eta adjuntuak, ordura arte ohikoa zen bereizketa ezabatuaz eta praktikan (adjunzio) mugida orok ezkerretara behar duela onartuaz. Era berean, adjunzio/espezifikatzaile bakarra aurreikusten du sintagma bakoitzeko. (Arteatx et al. 2008:12)

ELAk dakarren ondorio nagusietako bat da espezifikatzaile-buru-osagarria egitura unibertsala izan behar dela. Beraz, antisimetriak buru parametroa ukatzen du, eta ondorioz, azaleko osagarri-buru ordenak eratorriak direla pentsatu behar dugu.

Perpaus erlatiboen eraketari buruz, Kaynek (1994: 8.kapitulua) operatzaile bidezko azterketatik aldentzen den proposamen egin zuen. Brame (1968), Carlson (1977) eta Vergnauden (1974/1985) proposamenak berreskuratu eta Igoera Analisi Egokitua aurkeztu zuen, betiere antisimetriaren baitan.

Gorago esan bezala, perpaus erlatiboaren kokapen sintaktikoari buruz bi aukera planteatu izan dira: PEa izenaren edo Daren osagarri dela edo PEa ISren adjuntu dela. Kaynek argudiatu zuenez, ezin dira izenaren osagarri izan. Ezta ere izenaren (zein Dren) edo beraien islapen bati eskuinean atxikitako zerbait izan. Kayneren *ELA*rekin bat datorren analisi bakarra, perpaus erlatiboa kanpoko Dren osagarri denekoa da.

Haren proposamenean erlatibizatutako izena mendeko perpaus sortzen da hasieratik eta mugimendu bidez perpaus nagusiko DSra igotzen da. Horretarako hainbat argudio aurkeztu zituen. Gainera, erlatibozko perpausa izenaren aurretik edo atzetik agertzeak ondorioak izango dituela azaldu zuen. Lan honetan, lehenengo, izen osteko PE-etarako planteatu zuen egitura ikusiko dugu, eta ondoren, izen aurreko PE-ena. Hortik abiatuta, euskarazko PEA-ak azaltzeko egin diren goera analisiak aztertuko ditugu.

Izen osteko PE-ei dagokionez, Kayneren proposamenean, honakoa da, pausuz pausu, ingelesezko izenordain erlatiborik gabeko perpaus erlatibo murrizgarri baten eraketa:

(48)

(a) The picture that Bill saw

(b) $[_{DS} [_D \text{the}] [_{KonpS} [_{Konp^\circ} \text{that}] [_{DenbS} \text{Bill saw picture}]]]$

(48b)-ko egituran PEa kanpoko DSaren osagarria da. Abiapuntu honetatik, barruko IS (Esp, Konp)-ra mugitzen da:

(49) $[_{DS} [_D \text{the}] [_{KonpS} [_{IS} \text{picture}_i] [_{Konp'} [_{Konp^\circ} \text{that}] [_{DenbS} \text{Bill saw } t_i]]]]]$

Hemen, DenbSn dagoen aztarna, (Esp, Konp)-an dagoen ISak uztartzen du.

Bestalde, izenordain erlatibodun perpausetan, izenordain erlatiboak determinatzaile bezala sortzen dira (50b), eta dagokien IStik banatzen dira azken hau are gorago mugitzen delako:

(50)

(a) The hammer with which he broke it.

(b) $[_{DS} [_D \text{the}] [_{KonpS} [_{Konp^\circ} \emptyset]] [_{DenbS} \text{he broke it with which hammer}]]]$

With which hammer preposizio sintagma NZ mugimendu bidez (Esp, Konp)-ra mugitzen da (51). Ondoren, *hammer* ISa, (Esp, Prep)-ra igotzen da (52)¹²:

(51) $[_{DS} [_D \text{the}] [_{KonpS} [_{PrepS} \text{with which hammer}] [_{Konp'} [_{Konp^\circ} \emptyset]] [_{DenbS} \text{he broke it } t_i]]]]]$

(52) $[_{DS} [_D \text{the}] [_{KonpS} [_{PrepS} [_{IS} \text{hammer}_x] [_{Prep^\circ} \text{with which } e_x]]] [_{Konp'} [_{Konp^\circ} \emptyset]] [_{DenbS} \text{he broke it } t_i]]]]]$

Egitura hau, orokorrean, izen osteko PE-entzat eman zuen Kaynek (1994). Izen aurreko PE-ei dagokionez, izena ezin da KonpSren eskuinera mugitu, espezifikatzaileak eta adjuntuak (gauza bera izanik) beti ezkerrean baitaude. Beraz, izen aurrekoentzat, gainerako mugimendu bat proposatu behar izan zuen, DenbSk (Esp, D)-ra egiten duena. Hona hemen nola izango litzatekeen eratorpena:

¹² Kaynek, mugimendu hau, ziurrenik, *which*-en espezifikatzailetik egin dela adierazten du.

(53) Jonak ikusi duen marrazki hau...

Abiapuntua, lehen ikusi dugun pausu bera da, hau da, IS (Esp, Konp)-ra mugitzen denekoa:

(54) $[_{DS} [_{D\cdots}] [_{KonpS} [_{IS\cdots}] [_{Konp'} [_{Konp^{\emptyset}}] [_{DenbS} \cdots t_i \cdots]]]]]$

Ondoren, KonpSren osagarri den DenbS, kanpoko (Esp, D)-ra mugituko da:

(55) $[_{DS} [_{DenbS} \cdots t_i \cdots] [_{D\cdots}] [_{KonpS} [_{IS\cdots}] [_{Konp'} [_{Konp^{\emptyset}}] t_{DenbS}]]]$

Beraz, izen aurreko PE-etan DenbS (Esp, D)-era mugitzen da. Kaynek argudiatu zuen mugimendu honek azal zezakeela izen aurreko PE-etan hizkuntzaz hizkuntza ikusten diren zenbait murriztapen: osagai gutxiago erlatibizatu ahal izatea eta aditz jokoa mugatua izatea.

3.2.3.2 Ñabardurak antisimetriatik

Erlatibakuntzarako Kaynek eman zuen azterbideak eztabaida ireki zuen igoera analisiari buruz. Bereziki, Borsleyk (1997) argudiatu zuen hainbat puntutan ez zela nahikoa eta datuak azaltzeko bestelako mekanismoak behar zirela (Borsley 1997:630). Gainerako mekanismo hauek *ad hoc* gehitu behar direla adierazi zuen, eta Kayneren proposamenari ezin zitzaiola eutsi. Proposamen hau antisimetriaren ikermoldetik eman denez, adierazi zuen ikermoldea bera zela arazoa.

Bianchik (1999 eta 2000), Borsleyk (1997) adierazitako eragozpenak aintzat harturik, planteatu zuen Kayneren analisiari hainbat zehaztapen eginez gero Borsleyk plazaratutako arazoei erantzuna eman ahal zitzaiela. Arazo garrantzitsu horietako bat ISren igoera da. Borsleyk argudiatu zuen DS kategoria ez duen osagai nominal bat ezin dela KonpSra igo. Izan ere, osagai hau argumentu egongunean sortzen da eta enpirikoki erakusten du kategoria huts honek DSaren aztarnak bezala jokatzeko duela hainbat egituratan (hala nola uztarduran, hutsune bizkarroien (*parasitic gaps*) zilegiztapenean eta irla ahulen ondorioak erakustean). Bianchik (2000) kritika hauek aintzat hartuta,

proposatu zuen (56)-koa bezalako izenordain erlatiborik gabeko perpaus batean, izen erlatibizatua, erlatibozko D^o batek menderatzen duela, fonologikoki hutsa dena:


(56) [_{DS} the [_{KonpS} [_{DS Eri} D^o picture]_i [_{KonpS} that Bill liked t_i]]]

(Bianchi 2000: (3)-tik egokitua)

Egitura honetan DS_{Eri} konplementatzailearen espezifikatzaile/adjuntu bezala ageri da, izan ere, antisimetrian espezifikatzaileak eta adjuntuak berdinak dira. Beraz, KonpS osoak ez du DS_{Eri} hau menderatzen, beronen atal batek baizik. Ildo honetatik, Bianchik (2000) argudiatu zuen DS_{Eri} ez dagoela bilduta KonpSren hesian, are gehiago, kanpoko DSak D^o_{Eri} o-komandatzen duenez, ez dagoela Hurkotasun Erlatibatua urratuko lukeen bururik.

Thus, the external D^o and the empty relative D^o turn out to be in a strictly local configuration, and they can establish a licensing relation. Specifically, let us assume that the empty relative D^o is licensed through abstract incorporation to the external D^o. (Bianchi 2000: 124)

(57)



(Bianchi 2000: (4)-tik egokitua)

I propose that this mechanism of “deletion by incorporation” takes place in (4) (hemen 57). In fact, the external D^0 and the relative D^0 both share the Agr-features of the NP “head” picture; furthermore, let us assume that the relative D^0 is underspecified with respect to the feature of definiteness, so that it is consistent with either an indefinite or a definite external D^0 .

It follows that the two determiners have fully consistent feature structures. After incorporation of the relative D^0 unification applies; the resulting feature structure is spelled out as an ordinary determiner, and the relative D^0 seems to be deleted. (Bianchi 2000: 124)

De Vriesek (2002) ere Borsleyren kritika aintzat hartuta, antisimetrian oinarritutako beste proposamen bat egin zuen PE-etarako. De Vriesek Kayneren izen aurreko PEen azterketak hainbat arazo zituela adierazi zuen (De Vries 2002:133). Horietako bat da egon daitezkeen hiru hitz hurrenkera posibleetatik (ik. (58)) bakarria deskribatzen duela, (58b)-koa:

(58)

- (a) D PE I: Tigréra
- (b) PE D I: Koreera
- (c) PE I D: Euskara

De Vriesek hiru hurrenkerak deribatu zituen. Ordena hauek hainbat hizkuntzatan ikus ditzakegu eta De Vriesek hirurak azaldu zituen. Hemen, hirugarren hurrenkera (58c) nola eratoritzen duen bakarrik aurkeztuko dut, berau baita euskararen hitz hurrenkerarekin bat egiten duena.


Gainera, De Vriesek adierazi zuen Kayneren proposamenean DenbSren hondarraren mugimenduak (*renmant movement*) arrazoitu gabea zirudiela. De Vriesek planteatutako eratorpenean mugimendu hau arrazoitua dago, berehala ikusiko dugun bezala. Hau da PE I D hitzordena duten izen aurreko perpaus erlatiboentzako proposatu zuen egitura¹³:

$$(59) \quad [_{DS} [_{K_{onpS}} [_{D_{Serl}} [_{I_S} t_i] (D_{erl}) t_{iS}] (K_{onp}) [_{DenbS} \dots t_{D_{Serl}} \dots] [_{D} I+D] t_{K_{onpS}}]$$

(De Vries 2002:43c')

¹³ Egitura hauetan D eta Konp buruak parentesi artean daude, horrek esan nahi du buru abstraktuak direla, hau da, ez daukatela gauzatze fonologikorik.

(60)



Hasteko, erlatibizatuko den ISa, (Esp, D_{eri})-ra mugitzen da, eta hortik, I determinatzaile nagusira inkorporatzen da. De Vriesek inkorporazio hau hainbat hizkuntzatan gertatzen dela azaldu zuen, eta horien artean, euskara aipatu zuen (De Vries 2002:120).

Inkorporazio honen ondoren, KonpSan geratzen den hondarra (Esp, D)-ra mugitzen da. Mugimendu hau perpaus garraioa dela proposatu zuen De Vriesek, Iren tasun formalak Drekin erkatu behar direlako. Horretarako, haren esanetan, tasunak KonpS mailaraino iragazten (*percolate*) badira, KonpS (Esp, D)-ra mugitzen da.

Bistakoa denez, eratorpen honetan ematen du helburu berarekin bi operazio/mugimendu egiten direla: batetik, I Dra inkorporatzen da, eta bestetik, konplementatzaile sintagma DSra igotzen da. Mugimendu bikoitz honi azalpena emateko, De Vriesek planteatu zuen elementu batek tasun multzoa (phi-tasunak eta kasua) zilegiztatu behar badu, gerta daitekeela mugimendu bat baino gehiago erakartzea, zilegiztatu behar duen tasunaren arabera. Horregatik, tasun multzo batek gora egin dezake eta bestea behean geratu

daiteke, izenean. Honek bi mugimendu eragingo ditu: I Dra igotzen denekoa (phi-tasunak erkatzeko), eta KonpSren hondarra (Esp, D)-ra, kasua Dekin erkatzeko, espezifikatzaile-buru konfigurazioan. Horrela, Kayneren proposamenean ez bezala, mugimenduak arrazoituta leudekeela adierazi zuen De Vrieseke.

Gainera, De Vriesen arabera, (59)-ko egituraren bidez ere azal liteke zergatik ez dagoen izenordain erlatiborik izen aurreko PE-etan. Kayneren definizioaren arabera, espezifikatzaile baten espezifikatzaileak burua o-komandatzen du, beraz, (59)ko DS erlatiboak [I+D] buru konplexua o-komandatzen du. DS erlatiboaren burua agerikoa balitz, izenordain erlatibo bat izango litzateke eta horrek Uztardura Teoriako C hatsarrea urratuko luke. Honek azaltzen du, de Vriesen aburuz, izen aurreko erlatibo perpausek izenordain erlatiborik ez izatea. (De Vries 2002:134)

3.2.3.3 Euskarazko perpaus erlatibo arruntak antisimetriatik

Euskarazko PEAei dagokienez, Kayneren proposamena zuzenean aplikatuta (ik. (61)) hitzordena arazoak sortzen dira. Batetik, Kaynek adierazi zuen izen aurreko PE-ek ez dutela ageriko konplementatzailearik. Baina euskaraz denborari atxikita dagoen *-(e)n* konplementatzailetzat hartu izan da. Arazo honi 4.4.2 atalean ekingo diot.

(61) $[_{DS} [_{DenbS} \text{Jonek } t_i \text{ ikusi du}] [_D \text{hau}] [_{KonpS} [_{IS} \text{marrazki}_i] [_{Konp'} [_{Konp^\circ} \text{-(e)n}] t_{DenbS}]]]$

(62) *Jonek ikusi du hau marrazki *-(e)n*

Beste arazo bat da *marrazki IS*, *hau* Daren ondoren dagoela (61)-eko egituran. Kaynek berak euskaraz sortzen den arazo hau aipatu zuen:

In some languages (e.g., Basque, de Rijk 1972) N can raise and left-adjoin to D^o (Kayne 1994: 164)

De Vriesen (2002) proposamenean ere, I^o D^o nagusira mugituko da, baina I^o hau DS erlatiboan sortzen da. Hona beraz, proposamena¹⁴ euskarari

¹⁴ Bere proposamenean ere, konplementatzaile burua hutsa da, Kaynerenean (1994) bezala.

egokituta:

(63) $[_{DS} [_{K_{onpS}} [_{D_{Serl}} [_{lis} t_I] (D_{erl}) t_{IS}] (K_{onp^\circ}-(e)n) \text{Jonek } t_{D_{Serl}} \text{ ikusi duen}] [_{D} \text{marrazki}_I+a]$
 $t_{K_{onpS}}$

(64) Jonek -en ikusi du marrazkia

Vicentek (2002) euskarazko PEA-ak antisimetriaren ikuspegitik aztertu zituen eta ohartu zen Kaynek (1994) izen aurreko PE-etarako egiten zuen proposamenak euskaraz zuzenean aplikatzeak hitz ordena arazoak sortzen dituela. Vicentek (2002), bereziki, *-(e)n* atzizkiaren kokapenari erreparatuko dio. Euskaraz *-(e)n* beti denbora buruari atxikita dagoenez, Vicentek (2002) ondorioztatu zuen DenbS soilik igo ordez, bere baitan konplementatzailea bildu dezakeen kategoria bat igotzen dela euskarazko PEAetan (Vicente 2002:21).

Rizziren (1997) konplementatzaile zatituaren sistema hartu eta honi Ortiz de Urbinak (1999) euskararako egitndako zehaztapenak kontuan hartuta, hitz ordenaren arazoari konponbidea ematen saiatzen zen. Vicentek (2002) *-(e)n* FokuSko burua dela esan zuen, eta baieztapen hau Ortiz de Urbina (1999b:315)-tik jaso zuela¹⁵. Vicentek *-(e)n* foku burua dela argudiatzeko *egin* aditz indargarriaren kasua aipatu zuen. Izan ere, de Rijkek (1972:97) esan bezala, PEA jokatu bateko aditza ezin da *egin* indartzailearen bidez fokalizatu:

(65) Etorri (*egin) diren ikasleek soilik hartuko dute parte eztabaidan.

Vicenteren arabera, *egin* Foku buruan dago. PEtan Foku burua *-(e)n* balitz, bi buruak batera ezin agertzeak azalduko luke zergatik ezin den *egin* indartzailea agertu PEAetan.

Ontzat hartuta *-(e)n* foku burua dela, Vicentek DenbSren igoera justifikatzeko planteatu zuen *-(e)n* morfemak tasun bat duela eta hau erkatzeko,

¹⁵ Adierazi behar dut iturrira jo dudala eta Ortiz de Urbina (1999b:315)-ean ez dela halakorik esaten. Are gehiago, aurrerago Ortiz de Urbinak (1993) *-(e)n* jokatusun burua dela iradokitzen du:

A proliferated CP analysis along the lines of Rizzi (1997) enables us to SEPARATE the clitic complementizer, which may be a finiteness marker properly belonging to a right-headed CP, from the Focus, Topic (and perhaps Force) left-headed phrases hosting operator features...". (Ortiz de Urbina 1999b:331)

DenbSn fokua jaso dezakeen guztia igotzen dela (Esp, Foku)-ra.


Beraz, hau da Vicentek planteatu zuen eratorpena. (66a)ko egitura litzateke abiapuntua, baina hemen, PEaren eratorpenari dagokion zatia soilik azalduko dut. Lehenik eta behin, barruko IS (Esp, Indar)-ra igotzen da (66b), indar buruko tasun interpretagaitz bat eratzeko (Bianchi 1999). Ondoren, DenbSko *ikusi dut* aditz jokatua foku buruari *-(e)n* adjuntatzen zaio (66c) eta DenbSko gainontzeko materiala (Esp, Foku)-ra igotzen da (66d):

(66)

- (a) $[_{DS} [_D -a] [_{Indar S} [_{Indar} \emptyset] [_{FokuS} [_{DenbS} dut] [_{AS} [_{PospS} -an] [_{DS} a] [_{IS} kale]]]] ikusi [_{DS} [_{IS} ume]]]]]$
- (b) $[_{DS} [_D -a] [_{Indar S} [_{IS} ume] [_{Indar'} [_{Indar} \emptyset] [_{FokuS} [_{DenbS} t_{ume} kalean ikusi dut]]]]]]]$
- (c) $[_{DS} [_D -a] [_{Indar S} [_{IS} ume] [_{Indar'} [_{Indar} \emptyset] [_{FokuS} [_{Foku} ikusi dut+(e)n] [_{DenbS} t_{ume} kalean t_{ikusi dut}]]]]]]]$
- (d) $[_{DS} [_D -a] [_{Indar S} [_{IS} ume] [_{Indar'} [_{Indar} \emptyset] [_{FokuS} [_{DenbS} t_{ume} kalean t_{ikusi dut}] [_{FokuS} [_{Foku} ikusi dut+(e)n] t_{DenbS}]]]]]]]$

Azkenik, FokuS osoa (Esp, D)-ra mugitzen da. (Vicente 2002: 36).


(67)



Vicenteren proposamenean ez da azaltzen nola lotzen den kanpoko D (Esp, Indar)-ko ISrekin, azken hau aurretik agertzeko, horregatik, bere proposamena antisimetrian kokatzen denez, Kayneren hipotesi hutsa aplikatuz egin ditut irudikapenak.

Gondrari (2013a) ez zaio arazo hau sortuko, izan ere, berak buru parametroa mantendu zuen, eta beraz, DS buru-azkena da. Gondrak (2013a) bizkaierazko PEA-ak aztertuta, Vicenteren (2002) proposamenaren gainean eraiki zuen bere eratorpena, baina hainbat zehaztapen egiten zizkion. Hona Gondrak proposatu zuen egitura:

(68)



(Gondra 2013a: (217a) egituratik egokitua)

Egitura honetan, DS buru-azkena da eta, Vicente (2002)ri jarraituz, *-(e)n* foku burua da. Buru honek aditza eta laguntzailea erakartzen ditu buruz buruko mugimenduz. Erlatibizatzen den osagaia (XS etiketa du, DS edo PospS izan daitekeelako) lehenengo (Esp, Joka)-ra mugitzen da DenbSren gaineko besarkadura hartzeko, ondoren, XS (Esp, Indar)-ra igotzen da indarreko tasun

interpretagaitza erkatzeko (Bianchi 1999, Vicente 2002). DenbS (Esp, Foku)-ra igotzen da, FokuSko tasun interpretagaitz bat asetzeko (Vicente 2002). Azkenik, foku sintagma (Esp, D)-ra igotzen da, DSaren Islapen Hatsarre Zabaldua (EPP) betetzeko (Gondra 2013a: 207-210).

Bestalde, Bianchiri (1999) jarraituz, onartuko du kanpoko DSak eduki fonologikoa duela eta barruko DSak ez. Baina Bianchik ez bezala, Gondrak DSri buru-azken egitura eman zion, antisimetriaren kontra, Gondrak buru parametroa badagoela asumitu zuelako.

Bestalde, Gondra (2013a:143-146) azaltzen saiatu zen zergatik duen erlatibizatutako DSak kanpoko perpauseko kasua, eta ez barruko DSarena. Horretarako, planteatu zuen egiturazko kasua (beretzat, ergatiboa eta absolutiboa) erkatzen denean, hau ahoskatze gunera bidali arte, kasua *behin-behinekoa* dela (*Precariousness condition*). Horregatik, o-komandatzen duen zunda batek bila dezake. Kanpoko Dak, ez luke izango phi-tasunik, soilik tasun interpretagaitza eta D tasuna. Tasun interpretagaitza asetzeko, kanpoko Dak barrukoa ((Esp, Indar)-an dagoena) bilatzen du eta barruko Daren tasun multzo osoa kopiatzen du. Puntu honetan, kanpoko Dak barruko DSren kasua izango luke (ergatiboa edo absolutiboa), baina D hau agertzen den egongunearen arabera, *behin-behineko* kasua alda dezake, ahoskatze gunera bidalia izan arte. Ahoskatze gunean Dak jaso duen azkenengo kasua gauzatuko da.

Gondraren eta Vicenteren proposamenek *-(e)n* FokuSren burua dela defendatu zuten, eta PE honen espezifikatzailea dela. Hala eta guztiz ere, hurrenkera neutro bat duen PEak ez du foku interpretaziorik jasotzen, eta beraz, ez dago arrazoirik baieztapen hau mantentzeko. Gainera, *-(e)n* foku burua balitz, PE-etan NZ hitzik edota fokudun elementurik ez aurkitzea

esperoko gunque, PEak beteko lukeelako (Esp,Fok) gunea; baina ez da hala, bi mota hauetako osagaiak egon daitezkeelako¹⁶:

(69) Nork kantatzen dituen abestiak gustatzen zaizkizu?

(Oyharçabal 1988: (7b))

(70)


(a) Amaiari nork eman dion liburua gustatu zaizu?

(b) Amaiari JONEK eman dion liburua

(Vicente 2002: (67b))

Vicentek (2002) azkenengo kasua azaltzeko, FokuSrekiko adjuntzio anitza dagoela planteatu zuen. Zehazki, bere esanetan, osagai fokalizatua lehenengo (Esp, Foku)-ra igotzen da eta DenbS honi adjuntatzen zaio ezkerrean. Ondoren, FokuS osoa mugituko litzateke kanpoko (Esp, D)-ra, (71)-ko egituraren bezala.

(71)



¹⁶ de Rijken esanetan, ezinezkoa da PEan fokudun osagaiarik izatea, bere ustez, erlatibizatutako osagaiak izango du fokua. Baina zenbait kasutan egon daiteke fokudun osagai bat PEan (69a)-n bezala, baina fokudun osagaiaren ezkerrean elementu gehiago agertzen badira, perpausaren onargarritasunak behera egiten du. Ez dakit okertze hau arrazoi pragmatikoengatik den ala sintaktikoengatik:

- I. Amaiari JONEK eman dion liburua
- II. (?) Goizean Amaiari JONEK eman dion liburua
- III. *Goizean korrika Amaiari JONEK eman dion liburua

Bestalde, Gondrak PE-etan fokalizatutako osagaiak azaltzeko, proposamen ezberdina egin zuen. Egileak azaldu zuenez, fokalizatutako osagaia (Esp, Foku)-ra igoko litzateke, eta DenbS, ordea, (Esp, Top)-ra; bere proposamenean fokurik gabeko PE-etan DenbS (Esp, Foku)-ra igoko litzatekeen arren. Egileak ez zuen argitu zerk eragingo lukeen DenbS batzuetan (Esp, Foku)-ra eta beste batzuetan (Esp, Top)-ra mugitzea.

Nire ustez, Vicentek eta Gondrak *-(e)n* foku burua dela defendatzea, Ortiz de Urbinaren (1999a eta 1999b) lanaren interpretazio oker baten ondorioa da. Horregatik, ez dut uste honi buruz Ortiz de Urbinak (1999a eta 1999b) eta beste zenbait hizkuntzalarik (Artiagoitia eta Elordieta (2016)) esandakoa ezbaian jarri behar denik, eta beraz, nire igoera bidezko proposamenean *-(e)n* jokatasun burua dela onartuko dut. Ekarri nahi dudana egituraren argudiaketa azkenengo atalerako utziko dudana arren, hemen egituraren aurkezpen xumea egin nahi nuke, ikermoldeak konparatzerakoan nire proposamenari erreferentzia egingo diodalako.

Aurkeztuko dudana proposamenak Bianchik (1999) antisimetriatik egite zuenaren oso antzekoa da, baina KonpS soila erabili ordez, indar/jokatasun sistema erabiliko dut. Gainera, igoera analisi bat planteatuko dudana arren, ez da antisimetriaren araberakoa, buru-parametroa mantenduko baitut. Gondrak ere gauza bera egin zuen, baina nire proposamenean erlatibakuntza ez da FokuSren bidez egingo.

Abiapuntuko egitura (72)-koa litzateke. Egitura honetan hainbat ezaugarri ontzat ematen ditut: hasteko, PEa DS ardatzaren osagarria dela; bestetik, *-(e)n* jokatasun burua dela; azkenik, Bianchik (1999, 2000) planteatu bezala, barruko DS fonologikoki hutsa dela eta kanpoko DSak eduki fonologikoa duela onartuko dut. Hurrengo lerroetan labur-labur aurkeztuko dut 5. atalean xeheago azalduko dudana proposamenaren muina. (72a)-tik abiatuta, lehendabizi, [irudi Ø] DS_{Eri} (Esp, Indar)-ra mugitzen da (ik. (72b)):


(72)

(a) [_{DS}[_{IndarS} Indar^o[_{JokaS} [_{DenbS} ... Jonek [_{DS Eri}[_{IS} irudi] Ø]] ikusi du]] *-(e)n* hori]

(b) [_{DS}[IndarS [_{DS_{Erl}}[_{IS} irudi] Ø]] [Indar^o[JokaS [_{DenbS} ... Jonek t_{irudi} ikusi du]] -(e)n] hori]

Ondoren, IndarSren osagarria, kasu honetan JokaS, kanpoko (Esp, D)-ra mugitzen da, honako egitura gauzatuz:

(73)



Igoera bidez planteatzen dudan egituran dauden zenbait aldaketa ez datoz bat euskararako proposatu izan diren egiturekin. Esan bezala, proposamen honen justifikazioa 5. atalean emango dut. Jarraian, bi azterbideok aurrean izanda, PE-etan ikusten diren zenbait gertakari aztertuko ditut, azterbideen artean datu gehien azaltzen dituen zein den ikusteko.

4 Teorien arteko konparaketa

Bigarren atalean euskarazko perpaus erlatiboak aurkezterakoan emandako datuetatik antzeman daiteke erlatibakuntza mota guztiek ez dutela berdin jokatzeko eta bakoitzak badituela hainbat ezaugarri eta muga. Zehaztasun hauei bi azterbidetatik eman izan zaie azalpena, eta ikerlariek bereziki PEA jokatuaren inguruko gertakariak hartu dituzte kontuan. Hala eta guztiz ere, gaur egun badaude azaltzeke dauden zenbait kontu, edota, azalpena eman izan zaien arren, egungo teoriara gaurkotu beharko liritekeenak. Atal honetan puntu arazotsu hauei begiratuko diet eta teoria

batean eta bestean eskaini zaien azalpena aztertuko dut, gai hauek azterbideen artean aukeratzen laguntzen duten ikusteko asmoz. Azpimarratu nahi dut hemen jorratuko ditudan gertakariak soilik PEAetan ikus ditzakegula, eta ez determinatzaile osteko PE-etan. Asimetria hauen inguruan 6. atalean jardungo dut.

Hasteko, PEAetan erlatiba daitezkeen osagaien inguruko azalpenak aztertuko ditut. Ondoren, PEA bat duten galdera perpausak nola azal daitezkeen begiratuko dut, izan ere, NZ hitza PEA-aren barruan egon daiteke. Ikusiko dugunez, bi ezaugarri hauek ez dute erabakiko analisi jakin baten alde, baina biak euskal erlatibo perpausen inguruan hitz egiterakoan kontuan hartzekoak direla uste dut. Ondoren aztertuko ditudan beste ezaugarri batzuek, aldiz, garrantzi handiagoa izango dute azterbide baten ala bestearen alde egiteko. Berezitasunok, kanpoko DSan ager daitezkeen elementuen ingurukoak dira, zehazki, kanpoko DSan anafarak, zenbatzaileak edo esamoldeak dauden kasuak aztertuko ditut. Berezitasun hauen azalpenak, oraintxe ikusiko dugun bezala, azterbidetik bertatik ondorioztatzen dira, eta azterbidearen baitakoak direnez, teorien artean aukeratzeko baliagarriak izatea espero daiteke. Gainera, gai hauek ere PEA eta *zein* erlatiboen arteko asimetria nabarmentzen dute.

Azkenengo hiru ezaugarriak igoera analisia defendatu izan duten hizkuntzalariek landutakoak dira operatzaile bidezko analisiaren kontra egiteko. Izan ere, operatzaile bidezko azterbidea analisi estandartzat hartu izan da. Hemen aztertuko dugu beste hizkuntzetarako proposatu diren azalpenek euskarazko erlatiboen egitura eta erabilera ulertzeko balio diguten ala ez, eta datuok baliagarriak ote diren azterbideen artean aukeratzeko.

4.1 Erlatibizatzen den osagaia

Erlatibizatzen den osagaiari buruz Keenan eta Comrie-k (1977) hizkuntzaz hizkuntza erlatiba daitezkeen elementuei begiratzuz egin zuten lanaz geroztik, asko izan dira gai honen inguruan egin diren lanak. Euskararen kasuan ere arreta jarri zaio erlatibagarritasunaren gaiari (deRijk 1972, Artiagoitia 1992, Oyharçabal 2003, Vicente 2002, Gondra 2013a). Jarraian, erlatibizatzen den

elementuaren gaineko murriztapenak aurkeztuko ditut, eta gero hauen inguruan Artiagoitiak (1992) eta Gondrak (2013a) planteatu zituzten azalpenak aztertuko ditut.

Euskarazko perpaus erlatiboetan erlatibiza daitezkeen elementuak ez dira berberak erlatibakuntza mota guztietan. *Zein* erlatiboetan edozein DS edo PospS erlatiba daiteke. PEAetan eta *bait*-erlatiboetan ere edozein DS erlatiba daiteke, baina erlatibizatzen den osagaia PospS baten barruan badago, kanpoko DSaren eta barrukoaren postposizioa berbera izan behar da. Honi *Kasu Paralelismoa* deitzen zaio.

(74) Jonek [t_i hizkuntzalaritza ikasten duen] jendearekin_j jai bat antolatu du.
(Artiagoitia 1992: (81)-etik egokitua)

(75) *Jon t ezkonduko den neska Bilbokoa da.
(Artiagoitia 1992: (5)-etik egokitua)

Kasu paralelismorik ez dagoenean, ordea, gauzak bestela dira. Batetik, kanpoko eta barruko postposizioa semantikoki erlazionatuta egoteak erlatibaketa errazten du (deRijk 1972: 134). Honen erakusgarri dira (76) PEAerako eta (77) *bait*-erlatiborako. Bestetik, gorago ikusi dugun bezala, konponbide modura izenordain erresuntibo bat erabil daiteke postposiziodun erlatibakuntza egiteko, bestela agramatikalak izango liratekeen kasuak onargarri bilakatzeko (ikus (78) adibidea PEAerako eta (79)-koa *bait*-erlatiborako).

(76) Nire burua (~~arrazoiagatik~~) hil nahi nuen arrazoi^{agatik} ez naiz gogoratzen.
(deRijk 1972: (79b)-tik egokitua)

(77) Hori da kausa ez beit duzie hemendik aitzina
(Jean-François Cerquand *apud* Cid Abasolo 2012)

(78) Bertatik botako ez nauten egoitza seguru baten jabe egin nahi dut.
(Lertxundi 2012, 212 *apud* Cid Abasolo 2012)

(79) Hanitz aldiz aditua nakon erraiten amari, hau ere harriturik baitzagon.
(Etchepare, J. *apud* Cid Abasolo 2012)

Nolanahi ere, PEaen erlatibagarritasunari buruzko juzkuak ez dira uniformeak. Izan ere, de Rijkek (1972) gipuzkerako hiztunen epai gramatikalak jaso zituen, eta erlatibagarritasunari buruz, ez zuen iritzi uniformerik lortu¹⁷. Beraz, bi dialekto (idiolekto sorta) proposatu zituen:

Two dialects (i.e. two sets of idiolects) were found with respect to relativization: a rather restrictive dialect that accepts a relative clause only when there is morphological agreement between the procedent and the verb of the relative clause; and a less restrictive dialect. (deRijk 1972:155)

3.2.1 atalean esan bezala, lehen idiolektoan (*Sistema Hertsia*) aditzarekin komuntadura egiten duten DSak soilik erlatiba daitezke: ergatiboa, absolutiboa eta datiboa. Bigarrenean (*Sistema Nagusia*), horietaz gainera, hauek ere erlatibiza daitezke: inesiboa, ablatiboa, adlatiboa eta instrumentala. (deRijk 1972:110)

Ez sistema nagusian ez hertsian ezin dira honakoak erlatibizatu: soziatiboa, destinatiboa, motibatiboa, inesibo biziduna, adlatibo biziduna, ablatibo biziduna, hurbiltze adlatiboa (ez biziduna, ez bizigabea) eta muga adlatiboa (ez biziduna, ez bizigabea) (deRijk 1972: 110).

deRijkek (1972) azaldu zuen, leku-denbora postposizioen erlatibakuntzan dauden epai ez bateratuak gorabehera, gainontzeko postposizioak ezin direla erlatibizatu. Gainera, erlatibizatu ezin direnak (etimologikoki) konposatuak direnez, ondorioztatzen du Postposizio Sintagma konplexuak ezin direla erlatibizatu.

Bestalde, perpaus erlatibo askeek eta jokatugabeek erlatibagarritasunari dagokionez muga sendoagoak dituzte. Cid Abasolok (2012) adierazi zuenez, jokatugabeetan aditzaren argumentuak soilik erlatiba daitezke (ik. (80)-ko

¹⁷ “When confronted with examples of relative clauses grammatical in the main system but outside the scope of the restricted system, informants speaking this variety do not always uniformly reject them. Rather, the typical response is a double inconsistency (...) instances of exactly the same type of relative clause may be treated differently by the same informant” (deRijk (1972): 85.or)

adibideak). PE askeetan (ik. (81)-eko adibideak), soilik aditzarekin komuntadura duten DSak erlatibiza daitezke (EGLU V: 210):

(80)

(a) Absolutiboa.

Irakurri(-**ta/rik-ko**) liburuak irabazi du Kritika Saria. (=9)

(b) Ergatiboa.

Elsa asko bidaiatutako pertsona da.

(c) Datiboa.

Kasu egin zion ilea urdintzen hasitako gizonak

(Alberdi: 2013, *apud* Cid Abasolo 2012)

(81)

(a) Absolutiboa.

Ikusten dudana mintzo naiz.

(b) Ergatiboa.

Behin ebatsi duenak bitan egin dezake.

(c) Datiboa.

Sagarrak gustatzen ez zaizkionik ez da.

(d) Inesiboa (lekua).

*Bizi naizena ederra da.

(cf: bizi naizen herria ederra da)

(e) Adlatiboa (lekua):

*Ni joaten naizena gertu dago.

(cf: ni joaten naizen hondartza gertu dago)

(EGLU V:(84-87b))

EGLUn aditzera ematen denez, PE askeetan denbora adierazten duten PospSak erlatiba daitezke. Horren adibide bakarra ematen da, honako hau:

(82) Lagunak etorri zirenean gertatu zen.

(EGLU V (89c))

(82)-ko perpausa Kasu Paralelismoaren adibide bat da, kanpoko eta barruko postposizioa bera baita, denbora inesiboa. Kasu Paralelismoan postposizio guztiak erlatibizatu ahal direnez, ez da adibide egokia. Egiazki

denbora inesiboa erlatibizatu ahal den ikusteko, barruko eta kanpoko DS/PospS ezberdinak izan behar dira. Horrelako perpausetan, denbora postposizioak ezin dira erlatibizatu:

(83) *Jaio zinema euritsua izan zen.

(cf: Jaio zinen eguna euritsua izan zen.)

Alabaina, bada salbuespen nabarmen bat. Kasu Paralelismorik egon gabe ere, barruko eta kanpoko PospSek, biek denbora adierazten dutenean erlatibakuntza egin daiteke:

(84) Etxera sartu zarenetik ez duzu ezer esan.

Azken adibide honetan, barruko postposizioa denbora inesiboa da, eta kanpooka, ordea, denbora ablatiboa. Beraz, egia da denbora postposizioak erlatibiza daitezkeela, baina betiere, bi postposizioak denborazkoak direnean, nahiz eta kasu desberdinekin markatu.

Keenan eta Comrie-k (1977) hizkuntzaz hizkuntza erlatibiza daitezkeen elementuetan oinarrituz, Eskuragarritasun Hierarkia (Accessibility Hierarchy) unibertsala dagoela ondorioztatu zuten:

On the basis of data from about fifty languages, we argue that languages vary with respect to which NP positions can be relativized, and that the variation is not random. Rather, the relativizability of certain positions is dependent on that of others, and these dependencies are, we claim, universal. The Accessibility Hierarchy (AH) below expresses the relative accessibility to relativization of NP positions in simplex main clauses.

(85) Eskuragarritasun Hierarkia¹⁸:

SU > DO > IO > OBL > GEN > OCOMP¹⁹

Hizkuntza ezberdinen erlatibagarritasunaren mugak hierarkia honen arabera defini daitezke. Adibidez, delako hizkuntzak ezin baditu objektu zuzenak erlatibizatu, ezin izango ditu zehar objektuak erlatibizatu. Edo,

¹⁸ Hierarkia honetan "X > Y" esan nahi du: X erlatibagarriagoa dela Y baino

¹⁹ Subjektua > Objektu Zuzena > Zehar Objektua > Zeharkako kasua > Genitiboa > Konparazioko osagarria

zeharkako kasua erlatibizatu ahal badu, zehar objektua, objektu zuzena eta subjektua ere erlatibizatu ahal izango ditu.

Oyharçabalek (2003) hierarkia horren arabera honela ordenatu zituen euskarazko PEA-ak:

(86) ABS/ERG > DAT > AZPIKATEGORIZATUTAKO ADBERBIOA > ADBERBIO ADJUNTUA²⁰ (Oyharçabal 2003:774-tik euskaratua)

Oyharçabalek aditzera emai zuen ez dagoela zatiketa argirik hierarkiaren mailetan: absolutiboa, ergatiboa eta datiboa erlatibizatzea beti da posible, aditzak azpikategorizatutako adverbioen kasuan murriztapenak daude eta azpikategorizatu gabekoak ezin dira erlatibizatu (ez badago Kasu Paralelismorik edo izenorde erresuntiborik).

Genitiboari dagokionez, aditzak (87) edo *kontra* bezalako postposizio batek (88) aukeratzen badu, erlatibiza daiteke:

(87) [Zain geunden] lagunak berandu iritsi ziren. (Oyharçabal 2003: (1878))

(88) [Hainbeste aldiz kontra aritu nintzen] arerioek lagundu ninduten.
(Oyharçabal 2003: (1880))

Beraz, genitiboa lexikoki hautatua denean, erlatibiza daiteke. Ordea, Oyharçabalek adierazi bezala,

relativization is much more difficult when the genitive is governed by ordinary nouns, unless the semantic interpretation is transparent. So although (1881) below is rejected (hemen (89)), (1882) (hemen (90)) is easier to accept (Oyharçabal 2003: 779):

(89) *[Etxea argazkian hartu dudan] gizona da. (Oyharçabal 2003: (1881))

(90) [Izena ahantzi dudan] gizon batek erran dit. (Oyharçabal 2003: (1882))

²⁰ Hierarkia honetan Keenan eta Comrieren (1977) hierarkiatik azkenengo bi elementuak ezabatu dira: genitiboa eta konparazioko osagarria. Hala eta guztiz ere, Oyharçabalek (2003) genitiboen erlatibakuntza posible dela adierazten du.

Honetaz guztiaz gain, kontuan hartu behar da izenordain erresuntiboen agerpena, hauek (gehienetan) bestela erlatibiza ezin izango litezkeen osagaiak erlatibizatzeke erabiltzen baitira. Izenordain erresuntibo hauek arruntak (ik. (91) eta (92)) edo indartuak (goiko (78) hemen (93 bezala) izan daitezke.

(91) Haien falta hainbeste sumatzen duen eguzki izpiekin gogoratzeko modu bat izan da, tarte batez. (Cano 2011 *apud* Cid Abasolo 2012)

(92) Nola zintzilikatu horman artean bizirik zela sekula **harekin** begiradarik gurutzatu ez zenuen animalia baten burua? (Cano 2015: 136 *apud* Cid Abasolo 2012)

(93) Bertatik botako ez nauten egoitza seguru baten jabe egin nahi dut. (Lertxundi 2012: 212 *apud* Cid Abasolo 2012)

Erlatibizatzen den osagaia DS bat denean, izenordain erresuntiboa agertzea agramatikala da (ik. (94)). Ordea, PospSen kasuan, izenordain erresuntiboa egongo ez balitz, perpausa agramatikala izango litzateke (ik. (95)), ardatzak daraman postposizioarekin bat egiten ez badu, behintzat (Artiagoitia 1992):

(94) Ø (*bera) ezagutzen duzun neska

(95) *(Berarekin) zinera joan nahi duzun neska

Bait- erlatiboetan antzeko gauza gertatzen da. Hau da, erlatibizatzen den osagaiaren lekuan hutsunea egoten da (96) edota izenordain erresuntibo bat. Baina badago ezberdintasun bat: Cid Abasolok (2012) adierazi zuen bezala, *bait-* erlatiboetan izenordain erresuntiboa ager daiteke erlatibizatzen den osagaia zeinahi dela ere, DS nahiz PospS (97).

(96) revolverra, Ø gibelean berehala gorde baitzuen. (Buruchkak, Etchepare, J. *apud* Cid 2012)

(97) Hanitz aldiz aditua nakon erraiten amari, (hau) ere harriturik baitzagon.

(Buruchkak, Etchepare, J. *apud* Cid 2012)

Beraz, izenorde erresuntiboen bidez erlatibizatu ahal den elementuaren mugak zabaldu egiten dira, osagai gehiago erlatibizatu ahal direlarik.

Laburbilduz, eta PEAtan zentratuz, esan dezakegu absolutiboa, ergatiboa eta datiboa beti erlatibizatu ahal direla, eta inesiboa, ablatiboa, adlatiboa²¹ eta genitiboa, aditzak hautatzen dituenean, hiztun askoren iritziz, erlatibiza daitezkeela. Ordea, gainontzeko postposizioak ezin dira erlatibizatu, ez bada Kasu Paralelismo bidez edo izenordain erresuntibo bidez. Halarik ere, erlatibiza daitezkeen elementuei buruzko datuek erakusten duten muga nahiko lausoa da eta muga ez da berbera deskribapen lan guztietan. Gainera, euskal hizkuntzalariak ez datoz bat muga hauek formalak (de Rijk 1973, Oyharçabal 1987, Artiagoitia 1991, Vicente 2002 eta Gondra 2013a) edota semantiko-pragmatikoak diren zehazterakoan (Ortiz de Urbina 1989, Vicente 2002). Adibidez, Ortiz de Urbinak (1989) adierazi zuen erlatibizatzen den osagaiak ez badu aditzarekin komunztadura egiten, pragmatikak jarriko duela muga.

Artiagoitiak (1992) PospSek erlatibozko perpausetan agertzeko duten mugari azalpen formala eman nahi izan zion, Azpikotasunaren Baldintzaren²² eta Uztardura Teoriaren bidez. Horretarako, ontzat hartu behar izan zuen postposizioak fonologikoki hutsak izan daitezkeela, Emondsen (1987) *Kategoria Ikusezinen Hatsarrea* (Invisible Category Principle) bere gain hartuz²³. Egilearen arabera, (98d-e) perpausak agramatikalak dira operatzaileak muga adabegi bat baino gehiago gurutzatu behar dituelako (Esp, Konp)-ra mugitzeko.

(98)

²¹ Denbora adierazten dutenean beti erlatibizatu daitezke.

²² Azpikotasunaren Baldintza (Chomsky 1977tik egokitua)

Arau zikliko batek ezin du elementu bat Y egongunetik X egongunera mugitu (eta alderantziz) honako egitura batean:

... X ... (a ... (b ...Y ...) ...) ... X ...

non a eta b muga adabegiak diren.

²³ (I) **Kategoria Ikusezinen Hatsarrea** (Emonds 1987: 618-tik egokitua)

(K) **Kategoria funtzional bat hutsa izan daiteke, baldin eta (K)ren tasun guztiak bere ahizpa-adabegi batean gauzaturik badaude.**

- (a) Ainhoak [Asierrek *t* erosi duen liburua] irakurri du.
- (b) Ainhoa [*t* bizi den etxea] urrun dago hemendik.
- (c) Ainhoak [*t* ingelesa irakasten duen eskola] nahiko berria da.
- (d) *Jon [*t* ezkonduko den neska] Bilbokoa da
- (e) *Jonek [*t* hizkuntzalaritza ikasten duen jendeak] jai bat antolatu du

(Artiagoitia 1992: (1)-(5))

PospSak muga adabegiak direnez, mugitzen den elementuak ezin du bidean Posp buru bat baino gehiago gurutzatu. Goiko (98d-e) adibideetan *ezkondu* eta *ikasi* aditzek *-rekin* sozietiboa eskatzen dute. Sozietiboa bi postposizioez osatzen denez (*-re(n)-kin*), Artiagoitiak planteatu zuen sozietiboa osatzen duten postposizioetako bakoitza izango dela muga adabegia. Beraz bi adibideetan operatzaileak bi muga adabegi gurutzatu behar ditu:

- (99) * $[_{KonpS} Op_i [_{DenbS} \dots [_{AS} t_i [_{AS} [[[_{IS} t_i] \emptyset_{PospS}] \emptyset_{PospS}] A]]]]$

(Artiagoitia 1992: (16))

(98b-c) kasuetan, ordea, PospS bakarra gurutzatzen denez ez dago arazorik:

- (100) $[_{KonpS} Op_i [_{DenbS} \dots [_{AS} [[[_{IS} t_i] \emptyset_{PospS}] A]]]]$

(Artiagoitia 1992: (14))

Are gutxiago (98a) kasuan, bertan ez baitago PospSrik.

- (101) $[_{KonpS} Op_i [_{DenbS} \dots [_{AS} [_{IS} t_i] A]]]]$

(Artiagoitia 1992: (12))

Egia bada ere proposamen honek azal lezakeela zergatik ezin diren erlatibizatu postposizio konplexuak, ezin du argitu zergatik erlatibizatutako postposizioa, edozein dela ere, perpaus nagusiko PospSaren berdina denean, beti erlatibiza daitekeen. Operatzaile bidezko analisiak ez du modurik ematen hauek azaltzeko. Artiagoitiak azalpen gisa proposatu zuen operatzailea bere sorgunera mugitu daitekeela eta PospS osoa (Esp, Konp)-ra erakarri, baina egia esan, ez du ideia gehiegi sakontzen:

since the features of the empty Ps in the embedded relative clause are realized in the operator (or in the chain headed by it) via the ICP, an operator whose features match those of its strong binder (...) may be allowed to move back to the head of its chain and attract the whole complex PP to the specifier of Comp (...) as long as the operation is local (Artiagoitia 1992:33).

Gorago aipatu dugu izenorde erresuntiboen gaia. Artiagoitiak (1992b) adierazi bezala, erlatibizatu ezin diren PospSen egongunean, izenordain erresuntiboak gramatikalak dira, eta alderantziz, ez dira onargarriak erlatibiza daitezkeen osagaiekin:

A Subjacency-based account (...) predicts that resumptive pronouns (widely assumed to occur inside syntactic islands and non- or antisubjacent to their operators (cf. Safir 1986 and Contreras 1989) should be possible where relativization is banned and, conversely, that resumptive pronouns do not occur precisely in those cases where relativization is possible. In other words, a resumptive pronoun inside a simple PP will yield an ungrammatical sentence, whereas a resumptive pronoun contained in a complex PP will not. (Artiagoitia 1992b: 700)

Alabaina, egileak adierazi zuen postposizio bakun baten erlatibakuntzan ezin izango dela izenordain erresuntiborik erabili. Ondorio hau ez da zuzena, besteak beste (78) eta (91)-ko adibideak erakusten duten bezala (hemen (102) eta (103) bezala errepikatuta):

(102) Bertatik botako ez nauten egoitza seguru baten jabe egin nahi dut.

(Lertxundi, A., 2012: 212 *apud* Cid Abasolo 2012)

(103) Haien falta hainbeste sumatzen duen eguzki izpiekin gogoratzeko modu bat izan da, tarte batez.

(Cano, H. Twist, 2011 *apud* Cid Abasolo 2012)

(102)-ko perpausean *bertatik* izenordain erresuntiboa dago, eta ez dago postposizio konplexu bati lotuta, *-tik* ablatiboa postposizio bakuna baita. Are gehiago, (103)-ko adibidean *haien* erakuslea dago erresuntibo gisa, genitibo²⁴

²⁴ Genitibo hau ez da egiturazkoa, *aurre*-k hautatua baizik.

marka duenez, ez dago inongo postposiziorik. Beraz, badirudi erresuntiboen jokabidea ulertzeko Artiagoitiak proposatu zuen baldintza baino haratago joan behar dugula.

Azkenik, kontuan izan behar dugu azterbide hau Minimalismoaren marko teorikora egokitu beharko litzatekeela. Izan ere, Artiagoitiak erlatibagarritasunaren mugak azaltzeko Azpikotasunaren Baldintza eta Hesiak erabili zituen, baina Minimalismoak Azpikotasuna eta Hesiak albo batera utzi ditu eta egitura hauek beste eratorpenen bidez azaltzen ditu. Hala eta guztiz ere, gaur egun mugimendua modu ziklikoan gertatu behar dela ez da zalantzan jartzen, eta ziklo horiei fase deritze (Chomsky 2001, 2004 eta ondoko lanak). Aitu gehienek ustez, faseak KonpS eta AS dira, eta batzuentzat DS eta PospS ere badira.

Zentzu honetan, Artiagoitiak planteatu zuen azalpenean PospS muga adabegia dela esaten zuenean, PospS fasetzat har dezakegu gaur egun (cf. Abels 2003). Baina hemen sortzen den zalantza honakoa da: sozietiboa bezalako postposizio konplexu bat, nahiz eta etimologikoki bi postposizioz osatuta egon, ez ote du hiztunak postposizio bakar bezala berrinterpretatuko? Eta bestalde, postposizio bakunek erlatibizatze gaitasun ezberdina erakusten dute lekua edo denbora adierazten dutenean. Erlatibizatutakoak denbora adierazten duenean, (104a)-an bezala, beti egin daiteke; baita, kontu honen inguruan muga sendagoak dituzten PE jokatu gabeetan ere (104b). Ordea, lekua adierazten denean osagai hau erlatibizatzea ez da beti onargarria (ikus. (105)).

(104)

- (a) Nahi duzun (egun)ean elkartuko gara.
- (b) Lana amaitutakoan elkartuko gara.

(105)

- (a) Bizi naizen etxea gustatzen zait.
- (b) ?Autoa utzi dudana kalea ahaztu zait.

Beraz, nahiz eta PospS fasetzat hartu, horrek ez du azaltzen zergatik dauden asimetriak eta onargarritasun maila desberdinak postposizioa denborazkoa ala lekuzkoa denean, ez eta postposizio bakuna ala konplexua denean. Agian postposizioaren izaerak ez du erabakitzen osagaia erlatibizatu ahal den ala ez, eta azalpena lotuago legoke erlatibizatutakoa aditzaren argumentu izatearekin.

Vicenteren (2002) azalpenean berriz ere garrantzia izango du postposizioaren nolakotasunak. Bere proposamenean DSak soilik erlatibizatzen dira, eta ez PospSak. Egilearen arabera, postposizio bakunak (zuzenean DS bati lotzen zaizkienak: inesiboa...) egiarki kasu markak dira, eta DS hauek, komuntadura egiten duten DSak bezala, erlatibizatu daitezke. Gainontzekoak ezin dira erlatibizatu ez direlako DSak.

Gondrak (2013a) erlatibizatu ahal diren elementuak perpausean duten funtzioaren arabera aztertu zituen eta aurkitutako asimetriak azaltzen saiatu zen. Mundakako hiztunei galdeketa eginda, erlatibizatu ahal diren elementuak bi multzotan banatu zituen; batetik, PEan subjektu edo osagarri diren DSak, eta bestetik, zehar-objektua eta adjuntuak, haren iritziz guztiak PostS direlarik, datiboa barne. Esperoko genukeen bezala, emaitzetan absolutiboa edo ergatiboa erraz erlatibiza daitezkeela atera zitzaion, ordea, datiboa eta adjuntuen erlatibakuntzan asimetriak aurkitu zituen hiztunen epaietan. Hiztunak bi taldetan banatu zituen, guztiak euskaldun zaharrak izan arren, I taldekoak (I Mikrodialektoa) txikitatik gaztelaniaz alfabetatuak izan ziren, II taldekoak (II Mikrodialektoa), adinez gazteagoak, euskara batuan alfabetatu ziren. Bi talde hauentzat perpausak onargarriak ziren erlatibakuntza kasu paralelismo bidez egiten bazen (106) eta onargaitzak kasu paralelismorik egon ezean (107), betiere Gondrak postposiziotzat hartzen zituenez ari gara.

(106) Sagarra emon dotzaten mutileri eskatu dotzat etortzeko.

(Gondra 2013b: (9a))

(107) Sagarra emon dotsaten *mutileri / *mutilegaz korritzen dot.

(Gondra 2013b: (10a))

Ordea, bi taldeen artean asimetriak aurkitu zituen datiboa eta soziatiboa erlatibizatzerakoan kanpoko DSa ergatiboa edo absolutiboa zenean. I taldekoen hizkeran arazorik gabe erlatibizatu zitezkeen (108), ordea, II.go taldekoenean ezin zen erlatibizatu (109).

(108) I Mikrodialektoa:

[[t_i sagarra emon dotsaten] neskieri_i] etxie erosi deu.

(Gondra 2013b: (11a))

(109) II Mikrodialektoa:

[[t_i sagarra emon dotsaten] *neskieri_i/*neskiek_i] etxie erosi deu.

(Gondra 2013b: (12a))

Gainera, I.go mikrodialektoaren baitan gertakari berezi bat aurkitu zuen. (108)-an ikus dezakegunez, kanpoko DSak perpaus nagusian izan behar lukeen kasua izan ordez (ergatiboa), barruko perpauseko kasua darama (datiboa). Eta gainera, perpaus nagusiko aditz laguntzaileak ez dauka datibo komunztadurarik, nahiz eta datibodun DS bat egon perpaus nagusian. Gondrak kasuaren kontu hau igoera analisiaren ebidentzia gisa erabili zuen.

Azken kontu honekin loturiko beste datu batzuk deskribatu eta azaldu izan dira euskaraz (*datibo komunztadura galera* deritzana, berrikuspen baterako, ikusi Fernández eta Ortiz de Urbina (2010)), ordea, orain arte euskal gramatikan ez da deskribatu erlatibizatzen den elementuak PEan izango lukeen kasuarekin perpaus nagusira igotzea. Gondrak, datiboaz gain, soziatiboarekin ere efektu bera ikusi zuen berak aztertutako datuetan.

Erlatibizatu ahal diren elementuen arteko asimetria azaltzeko, Gondrak proposatu zuen bi mikrodialekto daudela Mundakan. Bi mikrodialektoetan datiboa eta soziatiboa postposizio buruak dira, baina I Mikrodialektoan postposizioek balioztatu behar dituzten phi tasunak dituzten artean, II Mikrodialektoan ez. Hortik ondorioztatu zituen erlatibakuntzako asimetriak.

Azalpen honi *ad hoc* egindako proposamen estipulatibo itxura hartzen diot. Dena den, hizkera baten baitan mikroparametroak daudela planteatzea emankorra izan daitekeela uste dut, baina proposamen horretarako erabili zituen datuak sakonkiago aztertu beharko genituzkeela iruditzen zait, bai hizkera horretan baitan, bai inguruko eta ez hain inguruko hizkeretan ere, izan ere, erlatibizatutako DSaren kasua “kopiatzearena” orain arte (euskaraz) deskribatu ez den gertakari bat da eta hainbat hitzuni galdetu ondoren egitura horiek onargaitzat jo dituzte.

Laburbiltzeko, atal honetan bi azalpen ikusi ditugu, Artiagoitiarena operatzaile bidezko analisitik eta Gondrarena igoera azterbidetik. Gorago proposamen bakoitzak dituen mugak azpimarratu ditut. Izan ere, ez batak ez besteak ezin du erlatibagarritasunaren auzia guztiz argitu. Beraz, uste dut momentuz behintzat, erlatibizatu ahal den elementuaren auzia ez dela erabakigarria analisi baten edo bestearen alde egiteko.

4.2 Galdera NZ hitzak perpaus erlatiboan

Euskal perpaus erlatiboak aztertu dituzten ia hizkuntzalari guztiek perpaus erlatiboaren baitan NZ-galdetzaile bat duten egiturak aipatzen dituzte, eta proposamen ezberdinak egiten dituzte. PE arruntetan eta jokatugabeetan, perpaus erlatiboan NZ galdera hitzak egon daitezke, perpaus nagusia galderazkoa denean:

(110) Nork kantatzen dituen abestiak gustatzen zaizkizu? (=69)

(110)-eko motako perpausak arazo dira operatzaile bidezko analisirako, Oyharçabal (1988) eta Ortiz de Urbina ohartu ziren bezala (1989). Izan ere, badirudi perpaus hauek *Birritan Betetako Konplementatzailearen iragazkia* (DFCF: Doubly Filled Complementizer Filter²⁵ Chomsky eta Lasnik (1977:435) urratzen dutela. Iragazki honek zehazten duenez, KonpS batek ezin ditu izan aldi berean ageriko espezifikatzaile bat eta ageriko konplementatzaile bat. Baina horrezaz gain, euskaraz bi operatzaile geneuzkake toki berean.

²⁵ Jatorrizko testuan: *[_{Comp} wh-phrase complementizer]

Oyharçabalek (1988) azaldu zuen (110)-ko perpausak (111)-ko egitura izanez gero sortzen den arazoa.

(111) [_{KonpS} [_{IS} [_{KonpS} nork_i Op_j [_{Konp°} kantatzen dituen [_{DenbS} t_i t_j]]] abestiak] [_{K°} gustatzen zaizkizu [_{InfS} ...]]]? (Oyharçacal 1988: (9e))

Egitura honetan perpaus erlatiboko (Esp, Konp)-a bikoitza da: [NZ, Op]. Batetik, *nork* NZ hitz dugu eta bestetik, erlatibakuntzako operatzaile isila. Gainera, KonpSk ageriko espezifikatzaile bat (*nork*) eta ageriko konplementatzaile buru bat *-(e)n* duenez, DFC iragazkia urratzen da. Oyharçabalek iragazki honek euskaraz ez duela indarrik edo birformulatu egin beharko litzatekeela ondorioztatu zuen.

Ortiz de Urbina (1989) ere antzeko ondoriora heldu zen, bere ustez, edo DFC ez dago indarrean euskaraz edo operatzaile isila ez dago (Esp, Konp)-an, denborari adjuntatuta baizik. Horrela, planteatu zuen egitura hauetako perpaus erlatiboan lehenik NZ-mugida gertatzen dela, eta ondoren, perpaus erlatibo osoa NZ-mugida bidez perpaus nagusiko aditzaren aurreko egongunera garraiatzen dela. Eratorpen hau NZ hitzekin soilik gertatuko litzateke, ez fokudun osagaiekin.

Artiagoitiak (1991, 1992) argudiatu zuen DFC iragazkia ez zela arazo operatzaile bidezko analisirako, izan ere, bere iritziz, PE-etako NZ hitz hauek *in situ* daude. Galdera mota hauei eman ahal zaizkien erantzunak aztertuz, proposatu zuen egitura hauetan NZ-galdetzailea PEan *in situ* egonda, perpaus erlatibo osoa garraiatzen dela perpaus nagusiko (Esp, Konp)-ra. Izan ere, (112a) galderako erantzunak PE osoa bildu behar du (112b), eta ez soilik NZ hitzari dagokion sintagma bat (112c):

(112)

(a) [Nora ihes egin duen presoa]_i atxilotu dute ertzainek t_i?

(Artiagoitia 1991: (10))

(b) Mendira ihes egin duen presoa


(c) *mendira

Alabaina, erantzunetan PE osoa bildu behar den arren, NZ hitza mugituko ez balitz, honako perpausa gramatikala izan beharko litzateke, baina ez da:

(113) *[[nori harria bota dion] neska] atxilotu dute?

Beraz, garaiko operatzaile bidezko analisirako arazo izaten jarraitzen dute PE arruntetako eta jokatu gabeetako NZ hitzek. Halabaina, arazo hau PE indar-jokatutasun sistemaren arabera aztertuta konpondu egin daiteke. Gorago aurkeztu dut operatzaile bidezko egitura nola artikulatzen den indar-jokatutasun sisteman. Egitura honetan FokuS dagoenez, eta PE-etan NZ hitzak (Esp, Foku)-ra mugitzen direla onartuz, PE-etan ere gauza bera gertatzen dela pentsa dezakegu, beraz, jarraian planteatuko dut NZ hitz hauek (Esp, Foku)-a betetzen dutela eta ez daudela *in situ*. Operatzaile bidezko analisi baten ikuspuntutik eta KonpSren eguneraketarekin, horrela azter liteke egitura:

(114) Nork kantatzen dituen abestiak gustatzen zaizkizu?



Perpaus honetan *nork* NZ operatzailea, (Esp, Foku)-ra mugitu da. [[*Kanta*]tzen *ditu*] denbora buru konplexua lehenengoz buruz buruko mugimendu bitartez jokatutasun burura mugitzen da, [[*kantatzen ditu*]en] buru konplexua sortuz. Buruz buruko mugimendua jarraituz, denbora foku burura mugitzen da, azken honen foku tasuna asetzeko.

Perpaus nagusia NZ galdera bat da, barruko NZ-hitzak adierazia, baina erlatiboeko P baten barruan dagoenez, eta operatzaile isileko analisisan PE adjuntuak direnez, menpeko P osoa erakartzen du perpaus nagusiko (Esp, Foku)-ra, eta aditz nagusia, NZ-mugida bidez, FokuSren burura mugitzen da (ik. 115). Egitura honek galdetzailedun perpaus erlatiboetan dauden NZ hitzei lekua egiteko aukera ematen digu, honela DFC arazoari konponbide bat emanaz²⁶.

(115) ... [_{FokuS} [nork kantatzen dituen abestiak] [_{Foku°} gustatzen zaizkizu] ...

Baina egia esan, igoera analisiak ere egitura hauek azaltzeko bidea ematen du, beraz, ez da erabakigarria izango bi azterbideen artean erabakitzeko. Jarraian, Vicentek (2002) egitura hauetarako igoera bidezko analititik proposatu zuena aurkeztuko dut, nire ustez ez denez egokia, ondoren, neure igoera proposamena ekarriko dut egitura hauek azaltzeko.


Vicenteren proposamena gogoratzeko, kontuan hartu PEaren egituran *-(e)n* foku burua dela eta PEko DenbS honen espezifikatzaileira igotzen dela, ondoren FokuS osoa (Esp, D)-ra mugituz.

(116)

²⁶ Baina (115)-ean emandako egiturak mugitu beharrik ez duen materiala "okerreko" lekuan agertzea gramatikala izango dela aurreikusten du, honako adibidean bezala:

(i) Nork kantatzen dituen (*astebururo) abestiak gustatzen zaizkizu?

(i)-eko perpausak (115)-ekoaren pareko egitura balu, *astebururo* aditzaren ondoren agertzea gramatikala litzateke. Baina perpausa ez da gramatikala. Irtenbide bat izan liteke esatea NZ-hitza bera denez fokua, beste guztiak topiko interpretazioa jasoko lukeela, eta beraz, *astebururo* TopikoSra mugitu beharko litzatekeela. Abraham eta Molnárfi (2002) lanean horixe proposatzen da beste egitura batzuetako ordenak azaltzeko, bai eta Elordieta eta Haddican (2018)-an ere.




PE-etako NZ galderak eta osagaien fokalizazioa azaltzeko, Vicentek planteatu zuen hauek FokuSri adjuntatzen zaizkiola. Proposamen honek Vicentek aurkeztu zuen sistemarekin bat egiten duen arren, uste dut ez datorrela bat euskal hizkuntzalariek FokuSri buruz adierazitakoarekin. Izan ere, perpausean galdera hitz bakarra dagoenean, (Esp, Foku)-ra mugitzen dela onartu ohi da. FokuSrekiko adjuntzioa, ordea, egotekotan, NZ hitz bat baino gehiago dauden kasuetarako soilik planteatzen da.

Aitzitik, nik planteatzen dudana igoera egituran arazo hau ez da agertzen, bestelako eratorpena planteatzen dudalako. Análisi horretan, *-(e)n* ez da foku burua, NZ hitzak eta osagai fokalizatuak (Esp, Foku)-ak dira eta beraz, elementu hauen inguruan aurretik esandakoarekin bat dator²⁷. Hona egitura:

(117)

²⁷ Ohar egitura honek ere 25. oin-oharrean aipatutako arazo bera duela.



Perpaus honetan *nork* NZ operatzailea, (Esp, Foku)-an dago. *[[Kanta]tzen ditu]* denbora buru konplexua lehenengoz buruz buruko mugimendu bitartez jokatutasun burura mugitzen da, *[[kantatzen ditu]en]* buru konplexua sortuz. Buruz buruko mugimendua jarraituz, denbora foku burura mugitzen da, azken honen foku tasuna asetzeko. Bestalde, erlatibakuntzari dagokionez, DS_{enl} (Esp, Indar)-ra mugitzen da eta IndarSren osagarria, FokuS, kanpoko (Esp, D)-ra. Berriz ere, perpaus nagusia galdera bat denez, perpaus erlatiboa duen DS osoa perpaus nagusiko (Esp, Foku)-ra mugitzen da, eta aditz nagusia, NZ-mugida bidez, FokuSren burura mugitzen da:

(118) ... [_{FokuS} [nork kantatzen dituen abestiak] [_{Foku°} gustatzen zaizkizu] ...

Egitura hau bat dator PE arruntetarako (galdera/foku gabekoetarako) planteatu dudan egiturarekin, bietan PE-ko IndarSko osagarria kanpoko DSra mugitzen delako, PE arruntetan JokaS da mugitzen dena, eta galdera edo fokua dutenetan, FokuS.

Laburbilduz, atal honetan NZ galdera duten PE-etarako azalpenak aurkeztu ditut eta bi azterbideekin bateragarria den azalpen bat planteatu dut. Azalpena bi azterbideetara egokitu ahal denez, uste dut kontu hau ere ez dela

erabakigarria azterbide baten edo bestearen alde egiteko.

4.3 DS ardatza

Atalaren sarreran aipatu dugun bezala, kanpoko DSan bihurkariak edota zenbatzaile orokorrak daudenean gertakari interesgarriak jazotzen direla PEaetan jarraian azalduko dudanez.

4.3.1 Bihurkariak kanpoko DSan

Erlatibakuntzaren sintaxiari buruzko eztabaidan, PE-etan eta DS ardatzean agertzen diren bihurkariak begiratu izan zaie, haien zilegiztapenak perpaus erlatiboan kokagunea zein den zehazten lagunduko duelakoan. PEaetan zilegi da kanpoko DSan anafora bihurkari bat agertzea, PE barruan aitzindaria ageri delarik (119-120).

(119) [_{DS} [_{PE} Fridak_i margotu zituen] bere buruaren_i erretratuak] museora ekarri dituzte.²⁸ (Gutierrez-Ziardegi, 2003: 48)


(120) Gaixotasuna dela eta, [Maitek_i ikusten duen] bere buruaren_i irudia] ez da erreala.

Anaforek zilegiztapena behar dutela kontuan hartuz, Oyharçabalek (1989) adierazi bezala, PEa DS ardatzaren adjuntua balitz (operatzaile bidezko analisisian bezala), zilegiztatze hau ezinezkoa izango litzateke. Anafora zilegiztatua izan dadin, Uztarduraren Teoriaren A hatsarrearen arabera (Chomsky 1981, 1986, besteak beste), euren eremu hurbilean dagoen aurrekari batek uztartu behar ditu, o-komandopean. (119-120)-ko perpausetan, PEak adjuntu badira, euren baitan dauden *Frida/Maite* aurrekariak ezin dute DS nagusiko *bere burua* uztartu. Izan ere, (119)-ko perpausa operatzaile bidez aztertuz gero, A hatsarrea hausten da, *bere burua* anafora uztartu gabe baitago. (121)-eko zuhaitzean ikus daitekeen bezala, *bere burua* anaforaren gobernu kategoria DenbS1 da, honek *bere burua* DSa eta beronen

²⁸ Baliteke, bere buruaren erretratu lexikalizatutako egitura bat bezala hartzea autoerretratu hitzaren antzera, eta kasu honetan bere burua ez izatea bihurkari bat, baina (120)-ko adibidean ezin dugu gauza bera esan, adibide horretan bere burua egiazko bihurkari bat delako.

gobernatzailea (*Fridak*) biltzen dituelako. Gobernu kategoria honetan *Fridak* DSak ezin du anafora uztartu, indizekideak diren arren, ez baitu berau o-komandatzen. O-komandoa ez da betetzen *Fridak* menderatzen duen lehen adabegi adarreztatutak (DenbS 2) ez duelako menderatzen *bere burua*. Beraz, Uztardura Teoriako A hatsarrea ez denez betetzen, perpausa agramatikala izan beharko litzateke.

(121) $[_{DS} [_{PE}Fridak_f \text{ margotu zituen}]] [_{DS} \text{ bere buruaren}_f \text{ erretratuak}]$ museora ekarri dituzte.




Perpaus honetan, gainera, Frida aitzindariak operatzailearen aztarna uztartzen du, eta Oyharçabalek adierazten duen bezala:

there is a violation of Principle C of the binding theory which stipulates that [-anaphoric, -pronominal] NPs and thus variables have to be free. (Oyharçabal 1989 : 78)

Ikusi dugun arazoa igoera bidezko analisisian ez da sortzen. Izan ere, (122)-ko zuhaitzean, *Frida* aitzindariak *bere burua* bihurkaria uztartzen du. Bihurkariaren Gobernu Kategoria kanpoko DS da; *bere burua* DSa, beronen gobernatzailea (*margotu*) eta subjektu bat (*Frida*) biltzen dituelako. Ere

honetan, anafora uztartuta dago, indizekide duen elementuak (*Frida*) o-komandatzen duelako. Era berean, *Frida* DSak Uztardura Teoriaren C hatsarrea betetzen du, indizekide duen anaforak (*bere burua*) ez baitu o-komandatzen, eta beraz, ez du uztartzen.

(122)



Ondorioz, igoera analisi batean, PE DSren osagarria denez, o-komandorako eremuan anafora uztartu daiteke. Ordea, operatzaile bidezko analisisian, anafora aitzindariaren o-komando eremutik kanpo dagoenez, ezin da uztartuta egon. Beraz, igoera analisi batek soilik azal ditzake datu hauek, eta PE adjuntua ez, baizik eta osagarria dela iradokitzen du.

4.3.2 Zenbatzaile orokorrak kanpoko DSan

Perpaus Erlatiboen kokapen sintaktikoa zein den zehazteko erabili izan den beste argudio bat zenbatzaileen arteko anbiguotasuna da. PE arruntetan bi zenbatzaile egonez gero, bata kanpoko DSan eta bestea PEan, zenbatzaileen artean besarkadura anbiguotasuna dago:

(123)

(a) [Ume **guztiek** margotu dituzten] **bi** marrazkiak horman jarri ditugu.

(b) Irakurketa distributiboa:

Guztiek > bi = ume guztiek marraztu dituzte bi marrazki; bakoitzak 2

Zenbatzaile orokorrak existentzialaren gaineko besarkadura du, horregatik lortu ahal da irakurketa distributiboa

(c) Irakurketa kolektiboa:

Bi > guztiek = badira 2 marrazki ume guztiek marraztu dituztenak

Zenbatzaile existentzialak zenbatzaile orokorraren gaineko besarkadura du, horregatik lortu ahal da irakurketa kolektiboa

Anbiguitasuna gertatzen da (123b)-ko irakurketan *guztiek* zenbatzaileak *bi* zenbatzailearen gaineko besarkadura duelako. Ordea, (123c)-ko irakurketan alderantzizkoa gertatzen da: *bi* zenbatzaile existentzialak *guztiek* zenbatzaile orokorraren gaineko besarkadura du. Azken irakurketa hau ezin da argitu operatzaile bidezko analisisian, izan ere PEak DSren adjuntu badira, sortzen den galdera ondokoa da: nola liteke egituran beherago dagoen *bi* zenbatzaileak PE barruko *guztiak* zenbatzailearen gaineko besarkadura izatea? Igoera analisiak, ordea, arazo hau konpontzen duela ikusiko dugu. Berehala ikusiko dugu zenbatzaileen kontua PE-etan, baina lehenik, arazoa hobeto ulertzeko, zenbatzaile orokorrak perpaus nagusian daudenean izan dezaketen besarkadura ezberdinak nola azaltzen diren ikusiko dugu.

Perpaus bakun batean, zenbatzaile orokor edo unibertsala eta numeralak dugunean, anbiguitasuna sortzen da elkarren arteko besarkaduren artean:

(124) Bi ikaslek liburu guztiak irakurri dituzte.


Perpaus hau anbigua da, zenbatzaile unibertsalaren besarkaduraren arabera irakurketa kolektiboa edo distributiboa izan dezakeelako.

Besarkadura anbiguitasuna azaltzeko planteatu izan da, ageriko sintaxian *bi* zenbatzaileak *guztiak* zenbatzailearen gaineko besarkadura badu ere, Forma Logikoan zenbatzaile orokorrek goragoko egongune batera mugitzeko aukera dutela. Beghelli (1995) eta Beghelli eta Stowell-ek (1997) defendatzen zutenek, zenbatzaile ezberdinek adieraz dezaketen balio kuantifikatzailearen arabera, gune sintaktiko ezberdinak betetzeko aukera dute, eta besarkadura ere betetzen duten egongunearen arabera alda daiteke. Gune hauek, delako zenbatzaile balioa adierazten duten kategorien espezifikatzaile egonguneak dira, edo, bestela esanda, balio zenbatzaile batekin tasunak erkatzen dituzten

kategorien espezifikatzaileak. Zenbatzaileen mugimendua, delako tasun semantiko jakin batzuk zilegiztatu beharrak bultzatzen du. Zenbatzaile batek (+distribuzio) tasuna badu, tasun hori erkatuko duen egongune batera mugitu behar du. Besarkadura, hartara, mugimendu sintaktikoaren ondorioa da. Zenbatzaile batek o-komandatzen duenaren gaineko besarkadura izango du. Beraz, zenbatzaile batek besarkadura ezberdinak izan ahal duela azaltzeko, zenbatzaile honek egituran egongune ezberdinak betetzen dituela defendatzen dute.

Zenbatzaileen egongunerako perpaus egitura honako hau da Beghelliren (1995) proposamenean:

(125)



ZenbO, EZenb, eta ZenbDist zenbatzaile mota ezberdinen izenak dira. ZenbO motako zenbatzaileak (edo determinatzaileak) talde zenbatzaile orokorrak dira: *hauek, guztiak, batzuk, gehienak, hiru, asko, -ak...* EZenb motakoak, nolabaiteko zenbaki eragiketa bat sartzen dituztenak dira: *gutxi, gutxienez hiru, asko jota 2, ia guztiak...* Azkenik, ZenbDist motakoak zenbatzaile distributiboak dira: *bakoitza, oro...*Egituran ikus dezakegunez,

zenbatzaile mota bakoitzak ezin du edozein egongune bete. Hemendik ondorioztatzen dira zenbatzaile ezberdinen arteko elkarreragin posibleak.


Beguelli eta Stowellen (1997) arabera, *guztiak* motako zenbatzaileak Distribuzio Sra mugituko dira beti (FL-an), dagokion irakurketa lortzeko, baina *hiru* motako zenbatzaileak, batzuetan in-situ geratuko dira, irakurketa ez-espezifikoa dutenean, eta beste batzuetan, irakurketa espezifikoa edo zehatza dutenean, ErrefSra mugituko dira, FLan. Kasu honetan *guztiak* unibertsalaren gaineko besarkadura izango dute.

Perpaus erlatiboetara itzuliaz, perpaus erlatiboa DSren adjuntua dela onartzen badugu (operatzaile bidezko analisisian bezala), kanpoko DSan dagoen zenbatzaile baten eta perpaus erlatiboan dagoen zenbatzaile baten arteko besarkadura aukerak mugatuak izatea espero genezake. Izan ere, *guztiak* bezalako ZenbO batek besarkadura zabala izan dezake, baina betiere berau dagoen perpausean dagoen beste zenbatzaile batekiko.

Hau honela izanik, (126)-ko bezalako perpaus batean ez dugu espero besarkadura anbiguotasunik, zenbatzaileak perpaus desberdinetan sortzen direlako. Baina aurreikusitakoaren kontra, besarkadura anbiguotasuna egon badago:

(126) Ume guztiek margotu dituzten bi marrazkiak horman jarri ditugu.

(127) Ume guztiek margotu dituzten bi marrazkiak




Egitura honetan, *guztiek* zenbatzaileak ezin du *bi* o-komandatu, eta beraz, ezingo genuke irakurketa distributiboa lortu. Baina irakurketa hau posible da. Hau lortzeko dagoen modu bakarra, *bi marrazki*-ren kopia bat perpaus erlatiboaren barnean izatea da. Bertan, *guztiek* zenbatzaileak *bi* o-komandatu baitezake. Bestetik, erlatiboaren adjuntu analisi batetik, irakurketa kolektiboa lor genezake onartzen badugu *bi marrazki* kuantifikatzailearen eremua bere islapen nagusiari atxikita dauden adjuntuak ere barne hartzen dituela.

Aldiz, igoera analisisia onartzen badugu, besarkadura kontuak erraz azal daitezke, eta beraz, igoera azterbidea hobestera garamatza; izan ere, analisi honetan *bi* irakurketak azal ditzakegu.

(128)-ko egituran *guztiek* zenbatzaileak *bi marrazki*-ren gaineko besarkadura izan dezake, hau o-komandatzen baitu. Beraz, irakurketa kolektiboa izan dezake, onartzen badugu gero ErrfSra mugitzen dela. Irakurketa distributiboa, aldiz, *bi marrazki*-k *guztiek*-en gaineko besarkadura izanik lortzen da, DistribSra mugitzen dela ontzat emanda.

(128)



(128)-ko egituran zenbatzaileen arteko elkarreraginak azaltzeko, o-komando harremana barruko kopien artean gertatzen dela pentsatu behar dugu, hau da, JokaS (Esp, D)-ra mugitu baino lehen. Izan ere, darabilgun zenbatzaile igoera hau perpaus berean dauden zenbatzaileei buruzkoa da.

Anaforen kasua eta zenbatzaileena DS nagusiaren inguruko gertaerak dira. Bi kasuetan, gertakarien azalpenak PEa DSren osagarria dela pentsatzera garamatza. Izan ere, anaforek aitzindariarekiko o-komandopean egon behar dute, eta zenbatzaileetan, o-komandoa behar da irakurketa ezberdinak azaltzeko. Soilik PEa DSren osagarria baldin bada, eta ez adjuntua, beteko dira o-komando harreman egokiak. Beraz, bi gertakari hauek igoeraren alde egiten dute.

4.3.3 Esamoldeak

Gorago esan bezala, esamoldeen gaineko erlatibakuntza igoeraren aldeko argudio bezala aurkeztu izan da. (Vernaud 1974, Kayne 1994, besteak beste). Hona berriz (28b)-ko adibidea ((129) bezala).

(129) The headway_i that John made t_i was impressive

(Vergnaud 1974/1985)

Perpaus honek erakusten duenez, *to make headway* (aurreratu) esaerako *headway* objektua banatu daiteke aditzetik esaeraren zentzu idiomatikoa galdu

gabe. Hau ez da beti gertatzen, izan ere, zenbait esamolde ezin dira banatu erlatibakuntza bidez:

(130) * the bucket (that) he kicked, was horrible (DeVries 2002:78)

(130)-ko perpausean *to kick the bucket* (hil) esamoldea erlatibakuntza bidez banatuz gero, zentzu idiomatikoa galtzen da. De Vriesen arabera hauek dira egiazko esamoldeak (*idioms*), eta banatu ahal direnak, ordea, *kolokazioak* dira. Izan ere, kolokazioen kasuan, beste testuinguru sintaktiko batzuetan ere bana daitezke, adibidez, topikalizazioan. Esamolde opakoetan (*idioms*) DeVriesek azaldu zuen ikermoldea edozein dela ere, argitu daitekeela zergatik ezin diren banatu. Izan ere, PE-ko ardatzak ezin ditu izan bi esanahi aldi berean: esanahi idiomatiko bat erlatiboan eta esanahi literala perpaus nagusian.

Ordea, kolokazioen kasuan, igoerak soilik azal dezake egitura banatzea esanahia galdu gabe. DeVriesek (Vergnaudi (1974) jarraituz) argudiatu zuen kolokazioak aditz objektu bikote finkoak direnez, zentzuzkoa dela onartzea aditzak objektuak aukeratzeko duela. Igoera analisisian aukeraketa hau DS ardatza igo aurretik gertatzen da. Aldiz, operatzaile bidezko analisisian, perpaus erlatiboko aditzak operatzailea hartzen du objektutzat²⁹, eta nahiz eta hau perpaus nagusiko DSaren erreferentziakide izan, ez da nahikoa esapidearen zentzua mantentzeko.

Gondrak (2013a) ere bizkaierazko PE-etako esapideak baliatu zituen igoera analisiaren alde egiteko, Mundakako hiztunei galdetuta, honako perpaus guztietan esanahi idiomatikoa mantentzen dela ondorioztatu zuen³⁰.

²⁹ Edo, operatzailea goian sortzen deneko azalpenean, aldagai bat litzateke aditzaren objektua.

³⁰ Gondrak (2017) objektuak eta aditzak osatzen dituen esaerak soilik aztertzen ditu, eta beraz, erlatibizatutako elementua objektu egongunetik mugitu da. Egileak adierazten duenez:

There are no idioms with an indirect object or adjuncts, thus we will not be able to apply the idiom test to RCs with an indirect object or adjunct type of gap. (Gondra 2013a:129)

Baieztapen hau okerra da. Izan ere, euskaraz badaude zehar objektu batez eratutako esamoldeak (ik. (I)) bai eta inesiboa edo adlatiboa duten esamoldeak (ik. (IIa) eta (IIb)):

(I) Zehar objektua: Negarrari eman, edanari eman

(131)

- (a) Umiek emoten dosten latie ez da normala.
- (b) Dantza eitziek emoten dotsun paloak harritsu ein dozte.
- (c) Mutilek (sic) emoten dabilen notiek lotsie emoten dozte.
- (d) Andereñoari etzen dotsazun pelotiek funtzionatzen dotsu.
- (e) Eskolara ein dozun piperrak ez dotsu notarako konteko.

(Gondra 2013a:(130a-e))

Gondrak aurkeztu zituen datuen arabera, ia ehuneko ehunean mantentzen da esanahi idiomatikoa perpaus hauetan (Gondra 2013a: 134). Beraz, egilearen arabera, gertaera honek bizkaierazko perpaus erlatiboek igoera analisiaren alde egiten dutela adierazi zuen.

Hala eta guztiz ere, DeVriesek egiten zuen kolokazio vs. esamolde idiomatiko ezberdintasuna zuzena dela uste dut, eta esango nuke Gondrak esapide idiomatikotzat hartzen dituen gehienak, egiazki kolokazioak direla. Euskaraz osagarri+aditz motako kolokazioak banatu daitezke erlatibakuntzan. Ikus, adibide bezala, *eman* aditzaz osaturiko honako hauek:

(132)

- (a) Min(a) eman: Horrek ematen didan mina izugarria da.
- (b) Pena eman: Horrek ematen didan pena handia da.

Hortaz, uste dut kolokazioen jokaerak perpausaren eraketan DS ardatza barruan sortu izan delako argudio gisa erabili daitekeela. Ordea, esapide idiomatiko opakoak ezin dira zatitu erlatibakuntzan, eta igoera analisisian esperoko genuke hauek ere erlatibizatu ahal izatea. Hona zenbait adibide:

(133) Eman

- (a) Amore eman: *Horrek ematen didan amore handia da.
- (b) Aurpegia eman: *Harrigarria da horri eman diozun aurpegia.

(134) Egin

(IIa) Inesiboa: Puri-purian egon, ilargian egon, egonean egon...
(IIb) Ablatiboa: Pikutara joan, kaketara joan...

- (a) Bizarra egin: *Egin dudan bizarra modan dago.
- (b) Lepoa egin: *Egin dudan lepoa galdu dut.

(135) Jo

- (a) Adarra jo: *Jo didazun adarra sinesgaitza da.
- (b) Hondoa jo: ?Jo dudan hondoa izugarria da.

(136) Egon:

- (a) Puri-purian egon: *Balkoning-a dagoen puri-puria arriskutsua da.
- (b) Ilargian egon: *Zu zauden ilargia ederra da.

Adibide hauetan ikus dezakegunez, ezinezkoa da esapide guztietatik argumentu bat erlatibizatu esaeraren zentzua galdu gabe. Nahitaez, osagaia zehatza izatera pasatzen da erlatibakuntzan eta esamoldearen zentzua galtzen da, ingelesezko esapide idiomatikoekin gertatzen den moduan. De Vriesek iradoki bezala, azken adibide hauetan ikusten duguna bi ikermoldeen bidez azal daiteke, arazoa honako hau baita: DS nagusiak ezin du erlatiboan zentzu idiomatikoa izan eta aldi berean perpaus nagusian zentzu literala. Hala eta guztiz ere, uste dut euskarari dagokionez hausnarketa sakonagoa egin beharko litzatekeela gai honen inguruan, eta agian esamoldetzat jotzen ditugunen artean banaketak ezarri beharko genituzke, bai euren semantikaren opakutasunean, bai euren jokaera sintaktikoan oinarrituz. Izan ere, (132-136)-en aurkeztu ditudan adibideetatik ondoriozta daiteke esapide idiomatikoek eta kolokazioek euskaraz ere jokabide ezberdina dutela. Gainera, ikusi bezala, kolokazioek igoeraren alde egiten dute.

Orain arte aztertu ditugun ezaugarriei erreparatuz ikusi dugu zenbait kasutan ikermolde batek zein besteak azal ditzakeela datuak. Hala izan da erlatibizatzen den elementuarekin eta PE-etan dauden NZ hitzekin. Gainontzeko puntuei dagokienez, igoera analisiak gauza gehiago azaldu ahal ditu operatzaile bidezkoak baino: DS nagusiko anaforen jokabidea, zenbatzaileen arteko elkarreraginarena eta kolokazio-esapide zatituak. Beraz, teorien artean aukeratzeko baliagarriak direla uste dut. Hala eta guztiz ere, Kaynek adierazten du izen aurreko eta izen osteko PE-ek eratorpen ezberdina

dutela, eta ezberdintasun honek eragiten dituela izen aurrekoak dituzten hainbat ezaugarri. Jarraian, ezaugarri hauek euskaraz betetzen diren aztertuko dugu banan-banan.


4.4 Antisimetriak aurreikusitako ondorioak

Kaynek adierazi zuen izen aurreko PE-etan DenbS (gure proposamenean, JokaS/FokuS) (Esp, D)-ra igotzeak, ondorio sintaktikoak dituela. Bere ustez, ondorio hauek definitzen dituzte izen aurreko PE-ek omen dituzten hainbat muga. Jarraian honako hauek aztertuko ditut, izenorde erlatiboak PEAetan ezin agertzea, konplementatzaile burua hutsa izatea eta denbora mugatua izatea.

4.4.1 Izenordain erlatiboak eta perpaus erlatibo arrunta

Kayneren (1994:95) hitzetan izen aurreko PE-ek ezin dute izenordain erlatiborik izan, eta horren arrazoia azaldu zuen. Ikus dezagun zer gertatuko litzatekeen izen aurreko erlatiboazko egitura batean izenordain erlatibo bat sartuko bagenu. Hau barruko DS burua litzateke. Gorago planteatu dudan egitura berriz ekarriaz, eratorpenean DS hau (Esp, Indar)-ra igoko litzateke:


(137)



Ondoren, I bukaeran egoteko, JokaSko beste osagaiak (Esp, D)

egongunera mugitu beharko lirateke, baina *zein* eta *Jonek t ikusi du*-k ez dute osagai bat osatzen, eta beraz, ezin dira batera mugitu. JokaS bakarrik mugitu genezake, baina orduan ez genuke I bukaeran duen egitura bat lortuko:

(138) *Jonek t_j ikusi duen irudi zeina



Honegatik, Kayneren arabera, izen aurreko PE-ek ezin dute izenordain erlatiborik izan. Aurreikuspen hau euskaraz betetzen da, eta beraz, PEAetan izenordain erlatiboak agramatikalak izatea, erlatiboaren egituratik ondorioztatzen da.

4.4.2 Konplementatzaile buru hutsa

Kaynek (1994:94) adierazi zuen izen aurreko PE-etako Komp burua hutsa dela. Baieztapen honek euskal gramatiketan *-(e)n* atzizkiari buruz esaten dena ezbaian jartzen du. Izan ere, PEA jokatueto *-(e)n* konplementatzailetzat (eta zehazki, jokatutasun burua dela adierazten dute Ortiz de Urbinak (1999, 2008) eta Artiagoitia eta Elordietak (2016)) hartzen baita. Beste zenbait hizkuntzatan ere, ageriko konplementatzailetzat har ditzakegun morfemak ageri dira. Adibidez, hizkuntza sinitikoetan, mandarineraz *de* dago perpaus erlatiboaren amaieran (139) eta kantoneraz ere *ge* dago (140). Koreeraz, *-nun* atzizkia lotzen zaio perpaus erlatiboari (141). Hauek guztiak konplementatzaileak direla

planteatzen dute hainbat hizkuntzalarik (besteak beste, Wu 2000 eta Yoon 1990).

(139) [_{DS} [_{DenbS} [_{PS} cónɡ Běijīng] lái] **de**] xuéshēng
 Ablat. Beijing etorri **Konp** ikasle-Nom
 “Beijing-etik etorri den ikaslea...” (Waltraud 2015: (59b)-tik egokitua)

(140) [[ngo t_i sik] **ge**] hoksaang_i
 1.sg-Nom ezagutu **Konp** ikasle-Nom
 “ezagutzen d(it)udan ikaslea(k)...” (Yu 2006: (45)-etik egokitua)

(141) [[John-i t_i Mary-eke cwu-ess-ta]-**nun**] chayk_i
 Jon-Nom Mary-Dat eman-irag-Dec-**Konp** liburu-Nom
 “Jonek Maryri eman zion liburua...” (Yoon 1990: (202)-tik egokitua)

Kayne amharerako kasua aipatzen du, izan ere, amhareraz izen aurreko PE-etan erlatiboko denborari *yä-* atxikitzen zaio³¹ eta hau bere baieztapenaren kontra egongo litzateke. Baina, Kayneren esanetan:

ya cannot be a C°. It may be an I° past which at least the complements of V have raised. (Kayne 1994:157)

Demeke-k (2001) antisimetriatik abiatuta amharerako perpaus erlatiboak aztertu zituen. Egileak argudiatu zuen *yä-* egiazko konplementatzailatzat hartu behar dela, *yä-* txertatutako perpaus burutu guztiek duten konplementatzailea delako³². Eta hau onartzeak, Kayneren azterbidea aplikatuta (ikus 142), hitz hurrenkera okerra aurreikusten du; *yä-* DS ardatzaren amaieran egongo litzatekeelako:

(142) Johannes yä- ayy- ä- w si?i
 Johannes komp ikus_{burutua} 3m_s 3m_o marrazki
 "Johannesek ikusi zuen marrazkia..." (Demeke 2001etik egokitua)

(143) * [_{DS} [_{DenbSj} Johannes ayyäw] [_{D'} [_{D°} t] [_{KonpS} [_{ISI} si?i] [_{Konp'} [_{Konp°} yä-] [t_j ... t]]]]]]
 (Demeke 2001tik egokitua)

³¹ Amharera OA hizkuntza da, nahiz eta Konp buru lehena izan.

³² Ez buruetan *yämm-* edo *imm-* dago

Demekek (2001) ondorioztatu zuen amharerazko PEak azaltzeko igoera analisisa egokia den arren, Kayneren analisiari zehaztapenak egin behar litzaizkiokeela izen aurreko PE-etan ageriko konplementatzailea dagoela azaltzeko.

Euskarari dagokionez, Vicentek (2002) eta Gondrak (2013a) igoera analisisian *-(e)n* foku burua dela defendatu zuten. Gorago aipatu ditut nire ustez *-(e)n* foku burua izateak dakartzan arazoak. Horregatik, lan honetan Ortiz de Urbinak (1999, 2008) eta Artiagoitia eta Elordietak (2016) planteatzen dutenez, *-(e)n* jokatutasun burua dela onartuko dut. Beraz, ondoriozta dezakegu Kayneren aurreikuspena ez dela betetzen, euskaraz PE arruntek ageriko konplementatzailea daukatelako.

4.4.3 Denbora mugatua

Keenanek (1985:161) adierazi zuenez, izen aurreko PE-ek berezitasun bat dute: salbuespen gutxi batzuk alde batera utziz, izen aurreko PEak ez burutuak dira (*nonfinite/partial*), eta denbora aukera murrizta dute:

In prenominal RCS, V_{REL} is almost always in some sort of non-finite form (...), exhibits a reduction in tense-aspect marking and in verb agreement morphology compared with main clause declarative verbs: participles.³³ (Keenan 1985:161)

Bestalde, izen ondorengo PE-ek denbora aukera osoa dute. Kaynek (1994:95) Keenanen (1985) orokorpena jaso zuen eta azaldu zuen honen arrazoia, izen aurreko PE-etan $Konp^{\circ}$ eta $Denb^{\circ}$ banatuta egotean datzala. Kaynek defendatzen zuenez, $DenbS$ $Konp^{\circ}tik$ banatua egotean, ezin da denbora aukera osoa izan, honetarako, $Denb^{\circ}$ -a $Konp^{\circ}$ -ra inkorporatu behar baita ageriko sintaxian. $DenbS$ (Esp, D)-an badago, ordea, ezin da mugimendu hau gertatu. Beraz, Kaynek aurreikusten zuen izen aurreko PE-etako denbora mugatua izango dela.

³³ Baina japonieraren kasua aipatzen du salbuespen bezala:

RCS in Japanese do not put V_{REL} in a non-finite or specifically relative form, but the Japanese case appears to be the exception. (Keenan 85, 161)

Egia da izen aurreko PE-etan, askotan, hizkuntzaz hizkuntza, hauen aditza partizipio bat dela. Euskarazko erlatibo jokatugetan ere hala da. Hala eta guztiz ere, euskarazko perpaus erlatibo jotakuetan, izenak berak adierazten duen bezala, denbora aukera ia guztiak aurki ditzakegu, subjuntiboa eta baldintzako protasia izan ezik, berehala ikusiko dugun bezala. Gainera, pertsona komuntadura aukera osoa mantentzen da.

Ez da euskara orokorpen honetatik kanpo geratzen den bakarra, japonierazko PE-ek ere denbora adierazten baitute eta, besteak beste, turkieraz³⁴ (144a-b) eta alambak hizkuntzan³⁵ (145) ere, izen aurreko PE-etako DenbSek pertsona eta aldi joko osoa dute. Ondoko adibidean iraganeko aditz hipotetikoa dago PEan.

(144)

(a) [_{PE}Gör- düğü- m Ø] kız
 ikus orain 1.p Komp neska-Nom
 “Ikusi dudan neska”

(b) [_{PE}Gör- eceği- n Ø] kız
 ikus fut 2.p Komp neskaNnom
 “Ikusiko duzun neska”

(145) [_{PE}ni hik -r- fë] yima -r
 2sg jarrai hip irag pertsona 3sg.m.
 “A man (who) would have followed you”
 “Jarraituko zintuzkeen gizon bat” (Bruce 1984:(176b)-tik egokitua)

Hortaz, Kaynek aurreikusitakoaren kontra, hizkuntza hauetako PEetan zein euskarazko PE-etako aditzak jokatura agertzeko arazorik ez dago eta ia edozein denbora eta modutako adizkiak ager daitezke. Adibide bezala, (146)-ko PEan *ikusi duzu* indikatiboko aditz burutua dago, (147)-ko *nezakeen* aditz

³⁴ Eskerrik asko Ebru döne Göke-ri turkierako datuak eta azalpenak emateagatik.

³⁵ Sepik familiako hizkuntza, Papua-Ginea Berria.

laguntzailea iraganeko ahalera da eta (148)-koan *nuke* laguntzailea apodosiko adizkia da.

(146) Ikusi duzun umea etorri da

(147) Egin nezakeen³⁶ lan guztia egin dut

(148) Gustura egingo nukeen lan bat da hori.

Subjuntiboari dagokionez, gaur egungo euskaran nekez aurkituko dugu erlatiboko aditza subjuntiboan. Euskalki ezberdinetako hiztunei galdetuta, guztiei honako perpaus hau txarra iruditzen zaie:

(149) *Galdetu ikus dezazun lehenengoari.

(Cf. gaztelania: *Pregunta al primero que veas*.)

Euskaltzaindiak (1999) honako hau diosku PE-etako aditzari buruz:

Gaur egun euskalki gehienetan adizkera trinkoen ondoan izan edo *edun aditz laguntzaileak aurkitzen ditugu perpaus erlatiboetan, bai eta *edin eta *ezan aditz laguntzaileak ere ahalezkoak edo baldintzazko ondoriozkoak direlarik. Halere, mendebaleko euskalkietan (eta bestetan ere lehenago) perpaus erlatiboko adizkera jokatua *edin edo *ezan³⁷ izan daiteke ahalezkoa edo baldintzazkoa izan gabe. (...) Erlatibo subjuntiboak, halere, aski markatuak agertzen dira gaurko euskaran, mendebaldeko testuetan ere. (EGLU V: 199)

Nolanahi ere, XX. mendeko zenbait testutan aurki ditzakegu honelako adibideak, nahiz eta gutxi izan.³⁸ Rebuschik (2003) bizkaierazko XX. mendeko idatzizko zenbait testutan PE askeetan subjuntiboa erabil daitekeela erakutsi zuen, baina haren iritziz, ez da beharrezkoa, indikatiboan ere eman baitaitezke perpaus berberak. Kontua da indikatiboazko forman dagoenean irakurketa ambigua duela PE aske generikoaren eta PE murriztaile edo zehaztailearen

³⁶ Iraganeko *-(e)n* eta erlatibakuntzako *-(e)n* atzizkiek fonologikoki bat egiten dute eta ez dira errepikatzen: *nezake-en_{irag}-en_{erl} → nezakeen_{irag+erl}*

³⁷ Bizkaieraz subjuntiboa **edin* eta *egin* laguntzaileez eratzen da.

³⁸ Hona adibide batzuk:

- I. Madarikatua izan bedi itsasoa sal dezana (Txillardeggi (1979))
- II. Batzarrak erabagi dagiana [=dezana], horixe da gure lege zaharra (Erkiaga (1987))
(Zabaleta 1999: 146-148)

artean; baina subjuntiboa erabiliz gero PE aske generikoaren irakurketa du, ezinbestean. Kontrastea ikusteko, konparatu beheko adibideak. (150)-eko adibideak indikatiboko aditza du eta bi irakurketa izan ditzake (hori adierazteko mantendu ditut ingeleseko itzulpenak)³⁹:

(150) Huts egiten duena... (Rebuschi 2003:(12a))

- (a) PE aske generikoa: *whoever makes a mistake*
- (b) PE murriztailea: *the one that makes a mistake*

(151)-ko adibideak, ordea, aditza subjuntiboan du eta irakurketa bakarra izan dezake, (151a)-ko irakurketa generikoa hain zuzen ere:

(151) Huts egin dagiena (Rebuschi 2003:(12b))

- (a) *whoever makes a mistake*
- (b) **the one that makes a mistake*

Hau soilik DS ardatza ageri ez duten PE-etan gertatzen da. Izan ere, egileak adierazten duenez, bizkaierazko PE arruntetan ezin da subjuntiborik izan:

(152) *Huts egin dagien gizona (Rebuschi 2003:(13a))

Bestalde, XVII. mendeko euskarazko testuetara begira, hainbat idazlek erabiltzen dute subjuntiboko aditza perpaus erlatiboan. Oihenartek (1657) jasotako atsotitzetan, esaterako, 14 adibide ageri dira. Aipagarria da horietako batzuk erlatibo askeak direla eta beste batzuk, ordea, determinatzaile osteko PEak direla.

Hona hemen Oihenarten laneko adibide bat. Bertan, Oihenartek eman zuten frantsesezko ordaina dago (153b), bai eta Altuna eta Mujikak (2003) eman zuten gaztelaniazko ordaina (153c) eta aditz jokatuari eman zioten azalpena (153d):

³⁹ Rebuschik ez du esaten goiko adibideak bereak diren ala testuren batekoak. Aipatu, bi testu aipatzen ditu PEan subjuntiboko aditza dutenak: Kerexeta (1976) eta Refranes y Sentencias (1596) (apud Lakarra 1996).

(153)

(a) Nahiago dut arsto jasan nezan bat, ezi ez zaldi egotz nezan bat.

(b) J'aime mieux un âne qui me porte qu'un cheval qui me jette par terre

(Oihenart 1657: (649))

(c) Prefiero un burro que me lleve que un caballo que me eche.

(d) *ezan orainaldia, subjuntiboa

(Altuna eta Mujika 2003)

Frantsesezko ordainei begiratuta, Oihenartek batzuetan subjuntiboa eta bestetan indikatiboa erabiltzen zuen. Izan ere, euskaraz subjuntiboa duten 14 perpausetatik 4 soilik itzultzen ditu subjuntiboko aditzez frantsesera. Beraz, subjuntibo hauek jatorriz euskararenak direla ondoriozta dezakegu.

Oihenartek subjuntiboa erabili zuen erlatibo guztiak askeak dira, (153a)-koa izan ezik, honetan *arsto* eta *zaldi* izen ardatzak ageri direlako. Rebuschiren arabera, gaur egun ezin da subjuntiborik erabili erlatibo perpausan izen ardatza ageri bada.

Pentsa genezake honen arrazoia izan daitekeela zenbait hizkeratan subjuntiboa geroz eta gutxiago erabiltzen dela, izan ere, gorago aipatu bezala, Euskaltzaindiak ere ohartarazten du subjuntiboaren erabilera murriztasaz. Baina arrazoia beste bat izan behar dela dirudi, aginteran, helburu perpausetan eta zenbait perpaus osagarritan subjuntiboa erabiltzen delako. Nafarreraz, adibidez, perpaus konpletiboetan subjuntiboa erabil daitekeen arren (ik. (154) eta (155)), perpaus erlatiboetan ez da erabiltzen⁴⁰.

(154) Berdin da erran zatan nor torri zen

(155) Nahut tor dein

Subjuntiboaren jokabidearen auzi hau oso interesgarria den arren, lan honetan ez dut murriztapen honen arrazoiari sakonago arakatuko, eta etorkizunean lantzeko ikerketa gaitzat hartu nahi nuke. Izan ere, ondo aztertu beharko litzateke erabilera honek diakronian izan duen garapena (garai

⁴⁰ Eskerrik asko Iñaki Caminori (k.p.) datu hauengatik.

desberdinetako corpusetan arakatzuz), mota desberdineko erlatiboetako perpausetan duen agerpenari erreparatuz, eta noraino hedatzen den, azalpen egokia eman nahi badiogu. Beraz, lan honetan ezin dut argudiatu gaur egun erlatiboetako subjuntiboa erabiltzeko dagoen murriztapen hau perpaus erlatiboaren egituraren ondorio den ala ez. Baina, subjuntiboaren gaia alde batera utzita, zalantzarik gabe baieztatu daiteke ez dela betetzen euskaraz Kaynek aurreikusiko lukeen ondorioa, denbora mugatua izatearena, alegia.

4.5 Ondorioak

Igoera analisiak, batetik, operatzaile bidezko azterbidean arazo zenari aterabidea ematen dio, hots, anaforak zilegi izateari eta zenbatzaile orokorren arteko besarkadura anbiguotasunari. Gainera, PE arruntetan izenordain erlatiborik ez aurkitzearen arrazoia azaltzen du. Beraz, hiru arazori aterabidea ematen die. Bestetik, hainbat arazo azaleratzen ditu: ageriko konplementatzaileak ez izatea aurreikusten duela eta denbora mugatua izango dela aurreikustea. Gainera, igoera eredu antisimetriko batean kokatzen bada, elementuen ordena okerrak aurreikusten ditu eta gainerako mugimenduak beharko lirateke ordena azaltzeko.

Aitzitik, bada igoera analisiaren onurak mantendu eta dituen arazo batzuei aurre egin diezaietkeen proposamen alternatiboa, nik defenditu nahi dudana: hots, igoera analisisa onartu, baina buru parametroa mantenduta. Zentzu horretan, nire proposamena antisimetriatik aldentzen da puntu garrantzitsu horretan.

5 Proposamena: Erlatiboaren egitura igoera analisisa eta buru parametroa elkartuta

Eztabaida teorikoan ikusitakoak igoera analisi baten alde egiten du euskarazko PE arrunterako. Baina, esan bezala, Kayneren azterbidea zuzenean aplikatzeak arazoak ditu. Euskarazko PEAetarako Vicentek (2002) eta Gondrak (2013a) planteatu zituzten igoera egiturek ere arazoak dituzte nire ustez, batez ere, $-(e)n$ foku burua dela defenditzeak. Horregatik, goian (gehiegi

sakondu gabe) aurkeztu dudan igoera analisi berria proposatzen dut. Planteatuko dudan eratorpenean indar-jokatutasun sistema erabiliko dut eta buru parametroa mantenduko dut. Horrela, igoera analisisian erantzuna aurkitzen duten konektibitatearen auziak eta erlatiboaren funtzio sintaktikoaren auziak zuzenean egituratik eratorriko dira. Hots, konektibitatea bermatuta dago barruko eta kanpoko DSak berberak direlako (barrukoa gora mugitu da) eta funtzio sintaktikoari dagokionez, halaber, PEa DSaren osagarria da. Izan ere, osagarri izanda soilik bermatzen delako kanpoko Dak PE barruko osagaiekin erakusten duen harremana, besteak beste, anaforen kasuan ikus daitekeena.


Abiapuntuko egitura (156)-koa litzateke. Egitura honetan hainbat ezaugarri ontzat ematen ditut:

a) batetik, jokatutasun burua $-(e)n$ dela – hau bat dator euskararen konplementatzaile sistemari buruzko beste azterketa batzuekin (Ortiz de Urbina 1999/2008 eta Artiagoitia eta Elordieta 2016, besteak beste). Baina bestetik igoera analiza planteatzen duten beste lanen ideien aurka doa: gogoratu Kaynek izen aurreko PE-etako buru hau denbora burua dela iradokitzen duela, eta hortik ondorioztatzen du izen aurreko PE-etako DenbSk murriztapenak izatea. Euskaraz murriztapen hauek ez daudenez, $-(e)n$ JokaSko burua dela esan dezakegu.

b) Bigarrenik, Bianchik (1999 eta 2000) proposatzen duen bezala, barruko DS fonologikoki hutsa dela eta kanpoko DSak eduki fonologikoa duela onartuko dut.

c) Hirugarrenik, planteatzen dut PEko indar burua fonologikoki hutsa dela eta $[\nu\text{Erl}]$ erlatibagarri tasun interpretagaitza duela eta barruko Dk $[\text{Erl}]$ tasun interpretagarria duela, D burua ere fonologikoki hutsa izanik. Baieztapen hauek estipulazio itxura duten arren, arrazoiketa PE askeen eratorpena azaltzerakoan emango dut, PE askeen egituran oinarrituko baitut argudioa. Gauzak honela, hona hemen abiapuntuko egitura:


(156)



Abiapuntu honetatik, [irudi ∅_[+Erl]] DS (Esp, Indar)-ra mugitzen da (ik. (157)). Mugimendu honen zergatia Bianchik (1999) planteatzen duena izan liteke: barruko DS (Esp, Indar)-ra igotzen da kanpoko Dk [I] kategoria aukeratzeko dituen tasun sendoak dituelako eta hauek soilik [I] batek zilegiztatu ahal dituelako bere eremu minimoan. Horregatik, DSa (Esp, Indar)-ra mugitu behar da Dren Itasuna zilegiztatzeko. Eratorpen honek, baina, galdera bat sortzen du: mugimendua kanpoko Dren tasunak asetzeko baldin bada, DS_{Erl} kanpoko DSra mugitzea esperoko genuke, eta ez honen osagarriaren espezifikatzailerara. Bianchik argudiatzen du gune horretan kanpoko Dren eremu minimoan dagoela⁴¹. Vicentek (2002) eta Gondrak (2013a) ere argudio bera ematen dute mugimendu hau azaltzeko. Nik, ordea, ez dut ideia honekin bat egiten. Honen ordez, barruko DS (Esp, Indar)-era mugitzeko arrazoia, Dren [Erl] tasunak indar buruaren [uErl] tasun interpretagaitza asetzeko dela proposatzen dut.

⁴¹ Bianchik defendatzen du buru batek tasunak erkatu ditzakeela berak gobernatzen duen eremuan dagoen osagai batekin.

(157)




Eratorpena puntu honetan geratzen bada, hitzordena PE izenaren eta determinatzailearen artean ageri den erlatiboena da, beraz, baliteke izena eta determinatzailearen artean kokatzen diren PE-ek (IPED) (157)-ko egitura izatea⁴². PE arrunten eratorpenean, ordea, beste pauso bat gehiago ematen da. Hauetan IndarSren osagarria kanpoko (Esp,D)-ra mugitzen da. Mugimendu honen zergatia, DSkO EPP ([Esp, D] beteta egotea) betetzea da Vicenteren (2002) arabera (eta baita Vicenteren analisiari jarraitzen dion Gondraren (2013a) arabera ere).

(158)


⁴² Euskarazko IPEDek antz handia dute ardatza PEaren barruan dutenekin (head internal RC), konparatu (I)-eko euskarazko adibidea (goiko (18) errepikatuta) (II)-ko Hidatsa hizkuntzako adibidearekin (goiko (2)):

- I. [Posps [DS [PE Ygande juan dan] ea]n] egun guapoa pasatu nuan.
- II. [PE wacée aku-waapáahi-š] wía íkaa-c
[gizon erl-abestu-det] emakume ikusi zuen
“Abestu zuen gizonak emakumea ikusi zuen” (Boyle 2016: (3)-tik egokitua)



Bestalde, PE askeen eratorpena PE arrunten antzekoa litzateke; baina, ezberdintasuna zera da, PE askeetan ez dela ageri IS nagusia. Hona egitura:

(159) Etorriko direnak



Hemen, DS_{Eri} IndarSra mugitu da eta JokaS kanpoko (Esp, D)-an dago. Gorago ikusi dugu Bianchik (1999), Vicentek (2002) eta Gondrak (2013a) planteatu zutela DS_{Eri}-ren mugimendua kanpoko DSk_o [I] tasuna ase beharrak bultzatzen duela. Hala, PE askeetan definizioz ez dago ISrik, eta beraz,

mugimendu honek ezin du bete kanpoko DSko [I]. PE-etan mugimendu hau dagoela ontzat emanda, mugimenduaren arrazoia Indar^o-eko [uErl] tasun interpretagaitza erkatzea litzateke, perpaus erlatibo arruntentzat planteatutakoaren bidetik.

Bestalde, gorago aipatu bezala, PE askeetan gerta daiteke DS konplexuaren azken elementua ez izatea D ardatza, PEko beste osagai bat baizik. Hona hemen zenbait adibide:

(160) Ilthorrotzen ikusi dut Beñat Berterrix [_{PE} Lafittekkin ibili dena eskolan]

(161) ... baina [_{PE} ez duzuna esan] da joan-etorriko billetea hartu zenuela

(Eusko Legebiltzarra, Bilkura egunkaria, 2017/03/30)

Planteatu dudan egituraren arabera ez da erraz azaltzen nola ager daitekeen PEko elementu bat (*esan, eskolan*) kanpoko DStik “kanpo”. Ohar bedi, gainera, elementu bat baino gehiago izan daitezkeela erlatibo perpausetik kanpo direnak:

(162) [Ez nukeena inolaz ere pentsatuko] da...

“Kanporaketa” hauek soilik gerta daitezke kanpoko DSa *-a/-ak* artikulua direnean. Kanpoko DSa erakusle bat edo beste Dren bat denean, ezin da gertatu:

(163) Ilthorrotzen ikusi dut Beñat Berterrix [_{PE} Lafittekkin ibili den hau/hori/hura (*eskolan)]

(164) *baina [_{PE} ez duzun hau/hori/hura esan] da joan-etorriko billetea hartu zenuela

Datu hauek azaltzeko, pentsa dezakegu mugatzailearen izaera klitikoak bultzatuta, erlatibizatutako izena Dra atxikitzen dela forma fonologikoan; edo, hau ez dagoenean, D bera atxikitzen zaiola jokatasun buruari. Eskumatara ager daitezkeen osagaiei dagokienez, DenbS JokaSra mugitu aurretik atera dira seguru asko, *scrambling* bidez.


Azkenik, PE jokatu gabeentzat ere PE arrunten egitura antzekoa planteatu nahi dut (ikus 167). Hauetan ere, NZ hitzak posible direnez, indar-jokatutasun sistema ere gauzatzen dela onartuko dut. Jokatutasun burua \emptyset / -riko / -tako dela ontzat hartuko dut eta aditza partizipioa dela. Hala eta guztiz ere, hemen jasotzen ez den arren, egitura PE jokatuena baino mugatuagoa litzateke, izan ere, jokatu gabeetan ezin da ezeztapena egon:

(165) *Itsasotik ez itzulitako arrantzaleak

(166) Itsasotik itzuli gabeko arrantzaleak


(Cid Abasolo 2012)

(167)



Orain arte azaldutako eratorpenetan, erlatibizatutako osagaia DS izan da. Baina, ikusi dugunez, aditzaren argumentu diren PospSak ere erlatibiza daitezke. Hauek azaltzeko, proposatuko dut horrelako egituretan DS (Esp, Indar)-era mugitzen denean Dren [Eri] tasuna balioztatzeko, postposizioa ere perpaus garraio bidez mugitzen dela (ik. (168)).

(168) Bizi naizen etxea gustatzen zait.



Hala eta guztiz ere, eratorpen honek aurreikusten du PospS guztiak erlatibizatu zitezkeela, hitzun batzuen datuek erakusten dutenaren aurka. Beraz, nire analisiak ere ezin du azaldu zergatik ezin diren erlatibizatu PospS batzuk⁴³.

6 Ondorioak eta galdera irekiak

Egin dudan proposamenetik, euskarazko determinatzaile-aurreko PEak azaldu daitezke: PE arruntak, PE jokatu-gabeak, izen eta determinatzailearen artean kokatzen diren PEak eta PE askeak. Gainera, ikermoldeen arteko konparaketan landu diren gertaera gehienak azaldu daitezke, hots PEan dauden NZ galdera hitzak, bihurkariak kanpoko DSan, zenbatzaileen besarkadura eta kolokazio-esamoldeak zatitu ahal izatea.

⁴³ Uriagerekaren (1999) Ahoskatze Anizkuna kontuan hartuta, adjuntuak beste maila paralelo batean konputatuko lirake ahoskatze gunerako. Agian, honekin lotuta egongo litzateke erlatibizatutako adjuntu diren PospSak ezin erlatibizatzea. Pentsa genezake erlatibakuntza, egituran beste osagai batzuk (adjuntuak) sartu aurretik gertatzen dela. Horrela, egituran adjuntu bat sartzen den momentuan, beranduegi litzateke erlatibakuntzarako eta agramatikaltasuna azal genezake. Hala eta guztiz ere, gogoratu nahi dut erlatibakuntzaren mugak ez daudela argi, eta azalpena baliagarria izateko, datu argiagoak beharko genituzkeela.

Bestalde, azalpenak PEak betetzen duen egongune sintaktikoarekin lotura dutela erakutsi dut, hots, Dren osagarriak direlako. Gertakariok ezingo lirateke azaldu PEak DSren adjuntu balira.

Atal honetan, euskarazko determinatzaile osteko PEak, zehazki *zein* erlatiboak, ekarri nahi ditut eztabaidara. Izan ere, eztabaidan PE arrunten berezitasun bezala aurkeztu ditudan gertakari gehienak ez dira zilegi dira *zein* erlatiboetan.

Hasteko, PE arruntetan anaforak egon daitezke kanpoko DSan, *zein* erlatiboetan ez bezala:

(169) Museora ekarri dituzte [_{DS}[_{PE}Fridak_i margotu zituen] bere buruaren_i erretratuak].

(170) *Museora ekarri dituzte bere buruaren_i erretratuak [_{PE}zeinak Fridak_i margotu baitzituen]

Gainera, PE arruntetan kanpoko DSan zenbatzaile orokorrak daudenean, irakurketa anbigua izan dezakete zenbatzaileok. *Zein* erlatiboetan, berriz, irakurketa bakarra izan ahal dute:

(171) Ume guztiek margotu dituzten bi marrazkiak horman jarri ditugu.

(a) Irakurketa distributiboa: (guztiak > bi) bost ume badaude, hamar marrazki daude

(b) Irakurketa kolektiboa: (bi > guztiak) bost ume badaude, bi marrazki daude (guztien artean margotuta)

(172) Horman jarri ditugu bi marrazkiak, zeinak ume guztiek margotu baitituzte.

(c) *Irakurketa distributiboa

(d) Irakurketa kolektiboa

Azkenik, PE arrunt batean egon daiteke esamolde zatitu bat, *zein* erlatiboetan, ordea, ez da zilegi:


(173) Horrek ematen didan mina izugarria da.

(174) *Izugarría da mína, zeína zure hitzek eman baitidate.

Ezberdintasunak agertzea espero izatekoak dira, baldin eta onartzen badugu, Kaynek esaten zuen bezala, izen aurreko erlatiboek eta izen ostekoek eratorpen ezberdinak dituztela (begi-bistakoa den hitzordenaren ezberdintasunaz gainera). Baina euskaraz ikusten ditugun ezberdintasun hauek ez dira Kaynek eman zituen arrazoiengatik. Nire ustez, PEaren kokapenarekin lotuta daude. Adibidez, anaforen kasuan, PE arruntak osagarri direnez, eremu murrizagoa dute eta eremu honetan gerta daiteke anaforen zilegiztatzea. Ordea, *zein* erlatiboak adjuntuak balira, aitzindaria anaforak eskatzen duen eremu hurbiletik kanpo legoke, hau da, ez luke anafora uztartuko.

Igoera analisisian PE DSren osagarria denez, igoera bidezko analisi batek ezin du jaso *zein* erlatiboak adjuntu izatea. Beraz, *zein* erlatiboak azaltzeko operatzaile bidez eratzten direla planteatu nahiko nuke, eta operatzailea izenorde erlatiboa bera dela:

(175) estazioa, zeinera gaua abailtzen den



Alabaina, fonologikoki *estazioa* aurrekaria eta *zeinera* osagaiak banatuta ahoskatzen dira, eta idazten dugunean ere, komaz banatuta idazten dugu gehienetan. *Zein* erlatiboak aposizioan daudela pentsa dezakegu.

Bestalde, NZ hitzei eta fokalizatutako osagaiei dagokienez, *zein* erlatiboek eta PE arruntek ezberdin jokatzen dute. NZ hitzak PE arruntetan gramatikalak diren artean, *zein* erlatiboetan ez:

(176) Nork kantatzen dituen abestiak gustatzen zaizkizu? (=69))

(177) *... estazioa, zeinera zer abailtzen baita...?

NZ hitzek (Esp, Foku)-an kokatzen direla onartu dut. (178)-ko egituran, printzipioz FokuS proiektatu liteke, baina, egitura honekin ezin dut argitu zergatik ezin den NZ hitz bat egon (Esp, Foku)-an. Pentsa genezake *zein* erlatiboetan ez dagoela FokuSrik egitura murrizagoak edo direlako, eta beraz, ezta ere fokalizatutako osagairik. Baina ez da hala, honako adibideak erakusten duen bezala:

(178) (...) PDS alderdiarekin, zeina **Legebiltzar federaletik kanpo** geratu zen aurreko hauteskundeetan. (*Berria* 2004-04-04)

Are gehiago, PE arruntetan ez bezala, aditza fokalizatzeko *egin* indargarria erabili daiteke:

(179) (...) gizonaren arnasa, zeina **astundu egiten** baitzen odola lodiago eta aberatsago bihurtu ahala.

(Venusen delta, Anaïs Nin, Garazi Arrula Ruiz 2013) (EPG)

Beraz, *zein* erlatiboetan FokuS dagoela ondoriozta dezakegu, baina orduan, zergatik ezin da NZ hitzik egon bertan? Agian, bi operatzaile daudenez (galderazkoa eta erlatibozkoa) hauen artean elkarreraginen bat egon liteke.

Laburbilduz, Master Amaierako Lan honetan euskarazko determinatzaile aurreko PE-etarako analisi berri bat proposatu dut, igoera analisisan oinarrituta, eta antisimetriari jarraitu gabe, euskararentzat buru parametroaren eredu misto bat onartuz. Planteatutako igoera analisiak erlatiboen hainbat ezaugarri argitu ahal ditu: determinatzaile aurreko PE-etako hitz ordena eta konexioaren arazoa; NZ hitzen agerpena, bihurkarien auzia, zenbatzaileen besarkadura eta kolokazio-esapide zatituak. Arazo batzuei aurre egiten badie ere, planteatu dudana igoera analisiak ezin ditu azaldu erlatibagarritasunaren arazoa, izenordain erresuntiboen banaketa, ez eta Kasu paralelismoak zergatik hobetzen duen erlatibakuntza. Konpondu gabe geratzen diren kontu hauek dira

aurreragoko ikerketa batean landu nahiko nituzkeen. Baina operatzaile analisiak arazo gehiago uzten ditu azaldu gabe.

Gainera, lan honetan erabili ditudan DSek soilik ISak izan dituzte osagarri bezala. DSari egitura gehiago emanez, eta bertan Artiagoitiak (2004) proposatzen dituen ZenbS eta FS ere txertatuz, ukitu ez diren zenbait ezaugarri azalpena aurkituko lukete. Adibidez, nondik eratortzen diren erlatibo arruntek izan dezaketen [+/- murrizgarri] eta [+/- espezifiko] irakurketak, PEA-ak hitzordena bera izanda. Baliteke PE arrunta beti DSren osagarri ez ezik, batzuetan ZenbS edo FSren osagarri izatea eta horren arabera, irakurketa ezberdinak lortzea.

Bestalde, interesgarria litzateke haurren jabekuntzan PEak aztertzea eta ikustea ea jabekuntzako datuek hemen aurkeztu dudan proposamenaren alde ala kontra egiten duten. Adibidez, Cinquek (2011) hainbat hizkuntzako haur-hizkeren datuak aurkezten ditu non PEko ardatza bi aldiz agertzen den, behin menpeko perpausean eta behin nagusian (ik. (180)-ko katalaneko adibidea). Egilearen arabera, datu hauek adierazten dute ardatza bi egongunetan duen egitura, unibertsala izango litzatekeela, eta hizkuntzaren arabera, bi kopia horietatik bata, bestea edo biak ahoskatuko liratekeela.

(180) M'agradaria ser [_{DS} **el nen** [_{PE} que el veí pentina **el nen**]]

(Gavarró, Cunill, Muntané eta Reguant 2010 *apud* Cinque 2011: (28))

Azkenik, lan honetan aztertu ez dudana eta orain arte aztertu gabe dagoen beste auzi interesgarri bat euskarazko PE-etan aditz subjuntiboaren agerpen eskasa da. Gaur egungo hitzunei galdetuta, guztiek subjuntiboa PE-etan gaitzesten duten arren, testu zaharragoetan eta hizkera batzuetan oraindik bizirik dago, nahiz eta oso agerpen mugatuarekin.

Aurreragoko lanek soilik eman ahal izango dituzte zabalik geratzen diren galderen erantzunak. Eta ziurrenik, lan horiek ere, galdera berriak ekarriko dituzte, zientziaren patua, halaberrez.

Bibliografia:

- Abels, Klaus, 2003, *Successive Cyclicity, Anti-Locality, and Adposition Stranding*. Doktorego Tesia, University of Connecticut
- Abraham, Werner, eta László, Molnárfi, 2002, "German clause structure under discourse functional weight: Focus and antifocus". *Issues in formal German(ic) typology*. Werner Abraham and Cornelius Jan-Wouter Zwart (Arg.), Vol. 45, 1-43. Amsterdam: Benjamins.
- Altuna, Patxi eta Mujika, Jose Antonio, 2003, *Euskal atsotitzak eta neurtitzak. Les proverbes Basques recueillis par le Sr D'Oihenart, plus les poésies Basques du même Auteur*. Iker 15, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Artiagoitia, Xabier eta Elordieta, Arantzazu, 2016, "On the semantic function and selection of Basque finite complementizers" *Complementizer Semantics in European Languages*. Boye, Kasper eta Kehayov, Petar (arg). Berlin: Mouton de Gruyter.
- Artiagoitia, Xabier, 1991, "Aspects of tenseless relative clauses in Basque" *ASJU XXV-3*. 697-712
- Artiagoitia, Xabier, 1992, "Why Basque Doesn't Relativize Everything" *Syntactic Theory and Basque Syntax* J. Lakarra eta J. Ortiz de Urbina (arg), *ASJU*-ren gehiagarriak. 11-35
- Artiagoitia, Xabier, 1998, "Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan", *Uztaro* 27, 33-61
- Artiagoitia, Xabier, 2000, *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Artiagoitia, Xabier, 2004, "Izen Sintagmaren birziklatzea: IS-tik inguruko funtzio buruetara", *Euskal gramatika XXI. Mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*, Albizu, Pablo eta Fernández, Beatriz (arg.), Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 11-38

- Artiagoitia, Xabier, 2009, "Jabetza-genitiboaren sintaxia eta erkatze anizkuna"
ASJU 43
- Artiagoitia, Xabier, 2012, "The DP Hypothesis in the grammar of Basque", *Noun Phrases and Nominalization in Basque: Syntax and semantics*, Urtzi Etxebarria, Ricardo Etxepare eta Myriam Uribe-Etxebarria (arg.), *Linguistics Today* 187, 21–78
- Artiagoitia, Xabier eta Elordieta, Arantzazu, 2013, "On the semantic function and selection of the Basque finite complementizers". *Semantic functions of complementizers in European languages*. P. Kehayov eta K. Boye (arg.), Berlin: Mouton de Gruyter.
- Baker, Mark C., 1985, *Incorporation: A Theory of Grammatical Function Changing*, MIT-eko Doktorego Tesia
- Beghelli, Filippo, 1995, *The Phrase Structure of Quantifier Scope*, University of California-ko Doktorego Tesia
- Beghelli, Filippo eta Stowell, Tim, 1997, "Distributivity and Negation The Syntax of each and every", *Ways of Scope Taking A*. (arg), Dordrecht: Kluwer Academic Publishers. 71-107
- Bianchi, Valentina, 1999, "Consequences of antisymmetry. Headed relative clauses", *Studies in Generative Grammar* 46. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Bianchi, Valentina, 2000, "The Raising Analysis of Relative Clauses: A Reply to Borsley" *Linguistic Inquiry* Vol. 31, 1 (Winter, 2000), 123-140
- Bianchi, Valentina, 2002a, "Headed relative Clauses in Generative Syntax. Part I", *Glott International* 6.7. 197-204
- Bianchi, Valentina, 2002b, "Headed relative clauses in generative syntax. Part II", *Glott International* 6.8. 235-247
- Borsley, Robert D., 1997, "Relative clauses and the theory of phrase structure" *Linguistic Inquiry* 28, 629-47.

- Borsley, Robert D., 2001, *More on the raising analysis of relative clauses*. University of Essex-eko eskuizkribua.
- Boyle, John P., 2016, "The syntax and semantics of internally headed relative clauses in Hidatsa" in B.J. Gordon eta C. Rudin (arg.) *Advances in the study of Siouan languages and linguistics*. Berlin: Language Science Press, 255-286.
- Brame, Michael, 1968, *A new analysis of the relative clause: Evidence for an interpretive theory*. eskuizkribua, Cambridge, MA: MIT Press
- Bruce, Les, 1984, "The Alambalak Language of Papua New Guinea (East Sepik)" *Pacific Linguistics*, Series C, 81. Canberra: Australian National University
- Cano, Harkaitz, 2011, *Twist*, Zarautz: Susa
- Cano, Harkaitz, 2015, *Beti oporretan*, Zarautz: Susa
- Carlson, G., 1977, "Amount Relatives." *Language* 53, 520-542
- Cerquand, Jean-François, 1985, *Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak*, Donostia: Txertoa
- Chomsky, Noam, 1965, *Aspects of the Theory of Syntax*. Cambridge MA: MIT Press.
- Chomsky, Noam, 1973, "Conditions on transformations", in S. Anderson eta P. Kiparsky (arg.) *A Festschrift for Morris Halle*. New York: Holt, Rinehart and Winston, 232-286.
- Chomsky, Noam, 1977, "On Wh-movement" *Formal Syntax*, P. Culicover, T. Wasow eta A. Akmajian (arg.) New York: Academic Press, 71-132.
- Chomsky, Noam, 1981, *Lectures on Government and Binding*, Dordrecht: Foris.
- Chomsky, Noam, 1986, *Barriers*, Cambridge MA: MIT Press.
- Chomsky, Noam, 1995, *El Programa Minimalista*. Madril: Alianza Universal

- Chomsky, Noam, 2001, "Derivation by Phase" *Ken Hale: A Life in Language*, Kenstowicz, Michael (Arg.). Cambridge, Mass: MIT Press. 1–54.
- Chomsky, Noam, 2004, "Beyond Explanatory Adequacy. Structures and Beyond" Belletti, Adriana (Arg.). *The Cartography of Syntactic Structure 3*. Oxford: OUP. 104–131
- Cid Abasolo, Karlos, 2012, "Perpauis erlatiboak", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg
- Cinque, Guillermo, 2011, "On Double-Headed Relative Clauses", *Linguística. Revista de Estudos Linguísticos da Universidade do Porto* 6. 67-91
- Cinque, Guillermo, 1999 *Adverbs and Functional Heads: A Cross-Linguistic Perspective*. Oxford: Oxford University Press
- Demeke, Girma A., 2001, "N-final relative clauses: The Amharic case", *Studia Linguistica* 55-2, New Jersey: Blackwell Publishers Ltd. 192-216
- Elordieta, Arantzazu, 2001, *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. University of Leiden-eko Doktorego Tesia
- Elordieta, Arantzazu, 2008, "OA hizkuntzak: Oinarrizko hurrenkeraz eta hurrenkera eratorriez" *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkera ezbaian*. Arg: I. Arteatx, X. Artiagoita eta A. Elordieta. Bilbo: EHU. 93-126
- Elordieta, Arantzazu eta Haddican, Bill, 2018, "Truncation feeds intervention. Two clause type effects in Basque", *Natural Language & Linguistic Theory* 36:2.403-443
- Emonds, Joseph E., 1987, "The Invisible Category Principle", *Linguistic Inquiry* 18, 613-632
- Etchepare, Jean, 1936(?), *Buruchkak*, Baiona: Gure Herria
- Etchepare, Rikardo, 2010, "Omen bariazioan" *ASJU*-ren gehigarriak 52

- Etxepare, Rikardo eta Oyharçabal, Beñat, 2008, Leku-datiboa ekialdeko zenbait hizkeratan, *Aldaketak, aldaerak, bariazioak euskaran eta euskal testugintzan*. Baiona, 2008 abenduak 12-13
- Euskaltzaindia, 1999, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V*. Bilbo: Euskaltzaindia
- Eusko Legebiltzarra, *Bilkura Egunkaria*, www.legebiltzarra.eus
- Fernández, Beatriz eta & Landa, Josu, 2009, Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat: Corsintax». *Lapurdum* 13
- Fernández, Beatriz eta Ortiz de Urbina, Jon, 2010, *Datiboa hiztegian*. EHU: Bilbo
- Gavarró, Anna; Cunill, Arnau ; Muntané, Míriam ; Reguant, Marc, 2010, *Catalan child relative contrasts as a processing effect*. GALANA 2010-ean aurkeztutako lana, Toronto.
- Goenaga, Patxi, 1978, *Gramatika Bideetan*, Erein: Donostia
- Gondra, Ager, 2013a, *Basque relative clauses: Head raising, case and micro-variation within Bizkaiera*, Purdue University-ko Doktorego tesia
- Gondra, Ager, 2013b, Cross-generational syntactic variation in Mundaka Basque: the influence of the language of instruction, *ASJU* 47-2
- Gonzalez, Hebe Alicia, 2005, *A Grammar of Tapiete (Tupi-Guarani)* University of Pittsburg-eko Doktorego tesia.
- Greenberg, Joseph H., 1966, *Universals of Language*, MIT Press: Cambridge
- Gutierrez-Ziardegi, Eider, 2003, *Euskal erlatibozko perpausen sintaxia*, Hizkuntzalaritza Doktorego Programa-ko ikerketa lana. Euskal Filologia Saila. UPV/EHU. Gasteiz
- Garzia, Juan, 1997, *Joskera lantegi*. Gasteiz: IVAP

- Haddican, Bill, 2004, "Sentence polarity and word order in Basque" *The Linguistic Review* 21-2:87-124.
- Kayne, Richard, 1994, *The Antisymmetry of Syntax*, Cambridge MA: MIT Press.
- Keenan, Edward L. eta Comrie, Bernard, 1977, "Noun phrase accessibility and universal grammar" *Linguistic Inquiry* 8. 63-99
- Kerexeta, Jaime, 1976, *Euskal-Bibia*, Bilbo: Bilboko Elizbarrutiko Gotzaintza.
- Krajewska, Dorota, 2017, *Euskararen sintaxi diakronikorantz: egitura konplexuak. Towards a historical syntax of Basque: complex constructions*. EHUko Doktorego Tesia
- Laka, Itziar, 1990, *Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections*, MIT-ko Doktorego tesia
- Laka, Itziar, 1986, "Azpikotasunaren Baldintzaz: Muga Adabegiak Euskaraz", *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, P. Goenaga (arg). EHU: Bilbo.
- Laka, Itziar eta Uriagereka, Juan, 1987, "Barriers for Basque and Viceversa" *Proceedings of NELS* 17. 394-428
- Lakarra, Joseba, 1996, *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta Edizioa*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Larramendi, Manuel, 1747, *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada*, Salamanca: Antonio José Villagordo de Alcaraz
- Leizarraga, Joanes, 1571, *Jesus Krist Gure launaren Testamendu Berria*, Roxella: Pierre Hautin
- Lertxundi, Anjel, 1999, *Gogo zubi*, Irun: Alberdania
- Lertxundi, Anjel, 2012, *Paper festa*, Irun: Alberdania

- Longobardi, Giuseppe, 1994, "Reference and Proper Names: A Theory of N-Movement in Syntax and Logical Form", *Linguistic Inquiry* 25, 4. 609-665.
- Lur, 1999, *Lur entziklopedia tematikoa: Euskara eta Euskal Literatura*. Donostia: Lur.
- Mujika, Jose Antonio, 1999, Erlatibo arrunta zehaztaile? Teoriak eta datuak" *EUSKERA XLIV-2*. 1139-1159
- Murasugi, Keiko, 2000a, "An Antisymmetry analysis of Japanese relative clauses". *The syntax of relative clauses*, Alexiadou, A., Law, P., Meinunger, A. eta Wilder, C. (Arg), Amsterdam: John Benjamins. 231-264
- Murasugi, Keiko, 2000b. "Japanese complex noun phrases and the antisymmetry theory" *Step by step: Essays on minimalist syntax in honor of Howard Lasnik*. Martin, R., Michaels, D. eta Uriagereka, J. Arg. Cambridge, MA: MIT Press. 211-234
- Ormaetxea Lasaga, J. L., 1996, *Arrasateko Toponimia*, Onomasticon Vasconiae (15), Euskaltzaindia: Bilbo
- Ormazabal, Javier, Uriagereka, Juan eta Uribe-Etxebarria, Myriam, 2008 (1994) "Hitz hurrenkera eta NZ-mugida: azalpen parametrikoko baten bila" *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarritzko hitz hurrenkera ezbaian*. Arg: I. Arteatx, X. Artiagoita eta A. Elordieta. Bilbo: EHU.
- Ortiz de Urbina, Jon, 1987, "Operator Movement and Verb Second Phenomena in Basque" *ASJU XXI*2. 321-355
- Ortiz de Urbina, Jon, 1989, *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon, 1999, "Focus in Basque", in Rebuschi & Tuller (eds), *The Grammar of Focus*, Amsterdam: John Benjamins. 311-333.

- Ortiz de Urbina, Jon, 2008 (1999), "Indar Sintagmak, Foku Sintagmak eta Ezkerraldeko Buruak Euskaraz" *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkera ezbaian*. Arg: I. Arteatx., X. Artiagoita eta A. Elordieta, Bilbo: EHU. (1999ko lanaren itzulpena)
- Oyharçabal, Beñat, 1987, *Étude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Université de Paris 7 Doktorego tesia.
- Oyharçabal, Beñat, 1988, "Operatzaile isila euskarazko perpaus erlatiboetan", *Euskara Biltzarra. Lehen atala: Hizkuntz deskribapena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia. 135-140.
- Oyharçabal, Beñat, 1989, "The Pro-drop Parameter and the Resumptive Pronoun Strategy in Basque". *Configurationality. The Typology of Asymmetries*. Macicz, L. and Muyskens, P. arg. Dordrecht: Foris.
- Oyharçabal, Beñat, 2003, "Relative Clauses", *A Grammar of Basque*. Hualde, J.I. eta Ortiz de Urbina, J. Berlin: Mouton de Gruyter. 702-823
- Rebuschi, Georges, 2001, Note sur les phrases complexes à protase corrélatrice du basque. *Lapurdum VI*: 289-317.
- Rebuschi, Georges, 2003, "Basque Semi-Free Relative Clauses and the Structure of DPs". *Lapurdum VIII*: 457-477.
- Rebuschi, Georges, 2006, A New look at Northern Basque Wh-Free Relative Clauses. *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, Beatriz Fernandez eta Itziar Laka (arg.), 779-798.
- Rijk, Rudolf de, 1972, *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, MIT-eko Doktorego tesia.

- Rizzi, Luigi, 2001, On the Position “Int(errogative)” in the Left Periphery of the Clause. *Current Studies in Italian Syntax: Essays Offered to Lorenzo Renzi*. Elsevier
- Rizzi, Luigi, 1997, “The Fine Structure of the Left Periphery”, *Elements of Grammar*, Haegeman, L. (arg.), Dordrecht: Kluwer.
- Ross, John Robert, 1967, *Constraints on Variables in Syntax*, MIT-eko doktorego tesia.
- Salaberri, Patxi, 2008, “*Satznamen* direlakoen Inguruan. Erlatibozko perpausetan jatorri duten toponimoak aztergai”, *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez*. ASJUren gehigarriak 51. 725-741
- Sarrionandia, Joseba, 1983, *Narrazioak* Elkar: Donosita
- Satrustegi, Jose Mari, 1987, *Euskal testu zaharrak*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Šimík, Radek, 2011, *Modal existential wh-constructions*. Ph.D. Dissertation, University of Groningen-eko doktorego tesia
- Uriagereka, J. (1999). Multiple spell-out. In S. D. Epstein & N. Hornstein (arg.), *Working minimalism* (251-282 or.). Cambridge, MA: MIT Press.
- Vergnaud, Jean Roger, 1974, *French relative clauses*, MIT doktorego tesia.
- Vicente, Luis, 2002, *Prenominal relatives in Basque and antisymmetry*, Deustuko Unibertsitateko Gradu Amaierako Lana.
- Vries, Mark de, 2002, *The Syntax of Relativization*. Doktorego tesia, University of Amsterdam. LOT dissertation series 53.
- Waltraud, Paul, 2015, *New perspectives on Chinese Syntax*, Berlin: Mouton de Gruyter.
- Wu, Xiu-Zhi Zoe, 2000, *Grammaticalization and the development of functional categories in Chinese*. Doktorego tesia, University of Southern California.

Yoon, James Hye-Suk, 1990, *Korean syntax and generalized X-bar theory*,
University of Texas at Austin-eko Doktorego Tesia.

Yu, Dominic, 2006, *Relative clauses and nominal modifiers in Cantonese*
<http://www.linguistics.berkeley.edu/~dom/cantonese-rc.pdf>

Zuloaga, Eneko, prestatzen, *Nerbioi ibarreko egungo euskararen azterketa
dialektologikoa*, EHUko eskuizkribu argitaratugabea.